

# HAUSPOA talde politikoaren irakurketak

## Arrakalak hauspotu, etorkizuna piztu

2019-09-24

Garai nahasiak datozela ematen du gure Euskal Herri txiki honen baitan are txikiagoa den ezker mugimenduarentzat. Nahasiak izateagatik interesgarriak ere izan daitezkeela pentsatu beharko dugu. Hein handi batean ulergarria da ziklo politiko berriaren taupadak, hasierakoek behintzat, barne gatazkaren zalaparta sortzea; epe luzera jo dezakeen ziklo berri baten irekieran gaude eta orain ezartzen ditugun oinarriek hurrengo hamarkadetako jardun politikoa baldintzatu dezakete. Asko dago jokoan, beraz, Euskal Herriaren askatasun osoaren alde borrokan jarraituko dugunontzat. Zer galdu ere badugu; azken 50 urteetan metatutako indar politikoa, herri borrokalari bezala bizirautea bermatu duena, barne guden ondorioz behin betiko galtzeko arriskua. Alegia, European zehar ohikoegiak diren ezker mugimendu erabat atomizatu eta sozialki hutsal horietako bat bezala amaitzeko arriskua.

Arriskuak arrisku, ukatzerik ez dago abagune historiko batean murgilduta gaudela. Halakoetan, “zer egin?” galderari erantzun egokiena ematea ezinbestekoa da; estrategia marrazterako orduan hurrengo urteetako gakoak modu zorrotzenez asmatzea. Zentzu horretan, panorama argitze aldera, guzti honen abiapuntua identifikatzea komenigarria litzateke. Zer esanik ez dago, 50 urte oparo iraun zituen aurreko zikloari dena zor diogula; guk, orain eta hemen, herri honen alde borrokatzen jarraitzeko aukera, bidean dena eman izan duzuenoi eta diharduzuenoi esker baino ez da posible izan. Zuek utzitako arrasto iraultzailea bilatzen gauden honetan, zuen oroimenak argituko digu bidea.

Non galdu dugu, baina, iraultzaren arrasto hori? Argi dago, momentu zehatz batean, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua estrategikoki agortu egin zela eta bere burua berrasmatzeko gaitasunik gabe noraeza nagusitu zela bere baitan. Hurrengo batean sakonduko dugu porrotaren nondik norakoen azterketan (noiz hasten den, nola ematen den, zergatik ematen den...), baina zalantzarik gabe esan dezakegu 2000. urteko lehen hamarkadan jada ENAM-ek bere azken momentuak bizi izan zituela. Porrotaren ondotik, desartikulatzea etorri zen eta hemen egon liteke egungo egoera ulertzeko gakoetako bat: ez zen bakarrik borroka armatuaren desmantelazioa eman; prozesu iraultzailearen ondorengotza bermatu zezakeen egitura organizatibo eta teorikoa ere desmantelatu zen erabat. Horrela, sozialdemokraziak kontrol politikoa hartu eta Ezker Abertzalearen egitura guztiak erreformaren koordenadetan kokatu zituen. Honek ondorio argi bat ekarri zuen; estrategia iraultzailearen alboratzea.

Baina euskal jendartearen badago oraindik iraultzan sinesten duenik. Hori ukatzerik ez dago. Nostalgikoak ote? Utopikoak agian? Ameslariak? Gure ustez, iraultzaileak, besterik gabe. Hitz horrek duen pisu eta ardura historiko guztiarekin. Eta iraultzale orok, ezer baino lehen, bere buruarekin topo egin beharko du. Esaterako, ENAM-en porrotari

dagokionez, erreformismoaren jokaldia analizatu baino, sozialismo abertzale iraultzailearen huts egitea ulertu beharko genuke, hor baitago porrot historikoaren gakoa. Hein handi batean, proiektu iraultzaileak bere helburuak betetzeko gaitasun ezak eragin zuen ENAM-en desegitea; erreformismoak abagunea behar bezala probesten baino ez zuen jakin izan, besterik ez. Zeintzuk dira, beraz, sozialismo abertzale iraultzailearen huts egiteak? Zeintzuk kolapso estrategikoaren arrazoiak?

Gehiegitan, ordea, kontrako bidea hartzen dugu eta besteen gabeziak zerrendatzen hasten gara. Norberaren ahulezien tamainakoa da besteen akatsetan ikusmira jartzeko joera. Horregatik, egun “ofizial” bezala izendatzen den Ezker Abertzaleari gure azken erreferentzia: gure bideak, momentuz behintzat, banatuta doaz, egungo testuinguruan ezinezkoa delako ildo estrategiko bateratua garatzea. Ikuspegi ezberdinetatik egingo diogu aurre Euskal Herriaren aldeko borrokari eta askotan talkak sortu litezke gure artean, baina horrek ez du esan nahi etsai bezala identifikatzen ditugunik, inondik inora. Etsai nahikoa ditu dagoeneko Euskal Herriak. Horregatik, errespetuzko harremana da elkarri zor dioguna; bakoitzak bere bideari ekin, joko zikinak alde batera utzi eta ahal den neurrian gure arteko zubiak hautsi gabe mantendu beharko genituzke. Zentzu horretan, ulertu beharko genuke iraultzailea ez den antolakunde edo mugimendu bati ezin diogula iraultzailea izatea exijitu; iraultzaileon programa politikoa beteko dutela edo bete “beharko” luketeela pentsatzea frustrazio iturri baino ez da izango.

Eta hemen hasten da iraultzaile orok bete beharko lukeen benetako lehenengo ariketa; ohikoa daukagun begiradaren noranzkoa aldatu eta besteek egiten dutena epaitzetik, gure barrura begira jartzea. Proiektu iraultzailea maila sozialean gauzagarria dela erakutsi beharko dugu, eta hori, oztopoak oztopo, gure ardura baino ez da izango. Ez hori bakarrik; gauzatu ere, gauzatu beharko dugu. Edo, gutxienez, horretarako asmo irmoa erakutsi. Bide iraultzailean sinestu eta horri bizitza eskaini beharko diogu, iraultzailearena ere baita fedezko hautua; arrazionalitate positibistatik haratago, ezin garelako baldintza objetiboak noiz etorriko zain egon. Bizi hautua da, hortaz, iraultzaileak egiten duena; ez da honetan edo bestean militatzeko erabaki partziala, eta, horregatik, bere baitan darama ukazioaren onarpena. Borondatezko ukazioa da, baina; sistema ustel batean hutsik sentitzen dugun bizitza ezaren ukazioa, alegia. Eta honek ate bat irekitzen du; hutsik dagoena esanahi askatzailez betetzeko aukera. Guzti honengatik, barnera jarri beharreko begirada hori ez da bakarrik kolektiboki egitekoa, norbanakoak ere egin beharreko ariketa da. Norbanakoa kolektiboan txertatuz gauzatzen delako iraultza soziala, norbanakoaren egoa disolbatuz eta gu guztion gogoia kolektiboaren mesedetara jarritz. Honekin, iraultzak izan behar duen zentzu sozial orokorra ere marrazten da; sistema kapitalista eta patriarkalaren erroan dagoen jabetza pribatuaren abolizioa, hain zuzen ere. Guk komunismoa deitzen diogu horri.

Sistema kapitalista, dominazio sistema historiko bezala, jabetza pribatuaren gainean eraikitako sintesi sozial bezala ulertzen dugu. Bere baitan, jabetza forma horren arabera eraikitako sistema juridiko, politiko, ekonomiko eta ideologikoak funtzio nagusi eta zehatz bat betetzen du: burgesiak, kapitalaren jabetza duenak (sozialki esanguratsua den jabetza), gainontzekoen lana bereganatu eta botere soziala etenik gabe metatu ahal izatea. “Gainontzeko” horiek langileak gara, desjabetuon klasea, merkantzien zirkulaziora gure lan indar biluzia aurkeztu baino ezin dugunak egin. Inposatua zaigun posizio sozial horretan harrapaturik, burutzen dugun lanaren zati bat baino ez zaigu ordaintzen, soldata bezala aurkezten zaiguna. Ekoizten dugun aberastasun sozialaren gainontzekoa burgesiak bereganatzen du gainbalioaren apropiazioaren bitartez. Askotan

begibistakoa ez den arren, lapurreta modu normalizatu eta “legalean” ematen baita, burgesak sistematikoki apropiatzen du langileok ekoiztutako aberastasun soziala. Finean, kapitalaren jendartean, langileok kolektiboki sortutakoa, legalitate burgesak jabetza pribatu kapitalista bilakatzen du. Hori da kapitalismoak bere baitan gordetzen duen kontraesan nagusia, gainditu ezingo duen esplotaziozko harremana, egiturazko biolentzia. Jaio zenetik gaur egunera arte horrela izan da, eta sistema sozial bezala erabat deuseztatzen ez den arte, horrela izaten jarraituko du.

Baina egungo kapitalismoan bestelako zapalkuntzak ere ematen dira, eta horien artean patriarkatuak emakumeokiko eragiten duena azpimarratu nahi dugu. Esplotazio sistema honek jatorri aurrekapitalista badu ere, ondo baino hobeto jakin du modernitate kapitalistara egokitzen eta mugimendu feministen hamarkadetako borrokei esker, inoiz baino argiago geratzen da egungo jendartea goitik behera zeharkatzen jarraitzen duela patriarkatuak. Funtsean, jabetza pribatuarekin ere badu zerikusia; oinarrian, emakumea gizonaren jabetzaren mugen baitan ulertzen baitu. Apropiazio patriarkal hori emakumeen lanaren gainean eman daiteke, baita haien gorputzetan ere, eta hamaika adibideren bitartez adierazten da: enpresari batek emakumeari lan bera egiteagatik gutxiago ordaintzen dionean edo emakumeak lan indarra lanpostu feminizatu eta prekarioagoetan saltzera behartuta daudenean. Baita gizon langileak bere emazteak etxean egindako lan erreproduktiboaren ordainketa (soldata), indibidualki jasotzen duenean ere. Eta nola ez, emakume guztiak, jendarte patriarkal batean emakume bezala sozializatuak izateagatik, etengabe pairatzen duten biolentzia fisiko eta psikologikoa; bortxaketak, erailketak, mespretxuak, gutxiespena...

Puntu honetara helduta, nola eutsi jendarte kapitalista eta patriarkalaren abolizioari? Zein da gure programa iraultzailea? Hasieran esan badugu iraultzaile ororen lana barrura begiratzea dela, kanpora begiratzeaz ere ezin gara ahaztu. Horretarako, begirada ortzimugan kokatzeko gai izan beharko ginake, iraultza ez delako egun batetik bestera emango den eztanda soziala. Eztanda sozial bezala ulertzea ere, zeinaren ondoren sintesi sozial berria “logikoki” argitzen den, iraultzaren ikuspegi erredukzionista eta determinista onartzea litzateke. Iraultza prozesu bezala ulertzen dugu, momenturen batean maila sozialean gauzatu daitekeena, baina gaurdanik egikaritzen hasi behar duguna. Hots, bide iraultzaileak bere baitan helburua barnebildu beharko du; irudikatzen dugun etorkizuneko bizitza aske horren edukiak gaurdanik gorpuzten hasi beharko gara. Horregatik, berebiziko garrantzia dute egunero emango ditugun pausu txikiak, horiek ere prozesu iraultzailearen osagai esentzialak direlako. Honenbestez, iraultza ibilkera bat da, eta, nola ez, norabide bat, ikuspegi estrategiko bat; egun ematen ditugun pausu txikiak norabide egokian ematen ditugula ziurtatuko digun estrategia hain zuzen ere. Hau da jardun iraultzailea ulertzeko daukagun begirada.

Hortaz, jomuga identifikatua dugu: inolako zapalkuntza eta klase sozialik gabeko sistema soziala; jendartea osatzen dugun kideon bizitza askatasun errealean garatuko dela bermatuko duen sintesi sozial berria. Gurean, ortzimugako helburu estrategiko hori Euskal Komuna Sozialisten Errepublikaren eraikuntzan kokatzen dugu.

Bide horretan, epe laburrean gauzatu daitezkeen bi helburu aurreikus daitezke; borrokaren jarraikortasuna eta mugimenduaren despatriarkalizazioa. Lehenengoari dagokionez, agerikoa da borroka tradizioa galtzeko arrisku nabarmena dakarrela egungo testuinguruak. Historiaren taupadak eta hari gorria galtzeak noraeza ekarri dezake eta horregatik ezinbesteko abiapuntu bezala ikusten dugu belaunaldien arteko haustura

gainditzea. Borroka komunitatea berreraiki, belaunaldien arteko loturak mantendu, izan garena irakatsi eta egindako akatsak onartzeko prestutasuna erakustea da gure egitekoa. Iraganik gabeko orainak etorkizunik ez duelako. Bigarren helburuari dagokionez, patriarkatua maila sozialean existitzen den zapalkuntza forma izanik, ulertzekoa da gutariko bakoitzak patriarkatuaren isla izatea gure baitan. Beraz, arazo soziala den heinean, mugimendu iraultzaileak berak duen arazoa ere bada. Esaterako, asmo iraultzailerik zintzoena duen gizonak ere, bere izaeraren parte ditu jarrera patriarkal eta matxistak; errealitate hori inolako konplexurik gabe onartzeko gai izan beharko gara. Ziurrenik, gure pertsonalitatearen zutabeak kolokan jarriko ditu despatriarkalizazio lanetan hasteak, baina ez dugu zertan beldurrik izan. Prozesu iraultzailearen baitan eginiko lanketa, norabide egokian egiten bada (norbanakotik kolektibora doan norabidean), ezinbestean emaitza emankorrek izango ditu.

Honenbestez, ezer gutxi daukagu gehitzeko gaurkoan. Hurrengo hilabeteetan aipatu gai ezberdinetan sakontzeko aukera izango badugu ere, abiapuntu bezala argi dugu egiturazko biolentzia, zapalkuntza eta dominazioan oinarritutako sistema batean bizi garela; 2019. urtean, oraindik ere, sistema kapitalista eta patriarkalaren biolentziapean bizi gara. Gure kasuan, gainera, biolentzia hori ez da edozein lekutan ematen: espainiar eta frantziar estatuek zapal dutako Euskal Herrian ematen da. Hamarkada luzez borrokatu izan den Euskal Herrian; odol eta malkoz bustitako lurrian. Bada, bere seme-alaben odol eta malkoak isurtzen ikusi dituen herri honek ezin dio askatasunaren bideari uko egin, ezin die historiaren taupada hotsei muzin egin. Guzti honengatik, guk, hemen eta orain, iraultzarako konpromisoa berresten dugu. Sozialismo abertzale iraultzailearen lekukoa hartu eta independentzia sozialistarantz ekiteko determinazio osoaren beharra dugu.

Askatasuna helburu, iraultza hauspotu.

## **Historiaren hari gorritik tiraka**

2019-11-21

Irailean argitaratu genuen aurkezpen idatzian aurrerantzean gehiago egongo zirela iragarri genuen. Datozen hilabeteetan argitaratzen joango garen idatzi sorta horretan lehenengoa, historiaren analisiari eskaintzea ikusi dugu egokien; zer da ba herri bat historiarik gabe? Nondik datorren ez dakien herriak nekez asmatuko du aurrera egiteko norabide egokia hartzen. Hala ere, historia modu askotan konta daiteke eta gehienetan garaileek kontatutakoa da jaso dezakegun historia bakarra. Euskal Herrian ondo baino hobeto dakigu hori; espainiar eta frantziar historiografia inperialistek gure existentzia historikoaren ukazioa izan dute helburu nagusietako bat (inguratzen gaituzten gainontzeko herri zapalduen ukazioarekin batera). Horri aurre egiteko badago euskal historiaren azterketan burubelarri tematzen denik; hori garrantzi handiko lantzat hartzen badugu ere, guk ez dugu historia justifikazio bezala ulertzen. Alegia, Euskal Herria existitzen dela ziurtatzeko ez dugu historiara jo behar; guretzako nahikoa da euskal jendarteak gaur egun erakusten duen borondate politikoarekin. Eta zentzu horretan, ukaezina da Euskal Herria, oraindik ere, bizirik mantentzen den errealitate politiko, ekonomiko, sozial eta kultural espezifikoa dela. Nola ez, euskal aberriaren existentziaz ari gara, analisi historikoarekin erabat lotua dagoena, aberria bera, historia ulertzeko modu zehatz baten emaitza delako.

Espainiar/frantziar historia eta euskal historiaren artean gertatzen den bezalaxe, Euskal Herriaren baitan ere modu ezberdinak daude historia eta aberria ulertzeko. Esate baterako, euskal abertzaletasunean garrantzi handia izan du euskaldunak “berezko” herri bat garela defendatu duen korranteak. Jeltzaleak izan dira ikuspegi horren adierazle nagusiak, baina ez bakarrak. Kasu horretan, euskaldunok nolabaiteko patu batek gidatutako gizataldea ginatke; Jaungoikoak gure odolean txertatu duen destinu eta izaera erromantikoa, alegia. Gaur egun azalpen jainkotiarrek eta arrazazkoak nahiko baztertuak egon arren, ikuspegi esentzialista horrek badu oraindik ere babes handia euskal jendartean: askok uste dute euskaldunok badugula zeozer, berezko sen bat, gainontzekoengandik ezberdintzen gaituena. Esentzialismo edo idealismo horren baitan, abstrakzio batetik abiatuta (esentzia, ideia bera) errealitatea erdiesten da eta horrekin batera gertakari historikoak. Gure ustez, baina, kontrako bidea hartu beharko genuke errealitatea ulertzeko. Alegia, euskaldunok, munduko gainontzeko herri guztiak bezala, historiaren emaitza gara, eta historia hori orain zapaltzen dugun lur honen gainean emandako gertakari material zehatzen ondorioa da. Zorionez edo zoritxarrez euskaldunok ez daukagu esentzialki bereizten gaituen ezer. Badugu, noski, subjektibotasun bereizi bat, baina horren jatorria erabat lurterra da, ez dago “jainkorik” edo “izpiriturik” hor kanpoan. Subjektibotasuna, edo nahi bada, euskal “sena”, gertakari historiko material horiek euskaldunon pentsamendu eta sentimenduetan inprimatutako isla sinbolikoa baino ez da. Horrek ez du esan nahi errealitate sinboliko hori mespretxatu behar dugunik; positibismo erredukzionistenean jausteko arriskua izango genuke kasu horretan. Historia aztertzerako orduan, gertakarien zerrendatze hutsa baino, oinarri material horren baitan bizi izan ziren pertsonen subjektibitatea ulertzeko gai izan beharko gara; euren sentimenduak eta bizipenak ulertu, momentu historiko horietan hartu zituzten erabakiak ulertu ahal izateko.

Behin gure analisi historikoaren abiapuntu materialista ezarrita, beste gako bat azpimarratu nahiko genuke. Izan ere, aipatu gertakari historikoen azterketarekin hasi

bezain laster ohartuko gara gurea ez dela historia baketsua izan; eta ez lur hauetako biztanleek horrela nahi izan dutelako. Gainontzeko herri asko eta askotan gertatu bezala, gurea ere erresistentziazko historia bat da; bere burua defendatzeko, bizirauteko, borrokatu behar izan duen herri baten historia. Inguruko potentzia eta inperio ezberdinen asimilazio saiakerei etengabe aurre egin behar izan diete lurralde hauetako biztanleek; Historiaurretik hasita eta gaur egunera arte. Eta erasoak ez dira bakarrik kanpotik etorri. Zenbat euskaldun oso, abizen guztiekin eta odolik garbienarekin, ibili dira kolonizazio lan zikinetan itsasoaz beste aldera? Horietako zenbat aritu dira euskal lurretan zapaltzaile lanetan burubelarri? Batzuetan interes propiorako, besteetan estatu arrotzen mesedetara zipaio lanetan, zenbatek saldu dituzte euskal neba-arrebak mozkin miserable baten truke?

Guzti horregatik uste dugu zapaltzaile eta zapalduon arteko lehiaren emaitza dela gaur egungo Euskal Herria. Historiaren motorra interes kontrajarrien etengabeko talka horretan kokatzen dugu eta horregatik historiaren amatasuna matxinadari aitortzen diogu, gizaldietan zehar zapaltzaileen aurrean altxatu direnei. Horrekin, euskaldunon aberriaren osagai nagusia ere identifikatzen dugu; askatasunaren aldeko etengabeko borroka, erresistentzia. Alegia, horrek baino ez du bermatu asimilazioari aurre egin eta herri bezala aurrera jarraitzeko aukera. Hortaz, euskal lurren eta hizkuntzaren defentsan, zapalkuntza forma ezberdinen aurrean borrokatu direnek osatzen dute euskaldunon aberria. Abstrakzioetatik haratago, klase borroka zehatzen emaitza bezala ulertzen dugu aberria eta bere sorburua den historia. Historia materialismotik ulertzen genuela esan dugunean honi egiten genion erreferentzia. Baina guk aldarrikatzen dugun historia haratago ere badoa; garapen historikoari buruzko ezagutza zientifikoa eskuratu nahi dugu, bai, baina ez artefakto akademiko neutral bat eraikitzeko. Zapalduon zerbitzura jarri nahi dugu historia, askapen prozesua elikatuko duen irakaspen eta inspirazio iturri bilakatuz. Zergatik gaude orain gauden egoeran? Nola gaingitu egoera hori? Horretarako, euskal historian zehar emandako matxinada, altxamendu, iraultza saiakera eta erresistentzia horietako bakoitza eta bere protagonistak aztertu beharko ditugu; dela andre-gizonek gure mendietan emandako gudu epikoena, dela etxeetako egunerokotasunean milaka eta milaka emakumek erakutsitako erresistentzia izpi isilduenak. Eta hor topatuko dugu erronka nagusiena, historia hori ez baitago hizki larriz idatzia; ahaztuen historia da, behekoena, historia xehea. Iraultzaile bezala, gure ikerketa historiografikoa horiek azaleratzera zuzendu beharko genuke.

Baina zapalduen historian sakontzeak Euskal Herritik haratago ere garamatza, kapitalismoaren sustraiekin topo egin arte. Topo egin eta berau ulertzeko oinarritzko gakoak argitu; alegia, dominazio sistema bezala gertakari erabat historikoa dela ulertu. Kapitalismoa ez da lege natural bat, ahistorikoa, gizakiok gure artean harremantzeko daukagun berezko joera bat. Aitzitik, momentu oso zehatz baten eratu eta garatzen den sintesi soziala da, aurretik existitu ez dena eta ondorioz, momenturen baten existitzeari utzi ahal diona. Eta beraz, existentzia aurrekapitalista bat derrigorrean izan behar duena. Feudalismoa, esate baterako, kapitalismoa hedatzen hasi baino lehenago herrialde askotan nagusi zela ohartuko gara. Dominazio sistema bezala uler dezakegu feudalismoa, klase dominatzaile batek (noblezia, jaun feudalak, eliz-gizonak) sistematikoki bereganatzen zuelako klase zapalduak egindako lana (kanpesinoak, jopuak), horretarako sistema juridiko, politiko, ideologiko eta errepresibo propioa erabiliz. Langile klasea eta klase esplotatzailea, beraz, baina ez kapitalistak, dominazioa ez zelako kapitalismoan berezkoak diren mekanismoen bitartez ematen (jabetza pribatu burgesa eta merkantzien salerosketa).

Feudalismoa beraren baitan ere, aurretik zetozen beste dominazio formak ere bazeuden, patriarkatua esate baterako. Berez, gizonak emakumeen lana eta gorputzak sistematikoki bereganatzeko mekanismo sozialak feudalismoa baino askoz zaharragoak dira, baina feudalismoak patriarkatu hori xurgatu eta bere interesen arabera funtzionarazten jarri zuen. Kapitalismoak ondoren egingo zuen era berdintsuan. Patriarkatuaren kasuan, Historiaurrera jo beharko dugu sortu zeneko testuinguru soziala aztertzeko eta beraz, bere ezaugarriak eta funtzionamendua ulertzeko. Kasu honetan, ordea, are garrantzitsuagoa da ulertzea nola lortu duen historikoki bizirautea eta feudalismoa ez bezala, kapitalismoaren barruan erreproduzitu eta hedatzea.

Sistema aurrekapitalistei dagokionez, komeni da azken aipamen bat egitea. Aurretik esan bezala, feudalismoa komunitate kanpesinoen zapalketaren gainean eraikita zegoen; botere feudalarri subordinatuak zeuden komunitateok urtero lan egun batzuk zein gainprodukzioaren zati bat eman behar zieten jauntxo eta eliz-gizonei. Hala ere, komunitate horietako asko sistema feudalen ertzetan bizi ziren eta botere eta kontrol feudala ez zen erabatekoa. Zentzu horretan, aipatzekoa da mendeetan zehar Europan emandako matxinada eta altxamendu kanpesinoek klase tentsio horri erantzuten zietela; jaun feudalarriak zenbat gehiago hartu nahi, kanpesinoak hala defendatu aurretik izan zituzten baldintzak.

Komunitate kanpesino horiek, subordinazio kondizio bortitz edo xamurragoen pean, askotan barne egitura propioa mantentzeko gai ziren, ekonomia naturala bezala ezagutzen denaren ezaugarriekin; jabetza komunala, komunitatea, autokontsumora zuzendutako ekoizpen sistema, lan kolektiboaren garrantzia... Oinarrizko egituraketa politikorako instituzio demokratikoak ere bazituzten; kontseiluak, herri/auzo batzarrak, kofradiak... Komunitate kanpesinoen barne ezaugarri guzti horiek komunismo primitiboa deitzen dugunaren aztarnak ziren. Europako zenbait lekutan XX. mendera arte ere biziraun zuten ekonomia naturalean oinarritutako komunitate kanpesino horiek, nahiz eta ordurako, jasandako dominazio historikoen ondorioz (feudalismoa, patriarkatua, kapitalismoaren lehenengo faseak...), nahiko desitxuratuta zeuden.

Kapitalismoaren sustraietara jo, eta aurretik ere zapalduak eta zapaltzaileak bazeudela ikusi dugu. Klase borroken historia aztertu nahi badugu horretan ere jarri beharko dugu arreta: ekonomia naturala, patriarkatua, feudalismoa, hiri inguruetan biltzen hasiak ziren lehenengo merkatarri eta burgesak. Baita Historiaurrean agertutako lehenengo inperio eta monarkiak ere, edota erlijio monoteisten zabalpena. Garapen historikoak sistema aurrekapitalista horien arteko konbinazio konplexua sortu zuen, lekuan lekuko berezitasunekin. Hala ere, denen oinarrian bi indar kontrajarrien arteko tentsioa sumatu dezakegu: botere metaketa eta zapalkuntza alde batetik, askatasunean eta bakean bizitzeko determinazioa bestetik. Bi indar horien arteko tentsioen islada dira ordura arte emandako erresistentzia, matxinada, gerra eta iraultzak, klase borrokaren islada aurrekapitalista hain zuzen ere.

Eta ondoren kapitalismoa; lur planetak inoiz ezagutu duen dominazio sistema unibertsal eta boteretsuena. Bere agerpenarekin batera mahai jokoa hankaz gora jarri zuen, ordura arte imajina ezinak ziren indarrak askatuz eta historiaren abiadura azeleratuz; akumulazio originarioa, jabetza pribatuaren ezarpena, bizi baldintzen merkantilizazioa, industriaren garapena, konpetentzia kapitalista, proletarizazioa, gerraren dimentsio planetarioa... Denetariko bide eta trikimailuak erabili izan zituen burgesiak, kapitalaren ordezkari lanetan ziharduen klase sozial berriak. Prozesu konplexua izan bazen ere,

helburu zehatz eta bakarra zuen jomugan: bizitzarako beharrezkoak ziren osagaiak (bitarteko produktibo eta erreproduktiboak, lurra, lurrak gordetzen zituen errekurtsu naturalak, lan indarra...) merkantzia bilakatu. Hots, sistema aurrekapitalistetan horiek zuten kondizioa gainditu, askatu, eta mugarik gabe salerosi ahal izateko baldintzak ezarri. Hori baitzen, finean, kapitala etengabe erreproduzitu eta metatzeko ezinbesteko baldintza. Guzti honekin batera, klase borrokarako aukera berriak ere zabaldu zituen garapen kapitalistak: zapalduen artean elkartasuna bultzatu, ekoizpenaren sozializazioa, klase kontzientzia iraultzailearen ernatze nazional eta internazionala... Izan ere, historian ezagutu ditugun iraultza saiakera handi eta arrakastatsuenak ikusi izan ditugu kapitalismoaren garapenarekin batera, XIX-XX. mendeetan zehar. Horiek ikertu beharko ditugu, erakutsi zituzten bertuteetan inspiratu eta izandako gabezi eta akatsetatik ikasi.

Hortaz, Euskal Herriko klase borrokaren historia eraiki nahi badugu, analisirako elementu horiek gurera ekarri beharko ditugu: nola eman zen prozesu historiko guzti hori Euskal Herrian? Komunismo primitibotik abiatuta, noiz arte iraun zuten komunitate kanpesinoek? Zein izan da emakumeon historia eta erresistentzia Euskal Herrian, patriarkatuaren ezarpenetik hasita, sorgin ehizara edota egun biolentzia patriarkalak hartzen duen formara? Nola biziraun du Euskal Herriak, bere hizkuntzak eta herri langileak, inperio eta erregimen ezberdinen erasoen aurrean? Nola garatu zen kapitalismoa Euskal Herrian? Zein da guzti horrek gaur egungo Euskal Herrian utzi duen emaitza? Galdera sorta ederra bezain interesgarria, gure aldetik gaurkoan erantzunik ezingo duena jaso, gehiegi luzatuko ginateke eta. Hurrengo idatzirako utziko dugun ataza izango da hori.



## **Euskal Herriko klase borrokaren historia**

2020-01-23

Aurreko idatzian historiari buruz daukagun [ikuspegi orokorra azaldu bagenuen](#), gaurkoan guzti horrek Euskal Herrian daukan isla zehatzean jarriko dugu arreta. Luzeera hontako testu batean ezingo dugu gure historiaren kontakizun zehatz eta sakona jaso, eta horregatik, momentu eta gertakari historiko esanguratsuenak azpimarratu baino ez ditugu egingo. Oraindik idazteke dagoen Euskal Herriko klase borrokaren historiak erakusten dituen hutsuneak identifikatu eta horiek betetzeko beharrezkoak diren galderak mahaigaineratzen saiatuko gara.

Hasteko, milaka urte atzera egin beharko dugu eta neolitizazioa bezala ezagutzen den prozesu historikotik abiatu. Mundu osoan zehar, modu independentean eta garai beretsuan, giza komunitateak nekazaritza eta abeltzaintza ezagutza ezberdinak garatu, eta sedentarizatuz joan ziren. Egun Euskal Herria bezala ezagutzen den lurretara Ekialde Hurbiletik heldu zen neolitizazioa duela 7.000-8.000 urte, eta lurralde honetan guztian bizimodua eta egitura sozialak goitik behera aldatu zituen. Lehenengo nekazal komunitate horiek ekonomia naturalean oinarritutako ekoizpen modua zuten: hau da, jabetza komunalean oinarrituz, autokontsumora zuzendutako ekoizpen modua. Komunismo primitiboa bezala ere ezagutu izan da bizimodu kolektibo hori. Iraultza neolitikoari esker, giza historian lehen aldiz ekoizpen soberakina modu sistematiko eta erregularrean sortzeko gai izan ziren komunitateok. Horrek komunitateen tamaina handitzea ahalbidetu zezakeen eta espezializazioaren bitartez lanaren banaketa sozialaren hastapenetan sakondu. Baina era berean, klase sozialen eta zapalkuntzaren historian erabateko garrantzia duten baldintza materialen orokortzea ere ekarri zuen; ekoizpen soberakin sistematikoa egoteak, berau sistematikoki apropiatzeko aukera ere zabaldu zuen. Historian lehen aldiz, langile klasea (soberakina sortzen duena) eta klase dominatzailea (soberakina bereganatzen duena) maila sozialean garatzeko baldintza materialak orokortu ziren, dominazio sistema sozialen garaia irekiz. Alegia, neolitizazioarekin batera, Estatuaren aukera historikoa irekitzen da; miloika pertsonen bizitzaren kontrola pertsona bakar baten edo talde txiki baten esku geratzea posible egiten duen dispositibo soziala.

Horrekin guztiarekin, neolitizazioak bizitza soziala bi modu erabat antagonikoetan antolatzeko aukera zabaltzen duela esan dezakegu: komunitateak/herriak alde batetik, Estatu/Inperioa bestetik. Eta antagonikoak dira, Estatuaren botere metaketa bermatzen duena herri/komunitate horien lana eta bizitza delako, eta hortaz, aurrerantzean etengabeko lehian arituko direlako; Estatu/Inperioa komunitateak azpiratu nahian, komunitate/herriak aske izateko erresistentzian. Gure testuinguruan lehenengo Estatu primitiboak Mesopotamian sortu ziren, eta gurera heltzeko oraindik milaka urte batzuk falta baziren ere, herri/komunitateen eta Estatuaren arteko tentsio dialektikoa, klase borroka bezala ulertuta, historiaren motore bilakatuko da hurrengo milaka urteetan.

Dominazioaren logikan berebiziko garrantzia izango zuen beste gertakari historikoa patriarkatuaren sorrera da, garai beretsuan eman zena. Neolitizazioaren bitartez lanaren banaketa sexualean sakondu ahal izan zen, eta emakumeon funtzio erreproduktibo hutsa indartu. Horrek, halere, ez du esan nahi neolitizazioak ezinbestean patriarkatua ekarri zuenik; badaude nekazal komunitateak parekidetasun maila altua erakusten dutenak, eta

Europako lehenengo kultura neolitikoek izaera matrilineala zutela uste da. Garai horretako euskal lurraldeko testuinguru horretan kokatu beharko genituzke; euskal matriarkatua mito hutsa dela onartzen badugu ere, eredu matrilineala existitzen zela aurreikus dezakegu. Hau da, emakumeek jabetza eta ahaidetasun posizio sozial zentrala zuten (matrilinealtasuna), baina ez zuten gizonak menpean hartuz dominazio sistema propioa (matriarkatua). Litekeena da gurera Europa ekialdetik etorritako herri indoeuroparren eskutik heldu izana egitura sozial erabat patriarkalen lehenengo ordezkariak. Horrela, Brontze Aroaren amaierarako (duela 3.000 urte) euskal lurren inguruan izaera patriarkal eta militarista garbia zuten gizataldeak ziren nagusi, eta horrek, ezinbestean, eragin sakona izan zuen aurretik bertan bizi ziren herriengan. Hor ezar dezakegu euskal patriarkatuaren abiapuntua. Edozein dominazio sistema bezala, patriarkatuaren inposaketa prozesu historiko bezala gauzatu zen; patriarkalizazioa ez zen egun batetik bestera eman, mende eta belaunaldi asko behar izan ziren. Hortaz, hemen beste tentsio bat irekitzen da; emakumeon askatasun nahiaren eta egitura patriarkalen arteko tentsioa. Jatorrizko matrilinealtasunaren aztarnek mendeetan zehar iraungo zuten eta emakumeon erresistentzia momentu ezberdinetan azaleratuz joango da. Hau guztia Euskal Herriko historian arakatu eta azaleratzea izan beharko da gure betebeharra.

Baina patriarkatuaren inplikazioak haratago doaz. Behin familia eredu patriarkala nagusitzen dela, biolentzia patriarkalaz zeharkatutako espazioa bilakatzen da familia. Aurrerantzean, belaunaldiz belaunaldi, sozializaziorako lehenengo esparrua den horretan, emakumeak umiliatu, zapaldu eta bereganatzea modu normalizatuan eman daitekeela ikusi eta ikasiko dute haurrek. Nolabait, jabetza pribatuaren lehenengo adierazpena bilakatzen da emakumeon gaineko apropiazio hori. Ondorioz, haur horien mentalitatean bortxa eta zapalkuntza pertsonen arteko harreman modu posibleetako bat bezala txertatzen da. Behin familiaren mugak gaindituta, mentalitate patriarkal horrek dominaziorako baldintza ezin hobeak eskaini zizkion Estatuaren sorrera eta zabalkunde prozesuari. Lehenengo Estatu horiek ar dominantearen islada soziala bezala egikaritu ziren, eta hala ikus daiteke mendeetan zehar, Estatu eta Inperioen barne logika eta antolaketan. Horregatik, mentalitate patriarkala dominazioa maila sozialean gauzatu ahal izateko beharrezkoa den zutabeetako bat bezala ulertzen dugu. Patriarkatua, gainerako dominazio sistemen erreproduzio materialerako mekanismo bilakatzeaz gain (emakumeok umeen sortzaile huts bihurtuz), sistema horien erreproduzio ideologikorako ere ezinbestekoa bihurtzen da.

Euskal Herriari dagokionez, Brontze eta Burdin Aroak aurrera egin ahala, egitura patriarkalen gorakada eta giza taldeen hierarkizazioa gertatzen dira. Lehenengo kasta eta klase buruzagien sorrerarekin batera, jabetza pribatuaren lehenengo zeinuak agertzen dira, jabetza komunalak nagusitasuna mantentzen zuen arren. Era berean, botere metaketa oraindik ahulegia da Estatu bezalako egiturak antolatzeke eta egitura tribalak dira nagusi. Alabaina, Erromatar Inperioaren etorrerarekin, duela 2.000-2.200 urte, joera hauetan aurrerapauso kualitatibo handia gertatu zen eta fase historiko berri bat zabaldu zela esan dezakegu. Lehen aldiz, maila kontinentalean antolatua zegoen dominazio sistema bat heldu zen gurera, lehenengo Estatu. Orduko euskal lurretan ez zen inbasio gerrarik eman, bertako buruzagien kolaborazionismoak akordioen bitartez adostu baitzuen erromatar egituren ezarpena. Bertako oligarkiak indar okupatzaileekin elkarlanean aritzeko gogo eta prestutasuna aurrerantzean joera konstante bezala azaleratuko da euskal lurretan. Horrez gain, erromatarrek lehenengo hiriak sortu zituzten, azpiegitura eta merkatu sistema garatuetan txertatuak. Patriarkatuak eta

militarismoak aurrerapauso nabarmenak ezagutu zituzten, emakumeon zapalkuntza areagotuz eta dominazioaren ideologian sakonduz. Erlijio monoteista kristaua ere heldu zen erromatar Inperioaren eskutik, baita euskal lurraldeen lehenengo zatiketa administratiboak ere. Bestalde, erromanizazioa Euskal Herri mediterraneoan gertatu zen modu sakonenean, erromatarrek *ager* bezala izendatu zuten horretan. Ereku atlantiko eta menditsuan, *saltus* delakoan, presentzia nabarmena eduki bazuten ere (batez ere kostaldean), erromanizazio prozesua ez zen hain modu sakonean gertatu. Ondorioz, eskualde menditsu horietan, nekazal komunitateek zenbait ezaugarri linguistiko eta kultural propio mantenduz (horien artean, seguraski, jatorrizko matrilinealtasunaren aztarnak), nola edo hala, bizirautea lortu zuten. Goitik behera eraldatuak eta higatuak izan ziren, noski, baina ez ziren erabat desagertu.

Erromatar Inperioaren erorketak Erdi Aroko ateak zabaldu zituen eta trantsizio horretan Bagaudek garrantzi handia izan zuten. Krisi sakon eta terminalean aurkitzen zen erromatar inperioan, klase gatazkak matxinada orokortuaren forma hartu zuen; ihes egindako esklabo eta desertoreak, pobretutako nekazariak, zapalduak herriak... Inperio guztitik zehar lurjabe handien aurka eta estatu ordezkarien aurka herri altxamenduak zabaldu ziren. Euskal Bagauda sakonago ikertu beharreko garaia izanda ere, gure historian eman zen lehenengo iraultza saiakera bezala ulertzen dugu. 450-636 urteen artean ezegonkortasun eta gerrak izan ziren nagusi eta ondorio esanguratsu bi suertatu ziren. Alde batetik, hirien ahultzea eta kasu batzuetan desintegrazioa gertatu zen, botere egitura estatalen deszentralizazio orokortua ekarriz, eta ondorioz, nekazal komunitate askeen loraldia eraginez. Bestalde, autodefentsarako beharrak euskal tribuen batasuna bultzatu zuen, etnogenesi prozesua azaleratuz eta euskararen biziraupena bermatuz. Lehen aldiz, Kantauriko txoko honetako lurraldeak Basconia bezala izendatu zituzten, frankoek eta bisigodoek eraikitako fortifikazio defentsiboez mugatuak.

Pixkanaka-pixkanaka, nekazal komunitateen gainetik botere feudal berria egituratuz joan zen. Kristautasunak, ordurako Euskal Herriko txoko guztiak hartuak zituenak, prozesu horretan berebiziko garrantzia izan zuen. Patriarkatuaren inplantazio definitiboak ere eman zen kristautasunari esker. Horrela, klase dominante berriek boterearen zentralizazioa jo zuten beste behin, eta monarkia feudalaren baitan antolatzen hasi ziren. Testuinguru honetan kokatu behar dugu nafar erreinuaren sorrera. Askok Eneko Aritza eta nafar erreinua goraiatzeko dute behin eta berriro, eta horrek badauka bere garrantzi historikoa Euskal Herriarentzat, baina beste edozein erreinu bezala, hau ere zapalkuntza ezberdinen gainean eraikia izan zen. Zentzu horretan, ikertu beharrekoak ditugu 1357an Faltzesen nekazariak burututako matxinada, Mixa eta Ostibarrekoa 1369an, Milutzekoa 1405ean edota Iruñean, 1386ko abenduan, 22 egunehar luzatu zen altxamendua. Gehiegizko zergen eta elite ekonomikoen kontra burutzen ziren altxamenduak eta nafar agintariak bortizki erreprimitu zituzten. Idealismotik haratago aztertzen badugu, “gure” erreinua, garaiko monarkia feudal bat izan zitekeena baino ez zen; hierarkizatutako jendarte estamentalak, boterea ahalik eta modu zentralizatuenean kudeatzen saiatzen zena. Are gehiago, botere monarkiko hori, errealki herriaren subiranotasuna gordetzen zuten egitura demokratikoak, batzarrea eta komunitatea bera (jatorrizko komunismo primitiboaren ondorengotza zirenak), usurpatzeko lehia bizian aritzen zen. Argi dago gaztelar erreinuaren konkistarekin guzti honek txarrera egin zuela, nafar erreinuan egitura feudalen errotzea ahulagoa baitzen. Baina botere monarkiko ezberdinen arteko lehiak ezin du ukatu nafar erreinuaren baitan oinarritzko klase tentsio bat ere bazegoela; nekazal komunitate askeen eta egitura feudalen artekoa.

Erdi Aroak aurrera egin ahala beste tentsio bat ere metatuz joan zen, burgesia eta botere feudalaren artekoa. Izan ere, XIII. mendetik aurrera ematen diren zenbait gertakariei esker, egun Euskal Herriak hartzen duen forma sozial eta ekonomikoa eratuz doa. Alde batetik, gaztelar erreinuak musulmanen aurka hegoalderantz egiten duen espantsioarekin batera, artile ekoizpenak gora egiten du eta Europara bideratutako esportazioak itsas irteera bat behar du. Euskal kostaldean kokatuko da nagusiki irteera hori. Bestalde, burdingintzarako teknologia hidraulikoaren garapenarekin, kantauri isurialdeko bailarek posizio pribilegiatua hartuko dute burdinaren ekoizpenean; erreka eta ibai emaritsuak nonahi, ikatza egiteko baso ugariak eta kalitate handiko burdin mehak. Bailara horietan zehar burdinolak ugarituz joango dira, metalgintza protoindustria garatuz. Horrez gain, itsas merkataritzaren hazkundearekin, sagardogintzak eta ontzigintzak gora egiten dute; Bizkaia eta Gipuzkoan zehar hiribildu ugari ere garai honetatik aurrera sortzen dira. Honen guztiaren ondorioz, jarduera ekonomikoa, eta beraz, botere metaketa, isurialde atlantikora trasladatuz joan zen. Eta noski, hiri hasiberri horien baitan protoburgesiak gero eta influentzia handiagoa lortuko du. Gogoratu behar dugu ordurako gaztelar erreinuaren kontrolpean zeudela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, eta gaztelar erregeak sortu zituela hiribildu gehienak. Horrek, aurrerantzean garrantzi handia izango duten bi ondorio eragin zituen: alde batetik, Baskongadak eta Nafarroaren arteko eszisioa sakondu eta finkatuz joan zen. Bestetik, hiribilduen bitartez Gaztelako erregeak lehenengo burges horiei eskubide eta pribilegio ugari eskaintzen zizkien, bertako nobleziak kontrolatzen zituen eremuetatik at geratzen baitziren hiribilduak. Honekin, ondorengo mendeetan berebiziko garrantzia izango duen aliantza baten oinarriak ezartzen dira; euskal oligarkia (bereziki baskongadoa) eta Madrilen arteko aliantza. Aurrerantzean, euskal oligarkia hori (gero eta burgesagoa) berebizikoa izango da bai erreforma liberalak bultzeko orduan, zein Espainiar Estatu-Merkatuarekiko integrazioan eta asimilazioan interlokutore gisa. Oro har, espainiar eraketa eta hedapen inperialistan izango zuen parte hartzea azpimarratzekoa izango da.

XVI. mende hasieran, gaztelar inbasioaren azken fasearekin, nafar erreinuaren erabateko desintegrazio eta asimilazioa hasten da. Euskal Herriko ipar eta hegoaldearen arteko banaketa administrazioa betikotzen du honek; nafar erreinuak Pirinioen iparraldean mende batez gehiago iraungo badu ere, XVII. mende hasieran erreinuaren azken zatia behin betiko desintegratzen da Frantziaren baitan. Egungo Frantziar eta Espainiar estatuen mugak inposatzen zaizkigu eta bi potentzia horien izaera inperialista modernoa konfiguraturaz hasten da. Hego Euskal Herriari dagokionez, Amerikako konkistak eta Espainiar inperioaren hedapenak, Erdi Aro amaieran abiarazitako tendentzia merkantilista izugarri indartu zuen. Testuinguru horretan, Espainiak merkatu kohesio, homogeneizazio kultural eta zentralizazio politikorantz jo behar du. Garai honetan ere, martxan jartzen da inkisizioa ere, nekazal komunitate askeen kontrako errepresio fase berria. Bereziki emakumeon aurkako sorgin ehiza bezala burutu zen, mendeetako inposaketa patriarkalaren ostean oraindik bizirauten zuten askatasun eta autonomia aztarnak ezabatzeke helburuarekin. Emakumeon gorputza eta lanaren gaineko apropiazioan salto kualitatibo bat suposatu zuen inkisizioak eta hurrengo mendeetan orokortuko zen akumulazio kapitalistarako oinarritzko baldintzak ezarri zituen. Bestalde, nekazal komunitateetan garai berriak beste zentzu baten ere eragina izan zuen: batez ere kantauri isurialdean, burdingintza eta sagardogintzaren bitartez pixkanaka-pixkanaka merkantilizatuz joan ziren komunitateok. Irabazitako gaitasun ekonomikoak harrizko etxeak eraikitzea ahalbidetu zieten, eta horrekin, Euskal Herriko paisaia baserriak agertu ziren lehen aldiz. Paradoxikoa dirudien arren, egun erabat idealizatuta ditugun harrizko baserri horiek jendarte nekazariaren desintegrazio fasea

abiarazten dute. Oraindik mende batzuetan zehar ekonomia naturalean oinarrituta iraungo dute komunitateok, autosufizientziatzko ekoizpenean zentratuta eta jabetza komunala ardatz izanda, baina egitura horiek higatzeko tendentzia dagoeneko geldiezia izango da.

XVIII. mende hasierarako Espainiar inperioa gainbeheran sartzen da eta horrek krisi sakona eragiten du Hego Euskal Herrian eraiki den ehun ekonomikoan, orduko klase kontraesanak areagotuz. Horrez gain, burgesia botere ekonomiko eta politiko handiagoa eskuratuz joan da eta kapital metaketa erraztuko duten erreforma liberalen alde bultzatuko du etengabe. Horrek nekazal eremuetako botere feudalaren kontra egiten du, baina baita egitura feudal horien baitan biziraun ahal izan duten nekazal komunitateen kontra, baserritar jendartearen kontra ere. Honi guztiari, euskal lurraldeen berezitasun forala kolokan jartzen duen Espainiar Erreinuaren homogeneizazio eta zentralizazio prozesuaren azkartzea gehitu behar diogu. Konbinazio honek Matxinaden garaia zabaltzen du, langile klase aurreindustrialak piztutako herri altxamenduen garaia. Batez ere baserritarrez osatuta zeuden matxinoak, baina olagizonek ere zeresan handia izan zuten (matxinada izena San Martinetik dator, olagizonen santua). Orduko kronika batzuetan emakumeon papera azpimarratzen da parte hartzaile eta antolatzaileen artean eta hortaz, ikertu beharko genuke zenbateraino nekazal komunitate horiek emakumeen eskubide eta askatasunentzako gordeleku izan ziren. Normalean nekazal eremuetatik hirietara abiatzen ziren matxinoak eta komertziantek, burges eta elite politiko-ekonomikoaren kontra egiten zuten. Matxinada garrantzitsuenak 1718koa eta 1766koa izan ziren, foruen aurka aduanak mugitzeagatik (Bizkaian batez ere) eta zerealen espekulazioagatik (Gipuzkoan), hurrenez hurren. Aipatzekoak dira baita ere, 1631koa Bizkaian foruen kontra inposatutako gatzaren gaineko zergagatik; 1739koa Azpeitian ogiaren prezioagatik; edota 1804an Bizkaian Zamakolada bezala ezagutu zena, derrizgorrezko soldaduzkaren kontrakoa. Iparraldean ere garai honetan antzerako tentsioak bizi ziren eta 1661. urtean Matalas apaizak gidatutako matxinada goraiatzekoa da. Frantziako erregeak Zuberoako forua indargabetu eta herri-lurra noblezia kolaborazionistari eman ondoren, milaka nekazariz osatutako ejerzito iraultzailea antolatu zuen Matalasek. Lurra espropiatu eta nekazarien artean banatu, Zuberoako askatasuna aldarrikatu, burges eta nobleen etxeak erre eta Mauleko gaztelua setiatu zuten. Bordeletik ejerzitoa eta mertzenarioak etorri behar izan ziren matxinoak zapaltzeko.

XIX. mendean burgesia, baserritar jendarteak, jaun feudalak eta Espainiar interes zentralisten arteko tentsioak goia jo zuen eta matxinaden kulminazioa bezala ulertu dezakegun Gerra Zibila piztu zen; Karlistadak (1833-1876). Euskal burgesia eta Espainiar liberalak gailendu ziren eta porrotak aldaketa larriak izan zituen; egitura politiko aurremodernoa desartikulatzen da, foruak barne, eta Estatu burges espainola behin betiko inposatzen zaigu. Baskongadak eta Nafarroaren arteko haustura ere betikotzen da. Mitologia autonomistan, 1878an sinatu zen Kontzertu Ekonomikoa, “euskal berezitasunaren” onarpena bezala saldu izan da. Aitzitik, euskal oligarkiak, dagoeneko erabat burgesa, interes propiorako bultzatu zuen akordio zikina baino ez zen izan hura. Irekitzear zegoen kapitalismoaren fase industrialean ahalik eta posizio errentagarriena lortzeko helburuarekin sinatu zuten. Gainera, okupazio ejerzito atzeritar baten mehatxuarekin, Espainiarekiko asimilazio eta integrazio prozesua erraztu bakarrik egin zezakeen horrelako akordio batek. Ondorengo hamarkadetan, kapitalismoak gure lurretan hartuko duen izaera militarizatua agerian geratzeko ere balio izan zuen.

Horrez gain, garai horretan ematen diren desamortizazioen bitartez, jabetza pribatuak bereganatu zitzakeen azken eremuak irensten ditu, basoak eta mendiak. Nekazal komunitateei lanaren apropiazioa gero eta gehiago merkatu mekanismoen bitartez inposatzen zaie; zergen eta errenten ordainketa, esaterako, monetarizatzen dira, eta ondorioz, diruaren beharra handitu egiten da herri xehearen artean. Merkantilizazioak eta proletarizazioak gora egingo du baserritar jendartearen; lan indarra merkantzia hutsa bilakatzeko azken pausoak ematen dabil. Horrekin, dominazio kapitalistarako oinarriak ezarriak dira.

Bestalde, karlistadetako porrot horrek euskal hizkuntzan eta baserritar bizimoduan kolpe handia suposatu zuen; ondotik eman zen erreakzioak euskal abertzaletasunaren pizkundea ekarri zuen. Modernitate kapitalistak zekarren korrupzio material eta batez ere espiritualaren aurrean nekazal komunitateek irudikatzen zuten bizitza askea goraiatzeko hasi zen. Arrazazko eta odolezko arrazoi esentzialistak eman izan baziren ere, erromantikoki irudikatzen zen bizitza aske hori komunismo primitiboaren aztarna baino ez zen, nekazal komunitate askeen erresistentzia historikoaren emaitza zena. Egia esan, XIX. menderako, behinola aske izandako bizitzaren hondarrak baino ez zituzten ikusten, historikoki jasandako zapalkuntza ezberdinek komunitate horiek zeharkatzen baitzituzten. Horrekin lotuta, euskal abertzaletasunak foruen abolizioan topatu zuen beste inspirazio iturri nagusietako bat. Hemen ere, eta ordurako desitxuratuak bazeuden ere, nekazal komunitateen askatasun eta eskubideak barnebiltzen zituzten lege zaharrei buruz ari gara, mendeetan zehar borrokatuak izan zirenak botere metaketa zentralizatzailearen kontra. Erresistentzia horretan ez ginen bakarrak izan eta Estatu Espainiarraren eraketa prozesuan ugariak izan ziren foruen abolizioak edota nekazal komunitateen aurka hartutako neurri zentralizatzaileek eragindako matxinadak (Gaztelan, Aragoian, Herrialde Katalanetan...). Matxinada horietako bakoitzean aberriaren taupadak soma zitezkeen; zapaldutako askatasun nahia, nekazal komunitateek oinarritzko egitura demokratikoen eta bizitza komunalaren alde piztutako erresistentzia bizia. Asko Estatuak arinegi hartu zituen mendeetan, asimilazioa muturreraino eramanez, bai materialki zein ideologikoki. Euskaldunon kasuan, ezberdindu gintuena erresistentzia hori luzaragoan mantentzeko gaitasuna izan zen; alegia, klase borroka historikoan indar korrelazio hobe bat mantentzeko gaitasuna. XIX. mende amaiera arte iraun zuen, modernitateak ekarritako korrante ideologiko berriekin bat egin arte.

Horrekin lotuta, euskal abertzaletasunak baserritar jendarte euskaldunean arreta jarri zuen, baina komunismo primitiboaren hondarrak Euskal Herriko beste eremu batzuetan oraindik ere nabarmenak ziren. Batez ere mendialdeetan kokatuak zeuden artean gertatzen zen hori, historikoki botere gune zentralizatuetatik urrun biziraun baitzuten. Beste behin, idealismotik haratago bagoaz ohartuko gara Estatu espainiarrean zein Europako beste hainbat lekutan ere komunismo primitiboaren hondarrak ugariak zirela nekazal jendartearen. Leku askotan, nazio inperialisten testuinguruan eta sortzearen zegoen mugimendu ezkertiarren itsukeria desarrollista eta modernizatzailea zela eta, modernitatearekiko ezinegon eta erreakzioa faxismoaren aldera jausi zen. Gurean, zapaldutako herri askorekin gertatu bezala, XX. mendeak aurrera egin ahala norabide iraultzaileagoa hartzeko joera izango zuen.

XIX. mende amaierarako, kapitalismoaren fase industrial abiatzeko oinarri guztiak prest egonik ere, Euskal Herria oraindik nekazal herria zen. Langile klasearen gehiengoa, desintegrazio fase aurreratuan bada ere, baserritar komunitateek osatzen

zuten. Hala ere, industrializazioa martxan da, Bilboko itsasadarretik hasita, eta horrek klase sozial berri baten agerpena eragingo du, proletalgo industrialia. Baserri inguru euskaldun zein erdaldunetik jaurtiak, desjabetutako milaka eta milaka langile hiri eta fabriketan elkartzen dira kapitalismoaren eskutik. Klase tentsio berriak eragiten ditu horrek eta hortaz klase kontzientzia garatzeko ere baldintza berriak. Emakumeon egoerari dagokionez, lan indarraren erreprodukzioa bermatzeko eredu patriarkala bereganatzen du kapitalismoak bere fase industrialean. Horrela, baserriar komunitateetan oraindik diluituta egon zitekeen erreprodukzio-produkzioaren arteko banaketa, orain, gizonak jasotzen duen soldataren bitartez erabat eszinditzen da, emakumeen egoera ere baldintza kaxkarragoetara eramanez. Familia nukleoetan diru iturri nagusia gizonak jasotzen dute, eremu pribatu eta publikoaren banaketa eta esanahitze sozialean sakonduz. Dominazio patriarkala areagotzen du horrek. Honekin guztiarekin, 1890. urteko maiatzean proletalgoak zuzendutako lehenengo greba orokorra aurrera eramaten dute Bizkaiko mehatzariak. Oraindik hamarkada batzuk falta dira langile klase industrialia euskal gizartearen gehiengo bilakatzeko, baina maila sozialean eta kontzienteki norabide iraultzaile baten antolatuta daitekeen klase sozial berria martxan da. Sozialismoaren hastapenetan gaude, aurrerantzean abertzaletasunak norabide iraultzailea hartu zezan guztiz ezinbestekoa. Iparraldeari dagokionez, egoera oso bestelakoa da; industrializaziorik gabe barne garapenik ez da ematen. Nekazal komunitate aurrekapitalistak deseginez doaz, baina ez da sortzen testuinguru erabat kapitalistan klase kontzientzia garatzeko baldintzarik. Gazteak Ameriketara zein Parisera emigratuz doaz, edo masiboki gerran erabiliak dira (I. Mundu Gerra), eta horrek haustura sakona eragiten du. Gainera, 1789ko Iraultza Burgesaz geroztiz eraiki den Estatu Frantsez zentral eta jakobinoak zilegitasun maila handia lortu du. Testuinguru horretan, gazteriarik gabe pentsamendu atzerakoia nagusitzeko aukerak areagotzen dira eta eraldaketa sozialierako baldintzak kaskartu.

XX. mendeak antzerako dinamikekin jarraitu zuen; industrializazioak aurrera eginez eta nekazal komunitateak gero eta krisi sakonagoan. 36ko altxamendu faxistak eta ondorengo gerrak euskal abertzaletasunean eragindako kolpe latzaz gain, tendentzia horietan eten bat suposatu zuen. Gerraosteak garapen kapitalistan eta merkatu dinamiketan eragindako atzerapausoak, nekazal komunitateen azken agerraldi historikoa ahalbidetzen du. Ez zuen luzaroan iraungo; 60. hamarkada amaierarako, orokortzen hasia zen garapen kapitalista-industrialaren azpian erabat birrinduta geratuko ziren. Eta horrekin, Euskal Herrian gaur arte errealki existitu den komunismo forma bakarra agortutzat eman dezakegu. Ordurako goitik behera higitua bazegoen ere (patriarkatua, fundamentalismo kristaua, dominazio feudalaren orbanak, kapitalismoaren lehenengo faseen urratuak), oraindik bizitza askearen zenbait ezaugarri mantentzen zituen; komunitatea, ekonomia naturala, auzolana, elkarrekin harremantzeko logika kolektiboak, eskualde batzuetan herri-lur komunalak eta oinarritzko egitura demokratiko-komunalak (kontzejoak, batzarrea)... Desitxuratua bada ere, iraultza neolitikotik zetorren jarraikortasun haria betirako eten zen. Horrekin, hiria (Estatua) eta nekazal gunearen (komunitatea) arteko dikotomia historikoa behin betiko hautsi egiten da eta metropoliak (Estatu-Kapitala) biak azpiratzen ditu bere baitan. Patriarkatua oinarri nagusi bilakatuta, kapitalaren logikak Euskal Herria bere osotasunean hartzen du.

Euskal Herriko historian momentu erabat erabakiorra izan zen hura. Baserriar jendartearen behin betiko desintegrazioa orduko gazte belaunaldientzako erabat traumatikoa izan zen. Trauma horrek, Frankoren diktadurapean sortutako baldintzetan,

proletalgo industrial berriak azaleratu zituen potentzialitate iraultzaileekin bat egin zuen. Nazio kontzientziak alde batetik, eta langile kontzientziak bestetik, Espainia bezalako estatu zapaltzaile baten, konbinazio leherkorra sortu zuten: Euskadi Ta Askatasuna. Fase historiko berri baten atarian ginen.



## **Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua: etorkizunerako irakaspenak**

2020-07-06

Aurreko testua [Euskal Herriko klase borrokaren historiari](#) eskaini genion eta analisisia gaur egungo egoerara ekarri gaituen azken ziklo politikoaren irekieran utzi genuen. XX. mendearen erdialdetik aurrera, eta bereziki, ETArekin (1958), abertzaletasunaren baitan ikuspegi aurrerakoi eta ezkertiarra gero eta leku handiagoa hartuz joan ziren. Bazeuden tendentzia horren aurrekariak, besteak beste 36ko altxamendu frankista baino lehenago sortutako EAE-ANV, baina historikoki atzerakoia zen abertzaletasunean sozialismoa ez zen errotu 1960. hamarkadara arte. Garapen industrialak Euskal Herriko eremu askotara hedatua zegoen harrezkero eta langile borroka pil-pilean, errepresio frankistaren mehatxupean. Bestalde, Francoren erregimena, euskal kultura eta abertzaletasunaren kontra ere bortizki oldartua zena Gerraren amaieratik, krisi ekonomiko eta politiko sakon baten murgilduz zihoan. Testuinguru horretan, langile kontzientziak nazio askapenarekin bat egiteko joera azkartu zen, belaunaldi gazteek bultzatuta. ETA bezalako antolakunde iraultzaile baten baitan, konbinazio horrek bere baitan gordetzen zuen potentzial askatzaile guztia piztu zuen. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren (ENAM) oinarriak ezarriak zeuden; hurrengo hamarkadetan herri honen independentzia eta sozialismoaren alde, borroka iraultzailea gorpuztuko zuen mugimendua martxan zen.

Puntu honetara helduta, ENAMen genesi eta garapen osoa azter genezake, 50 urtez luzatu zen ziklo politikoan elementu ugari baitaude analisirako eta hausnarketarako. Hala ere, egungo ikuspuntutik, eta aurrera jo nahi duen begirada iraultzaile batekin, gaurkoan azterketa momentu zehatz baten kokatu nahiko genuke. Alegia, ENAM estrategikoki agortu zeneko momentua eta bere burua berrasmatzeko gaitasunik gabe, desintegrazioarako bidea hartu zueneko. Gure lehenengo testuan adierazi bezala, argi ikusten dugu ENAMen porrotaren ondotik (mende aldatzarekin) sektore sozialdemokratikoa kontrol politikoa hartu eta egitura guztiak erreformaren koordinadetan kokatu zituela. Hala ere, hori bezain argia da, erreformismoak abagunea behar bezala probesten baino ez zuela jakin izan; porrot historikoaren gakoak sozialismo abertzale iraultzailearen huts egitean kokatu beharko genuke. Hein handi batean, proiektu iraultzaileak bere helburuak betetzeko gaitasun ezak eragin zuen ENAMen desagitea. Hor kokatu nahi dugu gaurko analisisia; ziklo iraultzaile berri baten irekieran begirada jarrita daukagunontzat, funtsezko lana baita aurreko zikloaren agorpena eta porrota eragin zuten gakoak ulertzea eta horietatik irakaspenak ateratzea. Zeintzuk dira, beraz, sozialismo abertzale iraultzailearen huts egiteak? Zeintzuk kolapso estrategikoaren arrazoiak?

Lehenengo eta behin, badaude zenbait kanpo faktore ez dagozkionak ENAMi berari eta ezbairik gabe Euskal Herriko testuinguru sozioekonomiko eta politikoa baldintzatu dutenak. Horien artean azpimarratzekoa da azken 60 urteetan euskal jendartean emandako eraldaketa sozioekonomikoaren sakontasuna. 1973ko mundu mailako krisiak gurean desindustrializazioa eta erreforma neoliberalaren abiapuntua ezarri zuen. 90. hamarkadarako, ziklo ekonomiko berriak euskal jendartearen klase konposizioa goitik behera eraldatua zuen. Ondorengo testuetan aztertuko dugun bezala, lana eta kapitalaren arteko kontraesanak bertan zirauen (eta oraindik badirau), baina langile klasearen

baldintza material eta subjektiboak erabat antzaldatuak ziren. Ondorioz, ENAMen hastapenetan borroka iraultzailearen abangoardia hartu zuen proletargo industrialia gero eta proportzio txikiagoan agertzen zen euskal jendartean.

Era berean, Espainian erregimen aldaketa finkatuz zihoan; diktadura militarretik demokrazia liberalera, erregimen espainola bozka bidez zilegiztatu zen inolako hausturarik gabe. Europar Batasunean sartzearekin batera, barne kohesioa eta zilegiztatzea areagotu zen. Gurean, autonomismoa gero eta errotze maila altuagoa lortuz joan zen. Estatu espainolaren baitan ez zen posible estatu independente bat, baina bai estatu egiturak garatzen joatea. Euskal burgesiak EAJren eskutik ekin zion eraikuntza horri; beste behin, Madrilgo botere zentralarekin aliantzan, eraikuntza horren helburu nagusia Euskal Herriaren asimilazioa izan zen espainiar marko autonomistan. Horrela, urteak aurrera egin ahala, estatu egitura eta marko administratibo inposatu horiekiko atxikimendua areagotuz joan zen euskaldun askorentzako; bageneukan “gure gobernu” (Eusko Jaurlaritza), “gure polizia” (Ertzaintza) edota “gure komunikabideak” (EITB). Honek guztiak saihestu ezin dugun transformazio politiko-kulturala abiatu zuen euskal jendartean, mugimendu iraultzailearentzako ondorio larriak izango zituen. Behinola hedatua egon zen langile kontzientziaren gainean, kontzientzia hiritar metropolitarra gailenduz joan zen; pentsamendu eta ideologia burgesa gero eta hedatuagoak ziren gure herri, auzo eta hirietan. Ongizatearen Estatuak ere zeresan handia izan zuen langile klasearen subjektibitatea baldintzatzeko orduan. Horrela, erresistentziaren kultura batetik, bizikidetza faltsuaren kultura batera igaro zen euskal jendartea; ebatzi gabeko gatazka sozial eta nazionalaren gibelean eraiki nahi izan den bizikidetza faltsua, hain zuzen ere.

Errepresioa izan da ENAM baldintzatu duen beste kanpo faktore bat. “Trantsizioak” trantsizio, Estatu espainolaren jardun errepresiboa bere horretan mantendu zen. Hala ere, urteak aurrera egin ahala, jazarpen polizialak zehatzagoa, kirurjikoagoa, izaten ikasi zuen; euskal jendartea bere osotasunean eta zuzenean kolpatu gabe, ENAMeko elementu eta egiturak astintzean zentratu zen: operazio polizialak noiznahi, koadroen atxiloketak, antolakundeen kolpatzeak, tortura basatiak, kale mobilizazioen baldintzatzeta... Baskongadetan Ertzaintza eta EAJ premiazko kolaboratzaileak bilakatu ziren egiteko horretan; Ipar Euskal Herrian, berriz, estatu frantsesarekin gero eta koordinazio polizial estuagoa zegoen. Honi guztiari Europa mailan martxan jarri zen euroagindu sistema eta Dorre Bikien atentatuaz geroztik “terrorismoaren globalaren” aurka abiatutako borroka gehitzen badiogu, gero eta zailagoa bilakatu zen jardun iraultzailea baldintza egokietan aurrera eramatea.

Azkenik, eszenatoki internazionallean gertatutako aldaketak aipatu behar ditugu. SESBren erorketarekin neoliberalismoak mundu mailako dimentsioa hartu zuen, globalizazioari atea irekiz. Klase borroka historikoki agortuta zegoela zirudien eta mugimendu sozialista eta iraultzaile gehienak ideologikoki noraezean geratu ziren. Bitartean, akademia unibertsitarioetan, pentsamendu postmodernoa oinarri hartuz, proposamen ideologiko berriak garatuz zihoazen paisaia “ezkertiar” edo progresistaren baitan. Onartu behar dugu zenbait aportazio interesgarri egin zirela korrante horretatik: besteak beste, genero ikuspegia aberastu eta erdigunera ekarri, edota botere harremanen ulerkerari buruzko ekarpenak. Hala ere, mugimendu iraultzaileen testuinguruan, oro har, txikizio ideologikoa eragin zuen postmodernitateak. Alegia, ideologia burges eta liberalak ondo baino hobeto erabili zituen iturri postmodernoak ikuspegi iraultzailea partzializatzeke eta disgregatzeko.

Honen guztiaren aurrean, XXI. mende hasierarako, ez bairik gabe, estrategia iraultzailea birpentsatu eta berreraikitze beharra zegoen. Argi dago ez zela horrelakorik gertatu; beste mugimendu iraultzaile askotan bezala, gurean ere (agian zertxobait beranduago), erreformismorako bidea hartu zen, sozialdemokraziak eta instituzionalismoak gidatuta. Egia da testuingurua errotik aldatuta zegoela eta erreformismoak bere kartak ondo jokatu zituela. Baina baldintza berrien aurrean erantzun iraultzaile bat emateko ezgaitasuna iraultzaileon ardura baino ez da. Gure ustez, ordurako ENAMen barruan urteetan zehar metatuz joan ziren akats eta gabeziek, ezinezkoa egin zuten zegokion momentuan egoerari buelta ematea. Iraultzaileon betebeharra zen gabezi horiek antzematea eta zuzentzea, baina arrazoi ezberdinengatik ez zen horrela gertatu. Horregatik, ondoren zerrendatzen ditugun akats eta gabeziak, eraso baino, autokritika bezala plazaratzen ditugu. Edozein mugimendu iraultzailetan beti azaleratuko diren tendentziak dira, eta beraz, etorkizunera begira, kontuan hartu beharko ditugu iraganeko hanka-sartze berdinak ez egiteko:

- Formakuntza. Formakuntzari ez zitaion behar besteko garrantzirik eman eta gero eta gehiago funtzio sekundarioa betez joan zen. Intelektualismotik haratago ulertu behar da formakuntzaren garrantzi zentrala; errelitatea era kritikoa ulertzeko eta bertan norabide iraultzailean eragiteko ezinbestekoa da koadro berrien oinarritzko formakuntza, zein dagoeneko mugimenduan daudenen sakontze formakuntza. Oinarritzko formakuntzan orokortzen hasi ziren gabeziek akritikotasuna, egiturekiko konfiantza itsua eta korporatibismoa elikatu zituen. Ondorioz, mugimendua gako iraultzailetan berrasmatzerako orduan edota erreformismoari aurre egiterako momentuan, ezintasuna eta pasibotasuna nagusitu ziren.
- Etika iraultzailea. Iraultzaileak ez du bakarrik pentsatu eta esan behar; egin ere, egin behar du. Eta gehiegitan, egite horrek ez du bat egin izan pentsatutako balio iraultzaileekin. Argi dago, testuinguruaren arabera, militante iraultzaileak kontraesanarekin bizitzen ikasi behar duela, baina era berean, borrokatzen duen jendarte berriaren islada garbiena izan behar da. Etorkizuneko momentu hori, jabetza pribaturik eta dominaziorik gabeko bizitza askea, bere baitan eta mugimenduaren baitan materializatzeko etengabeko ahaleginean aritu behar da koadro iraultzailea. Konpromiso eta etika militantearen aferak garrantzia izan du ENAMen barruan, baina arrazoi ezberdinengatik ez zaio dagokion zentralitatea eskaini. Horren adibide izan dira militanteen artean erreproduzitu diren jarrera oldarkor, patriarkal, indibidualista, kontsumistak... Zentzu askotan, mugimendua bera jendarte patriarkal eta kapitalistaren islada hutsa baino ez zen.
- Klase ikuspegia. Urteak aurrera egin ahala, klase ikuspegiaren garrantzia alboratuz joan zen eta aztergai sektoriala izatera pasatu zen. Pentsamendu burges eta liberalarekiko txerto eraginkorra da klase ikuspegia analisisien erdigunean mantentzea; baita norabide iraultzailea beti zapalduen mesedetara mantenduko denaren bermea ere. Dominazioaren erroak ulertu eta gainditzeko gakoa. Horrez gain, hamarkadetako borroka prozesuaren irakaspenetatik eta euskal historia eta kultura abiapuntutzat hartuta, ez zen euskal iraultza sozialistarako teoria orokor eta bateratu bat bultzatu. Euskal Herrian eman beharreko klase borrokaren diseinu estrategikoa ere ez zen gauzatu. Batasun estrategiko eta organizatiboa hautsiz joan zen eta hau guztia, gabezia estruktural bezala metatuz joan zen mugimenduaren baitan.

- Antolakunde sozialista-iraultzaileen ahuldadea. Aurrekoarekin lotua, ENAMen baitan ezkerreko sentsibilitate ezberdinak elkarbizi izan dira, hasi tendentzia libertarioetatik eta sozialdemokratetara, komunismo edota sozialismo abertzaletik pasatuta. Bai errepresioaren eraginez, eta baita aldaketa sozial eta ekonomiko sakonagoen ondorioz, ezker abertzalearen baitan posizio, teoria eta antolakuntza sozialista-iraultzailea pisua galtzen joan zen, erreformismoaren magalean kokatutako paradigma, militante zein antolakundeak indartzen joatearekin batera.
- Burokratizazioa. Zuzendaritza politikoa, liberatuaren figurarekin batera, burokratizatuz joan zen. Berez, liberatuaren figura ezinbestekoa da edozein prozesu iraultzaileetan; gurean ere horrela izan da, eta urteetan zehar konpromiso maila altuena eta bizi baldintza gogorrenak liberatuen gain jausi dira. Hala ere, urteekin (eta batez ere estrategia aldaketatik aurrera) izaera hori higatuz joan zen; betebeharrak iraultzaile gorenak suposatzen, soldatapeko kargu politiko soil bat izatera pasatu da. Era berean, transparentzia faltak korporatibismoa bultzatu zuen, informazio faltak eztabaida oztopatzen baitzuen. Nazional mailako dinamikek maila lokalekiko lehentasuna hartu zuten eta ENAMen zenbait eremutan bereizgarri izan zen malgutasun organizatiboa murriztuz joan zen. Dirigismo eta personalismoentzako baldintzak orokortuz zihoazen, erabakiak gero eta gehiago oinarri sozialaren gainetik hartzeko baldintzak, alegia.
- Euskal burgesiarekin aliantza nazionala. Txiberta, Lizarra-Garazi, azken urteetako indar soberanisten batasuna... ENAMen barruan eman izan den tentsio nagusietako bat izan da hori: euskal burgesiarekin bat egin Euskal Estatu burgesa eraikitzeko, eta gero gerokoak; edo klase independentzian oinarrituta, independentzia eta sozialismoa borroka eraiki. Azken hamarkadako gertakariak lehenengoa gailendu dela adierazten digute. Hemen asko esateko badago ere, ondorengo hausnarketa azpimarratu nahiko genuke. EAJk bete behar zuen papera eta erakutsi duen gaitasun politikoa ez zen behar bezala kalibratu. Autonomismoan eroso egon da beti eta ez du inoiz interes errealek izan Euskal Herri Estatu burgesik sortzeko. Estatu espainolak babesten zituen bere klase interesak eta ematen du horrela izaten jarraituko duela. Horrela, koiuntura bakoitza ahal bezain ondo probesten jakin izan du eta inoiz baino indartsuago dago orain.
- Instituzionalismoa. Parlamentarismo liberalak beti sortzen du ustelkeria eta aburgesamendua. Zapalkuntza ardatzetan beharrezkoa den tentsionamendua ez badao gatazka eta konfrontazioaz lagunduta, parlamentarismo horrek bere logikan xurgatuko zaitu. Instituzioetan parte hartzeak, instituzioa bera gaitzertuko duen herri eta langile boterea elikatzen norabidetuta ez badao, bertan fagotizatuko zaitu. Urteekin, esparru instituzionala ENAMen lehentasuna bilakatu joan zen eta bestalde, langile eta herri sektoreetan, pedagogiaz eta pazientziaz egin beharreko erradikalizazioa, garrantzia galduz joan zen. Oro har, esan dezakegu, ENAMen historian zehar, borroka instituzionalaren, borroka armatuaren eta herri mugimenduaren arteko desoreka konstante bat izan dela.
- Hiri eremuak. ENAMen erronketako bat euskal jendartean agertzen ziren muga identitarioak gaitzertzea izan da, eta hiri eremu handietan errotzea. Eta kale

egin zuen horretan. Eremu metropolitarreran (Bizkaiko Ezkerraldean, esaterako) batzen da gaur egun euskal herri langilearen gehiengoa eta eremu horietan errotzeko zailtasunak agerikoak izan dira historikoki. Egoera kaxkarrenean dauden populazio geruzak bizi dira eremuotan eta klase batasuna lortze aldera ezinbestekoa da bertako langileak askapen prozesura batzea. Langile ikuspegia estrategiaren erdigunetik aldentzea izan daiteke ezintasun honen arrazoietako bat, ENAMen lehenengo hamarkadetan migranteak askoz ere errezago batzen baitziren askapen borrokara.

Akats, zailtasun eta gabezia hauek guztiak metatuz joan ziren urteak pasa ahala. Baliteke batzuk identifikatu ez izana; beste batzuetan, garaiko militantzia prozesuaren abiadurak edo presio polizialak benetan zailduko zuten gabezia horiei aurre egitea. Gainera, estrategia aldaketa 2008-2013 bitartean gauzatu bazen ere, prozesu luzeago eta konplexuago bezala joan zen gauzatzen. Prozesu hori behar bezala ulertzeko ikerketa sakonago bat behar bada ere, gure ustetan, 90. hamarkadan kokatzen ditugu korapiloaren gakoak: HASIren desagerpena eta horrek utzitako hutsunea; 92. urtetik aurrera emandako aldaketak eta KASen rekonfigurazioa; nazio eraikuntzaren strategiaren despliegea eta bitartean ematen zen elite politikoen arteko negoziazioa (PNV-Ezker Abertzalea); Lizarra-Garaziren osteko dinamikak... Hamarkada horretan gertatutako mugimendu eta gertakariak ikertzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Edozein modutara ere, gure ustez, 2008rako ENAMen existentziari eusten ziona borroka armatuaren existentzia bera zen. Formalki mugimendu iraultzaile bezala egituratua zegoenak ordurako ez zuen estrategia ezta jardun politiko iraultzailerik. Horrela, borroka armatua desagertzerakoan, kohesio faktore nagusia desagertu zen. Desartikulazio prozesuan, borroka armatuak eta honen ondorioek hartu zuten zentralitatea, eta horrek, errealki erdigune izan beharko lukeen aferatik distraitu gintuen; herri honen askatasuna bermatuko zuen estrategia iraultzailea birpentsatzetik alegia. Agerikoa da egungo baldintzetan borroka armatua berrartzeak ez daukala inolako zentzurik, baina hortik haratago, zergatik jardun politiko iraultzaileari uko egin? Eta hor dago egun bizi dugun egoera ulertzeko gako nagusia; izan ere, ENAMen desintegrazio prozesuan egitura armatua ez ezik, prozesu iraultzailearen ondorengotza berma zezakeen egitura organizatibo eta teorikoa ere desmantelatu egin baitzen erabat, berririk sortu gabe eta berriak sortzeari ateak itxiz.

Testuinguru horrek eragindako hutsunean, beti existitu izan den erreformismoak hartu zuen kontrola. Sozialdemokraziaren bidetik, eta urteetan zehar metatutako akatsen laguntzarekin, ENAM alderdi politiko normalizatu bat bilakatu zen, joko parlamentario burgesean aritzeko prest. Hortxe kokatu zuen, gainera, jardun politikoaren erdigunea. Mugimenduaren aberastasun organizatiboa baztertu, funtzio iraultzailea bete zezaketen egiturak deuseztatu eta euskal burgesiaren hurbilpenerako apustua berretsi zen. Sistemarekiko integrazioa gero eta osatuagoa izanik, euskal herri langileak estatuentzako eta Kapitalarentzako lehen mailako buruhauste izateari utzi zion.

Alabaina, egungo faseak aukera berriak ere zabaltzen dizkigu. Teoria eta praktika iraultzailea goitik behera birpentsatzeko aukera historikoa dugu parez pare, eta gero eta jende gehiago dabil horretan burubelarri. Ez dugu ahaztu behar, ezta ere, egun Euskal Herriak duen potentzial politiko eta organizatiboa, oraindik bizirik dirauen arnas eta taupada iraultzailea, posible dela bakarrik aurreko hamarkadetan herri honen askatasunaren alde borrokatutako milaka militanteei esker. Izan direlako gara, garelako

izango dira. Hortaz, iraganak eskaintzen dizkigun irakaspenetatik ikasi eta lanari ekitea besterik ez daukagu. Argi dugu herri honetako askapen integrala bermatuko duen proposamena klase kontzientzia nazional eta feministaren pean gorpuztuko dela. Kontrara, autonomismoak, estatutismoak, bake faltsuak edota kapitalarekin adiskidetuko gaituen beste edozein aukerak, ezingo dituzte inoiz errotik arazoak konpondu, horien funtsa arazoan erroak ezkutatzea baita. Bada, indarrak batu, berrantolatu, estrategia iraultzailea eraiki eta ekin diezaiogun norabide horretan ibiltzeari. Horiek dira egungo fase historikoaren lehentasunak. Guri dagokigunez, egun dominazio sistemak hartzen duen formaren analisisian zentratuko gara hurrengo testuan.

## **Dominazio sistema: erroak eta egungo adierazpena**

2020-12-11

Gaurko analisisian, dominazioak egun hartzen duen forma aztertuko dugu. Estrategia iraultzailea eraikitzen bidean, ezinbestekoa da dominazioaren ulerkerak zehatza eta gaurkotua egitea: bere baitan diharduten kategoriak antzeman eta horietako bakoitzarentzako azalpen argi bat eskeini. Hori modu egokian egin ezean, arriskua dago ematen ditugun aurrerapausoetan dominazioaren adierazpen berritu bat birsortzen aritzea. Gaitza behin betiko desagerrarazi nahi badugu, sustraiak ondo identifikatu behar ditugu.

### **Lanaren izaera**

Helburu horrekin, ezer baino lehen, lanaren gainean daukagun ulerkerak argitzea komeni, ondorengo lerroetan lana eta berau apropiatzeko mekanismoak buruz arituko baikara. Horri erantzunez, guretzako, gutxienez bi modu daude lana ulertzeko. Alde batetik, egun orokortua dagoen lanaren adiera legoke; hau da, kapitalismoari dagokion gertakari sozial bezala ulertzen dena. Lan asalaritua litzateke hori; giza jarduerak jakin batzuk merkantzia bilakatzen direnean agertzen da lan asalaritua. Lana merkantzia forman, lan merkatuan saldu eta erosten dena. Lan forma hori bizitza prozesuarekiko jarduerak eszinditu bezala aurkezten zaigu, banatua, enajenatua. Lan abstraktua da. Balioaren arabera konfiguraturutako giza jarduerak litzateke eta kapitalismoaren ezaugarri bereizgarria da.

Baina badago lana ulertzeko beste modu bat: gizakioi dagokigun kategoria unibertsal bezala. Kasu horretan, pentsamenduak errealitatea eraldatzeko duen gaitasuna litzateke lana eta jarduerak horren emaitza, ekoizpen edo sorkuntza bezala gauzatuko litzateke. Horrela, lana litzateke lur bat goldatu eta bertan babarrunak ereitea; baita horretarako beharrezkoak diren tresnak ekoiztea ere. Lana litzateke baita ere umetan entzundako doinuekin abesti bat sortzea babarrunak batu bitartean kantatzeko. Behin babarrunak jasota, lana izango litzateke horiekin plater berezi bat sukaldatzeko errezeta ekoiztea ere, liburuak irakurriz edo ingurukoek dakitena entzunez. Era berean, lana izango litzateke lapiko, su eta osagai ezberdinekin plater hori sukaldatzea/ekoiztea; eta nola ez, lana izango da haur bati babarrunak jaten eman, eta babarrunak nola landatu eta nola sukaldatu irakastea (gorputz eta pentsamendu berri bat ekoiztea). Lan-ekoizpen prozesu horren pauso bakoitzean beti dago 1) baldintza material zehatzak 2) ideia bat (pentsamendua), 3) bitarteko batzuk, 4) errealitatearen eraldaketa, eta ondorioz, 5) aurretik existitu ez den errealitatearen konfigurazio berri bat, ekoizpena edo sorkuntza. Lana, beraz, pentsamenduaren bitartez ematen den errealitatearen eraldaketa bezala ulertzen dugu; pentsamendua eta materiaren arteko harreman bezala. Hemen baina, ulertu beharra daukagu pentsamendua bera ekoizpen bat ere badela: errealitatea esanahitzeko darabiltzagun ideiak baldintza zehatz batzuen baitan eraikitako kategoriak direla. Gizakioek, alde aurretik existitzen diren baldintza materialetatik abiatuta (gure gorputza bera eta inguratzen gaituen errealitate fisikoa), testuinguru sozial, ekonomiko eta historiko jakin baten arabera sortzen ditugu mundua deskribatzeko ideiak. Eta ideia horien bitartez, mundua eraldatzen dugu. Beraz, ezin ditugu pentsamendua eta materia modu banatuan ulertu: ekoizpenaren pauso bakoitzean beti dago pentsamendua eta errealitate materialaren eraldaketa, pentsamendua bera materialitatearen emaitza

ekoiztua ere delarik. Horrela, ekoizpen prozesua etenik ez duen kate bezala ulertzen dugu, pentsamendua eta materia, dialektikoki elkar elikatzen.

Horrekin guztiarekin, lana giza jarduera unibertsala litzateke, giza existentzia bera definitzen duen jarduera. Edozein giza talderen errealitate material eta sinbolikoa lan prozesu horren emaitza izango litzateke, bakoitza bere berezitasun eta ezberdintasunekin. Hortaz, historikoki jendartea antolatzeke egon diren modu ezberdinak, lan-ekoizpena ulertu eta antolatzeke modu ezberdinen emaitza lirateke.

### **Lan erreproduktiboa, gainlana, gainekoizpena, gainbalioa**

Aurreko testuetan ikusi bezala ([Historiaren hari gorritik tiraka](#) eta [Euskal Herriko klase borrokaren historia](#)), lanak daukan lehenengo adierazpen historikoa ekonomia naturalaren bitartez ematen da: giza komunitate bat bere inguruarekin modu zuzenean harremanak eta jabetza komunala oinarri hartuz, autokontsumora zuzendutako ekoizpen modua. Momentu horretan bertan, lanak bi dimentsio hartu ditzake: alde batetik, lan erreproduktiboa, eta bestetik, gainlana. Lan erreproduktiboaren baitan, giza komunitate batek bizi eta lan egiten jarraitzeke beharrezkoak dituen baldintzak birsortzeke egiten duen lan guztia barnebiltzen da. Hori beteko ez balu, komunitatea iraungiko litzateke, horregatik ezinbesteko lana ere esan diezaiokegu. Behin hori asebeteta, gainlanerako aukera zabaltzen da: esate baterako, giza talde batek urtean zehar bizirauteke beharrezkoa duena, sei hilabetetan ekoiztuko balu, gainontzeke sei hilabetetan egindako lana, gainlana izango litzateke; eta gainlan horrekin sortutakoa, gainekoizpena, metatu egin daitekeena. Gainekoizpen hori merkantzia bezala saltzen bada, truke balioaren forma hartuko luke, kapitalismoarekin batera orokortuko dena, *balioa* eta gainbaliorako aukerak zabalduz. Lehenengo hiru kategoriak (lan erreproduktiboa, gainlana eta gainekoizpena) edozein giza taldek garatu ditzake bere baitan eta sistema sozial guztien oinarrian daude.

Bestalde, apropiazio eta dominazioaren logikan, gainlana eta gainekoizpenaren neurria oso garrantzitsua da; lan erreproduktibo hutsarekin bizirauteke duen komunitate bati ezer gutxi apropiatu diezaiokegu, beraien existentzia beratik haratago ez dutelako ezer metatzen. Appropriatu dakiekeena ezer gutxi denez (ez badira euren gorputzak, edo bizi diren lurraldeetako lehengai gordinak; ura, baliabide energetikoak, lurra, basoak...), beraien jardueratik eratorri daitekeen botere metaketa mugatua da. Aurretik esan bezala, neolitikotik aurrera hasten da gainekoizpena edo soberakinak modu sistematiko eta erregularrean sortzeke aukera, eta beraz, boterea modu esanguratsuan zentralizatu eta metatzeko aukera. Estatuak, dominazioa eskala sozialean artikulatzeko egitura bezala, momentu horretatik aurrera bakarrik garatu daiteke.

Behin puntu honetara helduta, uste dugu lan erreproduktiboaren analisisian sakondu behar dugula, hau da, lana eta bizitza bera posible egiten duten jardueretan. Dominazioa ulertzeke zenbait gako bertan topatuko ditugu, gainlanerako edo gainekoizpenerako aukerarik ez baitago lan erreproduktiborik gabe, ezinbestekoa den lanik gabe; azken hau gauzatzen ez bada ez dagoelako inolako lan motarako aukerarik, ez apropiaziorako aukerarik, ez dominaziorako aukerarik.

Esan bezala, lan egiteke gaitasuna birsortzeke egin beharreke lana litzateke lan erreproduktiboa: janaria lortu, lo egiteke espazioa eraiki, arropak ekoiztu, ezagutzak transmititu, gaixotasunak osatu, hori guztia egin ahal izateke tresnak ekoiztu... Eta nola



ez, denborarekin agortuz doazen gorputz berriak sortu. Azken hau garrantzi handiko elementua da, lana, gizakioi dagokigun jarduera unibertsala izanik ere, ez delako gertakari independentea. Hau da, lan prozesu ororen oinarrian, giza gorputzaren existentzia biologikoaren beharra dago; pentsamendua bera egon ahal izateko, behar ditugu neuronak, behar ditugu belarriak, ahoa, odola, ehunak eta gure gorputza osatzen duten organo guztiak. Eta horrek inplikazio sakonak ditu: giza gorputzen artean, batzuk bakarrik dira gai beraien baitan gorputz berri bat sortzeko. Bada, historikoki “emakume” bezala ezagutu izan diren gorputz horien gainean lan prozesu guztiaren iturri izateko karga jausi da, giza existentziarako oinarritzko baldintza izatea. Karga horrek adierazpen antagonikoak hartu izan ditu, testuinguru historiko, sozial eta kulturalaren arabera. Horrela, kultura matrilinealetan bizitzaren iturburu izate hori goraipatua eta ospatua izan da, emakumeei egitura sozialetan posizio zentrala eskainiz. Aldi berean, baina, kontrako adierazpena ere hartu izan du; emakumeei gorputz eta gaitasun erreproduktibo hori sistematikoki apropiatua izatearena, dominazioaren lehenengo adierazpen historikoa bilakatuz. Jabetza pribatuak hartu zuen lehenengo forma izan zen apropiazio hori; aitatasuna, matrimonioa eta herentziaren bitartez gizonak emakumearen gorputza eta baita lana ere bereganatu zueneko, horien gaineko jabetza titulua ezarri zenekoa. Horrela eraikia izan zen patriarkatua; sexu-genero dikotomiaren arabera egituratzen zen gorputzen eta lanaren gaineko apropiazio mekanismoa. Eta horrela, testuinguru patriarkal horietan, “emakumea” lehenengo sujetu zapaldu bilakatu zen.

Familia eredu patriarkala hedatu ahala, mundua ulertzeko modu bat ere hedatu zen; mentalitate patriarkal-dominatzailea. Beste baldintza material eta sozialekin batera, Estatuaren eraikuntzan betebeharrak zentrala izan zuen patriarkatuak. Aurreko testuetan esan bezala, aurrerantzean dominazio sistema historiko ezberdinen oinarrian egongo da emakumeon lana eta gorputzen gaineko apropiazio materiala, baina baita patriarkatuak ekoizten dituen baldintza ideologikoak ere (mentalitate dominatzailea, dominazioaren erreproduktio ideologikorako ezinbesteko baldintza bezala). Oinarri horietatik abiatuta, dominazio sistema historiko bakoitzean, klase zapaltzaileak mekanismo propioak garatuko ditu giza existentziaren adierazpen ezberdinak bereganatzeko (gorputza, pentsamendua, lana, ekoizpena) eta apropiazio hori ahalik eta modu zabalenean eman ahal izateko.

Honenbestez, giza existentziaren oinarrian, ondorengo kate dialektikoa egongo litzateke: gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena. Kate horren emaitza Giza Kultura litzateke, giza talde bakoitzean modu espezifiko hartzen duen osotasun material eta simbolikoa. Duela milaka urtetatik, tentsio bat egon da giza existentzia horren baitan: alde batetik, zenbaitek existentzia hori subordinatu eta apropiatu nahi izan dute; bestetik, zapalkuntzatik ihesian edo erresistentzian modu ahalik eta askeenean bizitzeko ahaleginean iraun dutenak ditugu. Klase borroka historikoaren tentsioaz ari gara. Bada, jabetza pribatua, patriarkatua eta Estatuaren inguruan historikoki eraikitzen joan den dominaziorako azpiegitura material eta ideologiko hori Dominazioaren Sistema bezala definitzen dugu. Osotasun horren azken adierazpen historikoa modernitate kapitalistaren eskutik eman da, muturreko zapalkuntza planeta osora hedatzeko gai izan dena, kualitatiboki eta kuantitatiboki modu berri batean.

## **Dominazioa kapitalismoan**

Historiari eskaini genion azken testuan ondorioztatu genuen kapitalaren logikak Euskal Herria bere osotasunean hartu zuela XX. mende amaiera baino lehen, eta modernitate kapitalistak inposatua zuela bere programa gure lurretan. Orain, ekoizpen modu kapitalista nagusi den garai historikoa honetan, Dominazioaren Sistemak hartzen duen forma zehatza aztertzea dagokigu. Horretarako, harreman eredu kapitalistetatik eratortzen diren biolentzia eta apropiazio moduei erreparatu beharko diegu; baita aurreko fase historikoetatik datozenak kapitalismoaren baitan hartu duten forma berriari.

Edozein jendarte kapitalistatan bezala, gurean ere jabetza pribatua eta merkatuarekiko dependentzia orokortuak daude. Horrek esan nahi du, gaur egun, bizitzarako beharrezkoa duguna merkatuan baino ez dugula aurkitzen; janaria, arropa, aisialdia, etxebizitza... Munduarekiko lotura, errealitate sozialarekiko kontaktua, oro har, merkantzien bitartez bakarrik gauzatu daiteke. Eta jabetza pribatua orokortua dagoen jendartean, merkantzia horien erabilera eskubidea lortzeko diruz erosi behar ditugu. Hortaz, etengabe dirua lortzera kondentatzen gaitu jendarte kapitalistan bizitzeak. Diruaren inperioan bizi gara, eta munduarekiko lotura poltsikoan daramagu.

Diruarekiko dependentzia orokor hori hobeto ulertzeko, diruak errepresentatzen duenarekiko dependentziaz ari garela argitu behar da; hau da, gainontzekoen lanarekiko dependentziaz. Horrela, diruz erosten ditugun merkantzia horien guztien edukia, gainontzekoen lana dela esan dezakegu. Ikus dezagun hori adibide zehatz baten bitartez. Dendan erosten dugun patata kiloa, berau ekoizteko behar izan den milaka langileen lan frakzioz osatuta dago; soloan ibili den nekazariarena, traktorea konpondu duen mekanikoarena, patata garraiotu duen garraiolariarena, petroleoa uztiatu duenarena eta findegian diesela ekoiztu duenarena, supermerkatuan patatak apalean jarri dituenarena, horien guztien etxeetan arropak garbitu edo sukaldatu dituztenarenak... Diruaren bitartez, lan horiekin nolabait kontaktuan jarri gaitezke eta horien emaitza den patata kiloa eskuratu dezakegu. Eta berdina da beste edozein merkantziarekin: dela etxe bat, zerbeza bat, pelikula bat edo ikasketa master bat. Merkantziak, beraz, lanaz osatuta daude. Honek guztiak diruak kapitalismoan duen dimentsioa azaleratzen du; gainontzekoen lanarekiko aginte gaitasuna, alegia. Beste era batera esanda, kapitalismoan botere soziala diruaren bitartez adierazten da, diruak lanaren gaineko kontrola duelako eta lanak gutariko bakoitzaren bizi baldintzak sortzen dituelako.

Puntu honetara helduta, pentsa genezake jendarte kapitalistan denentzako dela berdina; pobreenak zein aberatsenak diruaren beharrean bizi direla ezinbestean. Batzuk diru gehiagorekin, besteak gutxiagorekin, baina biak merkantziaren zirkulazioan parte hartuz modu kualitatiboki berdinean. Itxuraz hala da, kapitalismoan denok baikara diruaren menpeko; merkatuaren aurrean, formalki baino ez bada ere, denok gara berdinak; denok dugu merkantziak saldu eta erosteko eskubide bera. Eta berdintasunezko marko horretan, merkantzien salerosketaren bitartez elkarren artean harremantzeko aukera. Kontua da neutraltasun itxura horrek bestelako errealitate bat ezkututzen duela. Marxez ondo erakutsi zigun bezala, gauza bat da errealitate sozialak hartzen duen itxura (kasu honetan merkantziaren fetitxismoaren bitartez adierazten dena), eta beste bat errealitate horrek bere baitan gordetzen duen esentzia.

Izan ere, neutraltasun eta berdintasunetik urrun, jendarte kapitalistan bi modu daude merkantzien zirkulazioan parte hartzeko, hau da, gure bizitza gauzatzeko: diruaren bitartez, edota kapitalaren bitartez. Hemen baliteke beharrezkoa izatea dirua eta kapitalaren arteko ezberdintasuna argitzea, antzerako zoezer direla ematen baitu.

Nolabait esateko, kapitala diruaren forma eboluzionatua da, baina ezaugarri kualitatibo ezberdinak ditu; kapital guztia potentzialki dirua izan badaiteke ere, diru guztia ez da zertan kapitala izan. Horrela, diruak gainontzekoen lanaren gaineko boterea adierazten du, bai, baina behin merkantzia zirkulazioan sartuta desagertu egiten da, gastatzen da. Euro batekin zerbeza bat erosi eta edaten dugunean, euroa desagertu egiten da, xahutzen dugu. Kapitala, berriz, merkantzia zirkulazioan sartuta, berreskuratu egin dezakegu, eta ez hori bakarrik; hasieran zuen balioa baino balio handiagorekin datorkigu bueltan. Garagardoaren adibidearekin jarraituz, euro bat izan ordez, 1.000.000 € izango bagenitu, garagardo fabrika erosiko genuke. Fabrikak ondo funtzionatuko balu, urte gutxira 1.200.000 € izango genituzke. Oraingo honetan, nire euro bakoitza 1,20€ bilakatu da; ez da gastatu, inbertitu egin da. Hots, ez da bakarrik bere baitan gordetzen zuen botere soziala erreproduzitu, baizik eta erreproduzizio hori modu anpliatuan ematen da. Kapitalak botere metaketa ahalbidetzen du.

Beraz, ezberdintasun handia dago kapitala dutenen eta ez dutenen artean. Kapitala dutenek, esan dugun bezala, berau inbertitu dezakete, eta oraindik kapital gehiago lortu. Hau da, gainbalioa eskuratu dezakete. Gainera, inongo lanik egin gabe lortu dezakete hori; kapitala inbertituz, beste batzuen lana erosten dutelako (garagardo fabrika erosterakoan, bertako langileen soldatak ere ordaintzen dituzte), eta beraz ekoizpena martxan jarri daiteke. Hemen kapitalismoaren misterio nagusia ageri zaigu: lan-ekoizpen prozesuaren azken pausoan sortzen den gainbalioa bereganatzen dute, baina berez, beraiek ez dute lanik egiten, ez dute ezer ekoiztu. “Misterio” horren bitartez, kapitala dutenek gainontzekoen lanarekiko aginte gaitasuna metatzen dute, baina ez dute zertan lanik egin. Eta hori da kondizio burgesa: jabetza kapitalista, sozialki esanguratsua den jabetza, eta horrek posible egiten duen lanarekiko emantzipazioa eta irabazi kapitalista. Hots, botere sozialaren metaketa. Horiek dira burgesak.

Denek, ordea ez dute kapitala izateko aukerarik. Izan ere, jendartearen gehiengoak ez du kapitalik. Gehiengo horrek, burgesek bezala, jendarte kapitalistan bizirauteko diruaren beharra du; baina burgesek ez bezala, ez dauka diru hori “sortuko” duen kapitalik. Posizio horretan gaudenontzat, merkatuan aurkezteko dugun bakarra (gure diru iturri bakarra), geure lana da. Lan hori salduz baino ezin dezakegu bizitzeko behar dugun dirua lortu. Berez, salmenta horren ordainean geure erreproduzizioa gauzatzeko beharrezkoa dugun diru kantitatea jasoko dugu (janaria, etxebizitza, arropa, ikasketak, aisialdia...). Ondorioz, hilabete bakoitzaren amaieran diru kantitate hori agortua egongo da, bizirauteko behar genuena zelako, geure burua berriro ere lan merkatura jotzera behartuz. Konturatuko gara hemen, berez, gure lan egiteko gaitasuna saltzen gabiltzara; egunero lanpostura joan eta bertan egoteko gaitasuna saltzen gabiltzala. Hau da, geure lan indarra. Etengabeko ziklo horri (lan indarra saldu eta ordainetan lan indarra erreproduzitzeko adina dirua eskuratu) salarioa deituko diogu, eta modu horretan egindako lanari, lan asalariatua. Ziklo erreproduktiboa ere deitu diezaiokegu horri. Eta horixe da langileon biziraupenerako kondizioa kapitalismoan: desjabetza (kapitalik eza), lanerako beharrezkotasuna eta bere baitan etengabe agortzen den salarioa. Hau da, langile kondizioa.

Gaur egun, formalki ezartzen den kontratu laborala bakarrik ulertu ohi da salario bezala, eta kontratuean diharduen langilea bakarrik, langile asalariatu bezala. Ikuspegi hori, baina, arazo iturri etengabea da egungo fase kapitalista ulertzeko orduan. Izan ere, gaur egun gero eta ohikoagoa da kontratu laboralik gabeko salarioa agertzea: esplotazio maila handian lanean diharduten autonomoak (banatzaileak, gazte “ekintzaile” asko,

nekazari txikiak...) horren adibide argia dira, hilabete amaieran euren salarioa betetzeko gai baino ez direnean. Kasu horietan, izaera formalik gabeko salarioaren aurrean egongo ginateke; autonomo asalariatuak. Horiek ere langile kondizioaren baitan leudeke, eta langile klasearen baitan ulertu behar ditugu, seguraski, kontratu formal bat dutenak baino esplotazio maila handiagoan gainera. Kontrara ere gerta daiteke; zenbait lanpostutan (mediku bat, esaterako, edo sektore industrialetako zenbait langile) salarioaz gaindiko kontratu laborala ager daiteke. Kasu horietan, langile horrek bere lan indarra erreproduzitzeko beharrezkoa dena baino diru gehiago jaso dezake. Beraz, egun kapitalismoak hartzen duen forma ulertzeko ezinbestekoa da kontratu laborala eta salarioaren arteko ezberdintasuna egitea: kontratu laborala formala da, juridikoa, izaera abstraktua duena. Salarioa, ordea, sozialki erdietsia da, erlazionala; lan indarraren erreproduzizioa asebetetzeko beharrezkoa den balioaz osatua dago. Eta ez da zertan kontratu formal baten bitartez adierazi.

Puntu honetara helduta, honen guztiaren atzean dagoen “misterioa” argitzea dagokigu: nondik ateratzen da burgesak metatzen duen gainbalioa? Berak ez du lanik egiten... baina lan prozesuaren azken emaitza den gainbalioa bereganatzen du. Ematen du bere kapitala inbertituz dirua “lanean” jarri duela. Baina denok dakigu diruak ez duela lanik egiten; lana, pertsonok egiten dugu. Berez, gainbalio hori langileak egindako lanetik dator. Esan bezala, langileari bere lan egiteko gaitasunagatik ordaintzen zaio; baina gauza bat da lan egiteko gaitasuna (lan indarra) eta bestea gaitasun horrekin egiten duen lana. Eta hemen dago kapitalismoaren bihotzean dagoen esplotaziozko harremana ulertzeko gakoa: langileari, zortzi orduz lanean egoteak balio duena ordainduko diote; ez zortzi ordu horietan lan eginda benetan sortu duen balioa. Kontraesan horri erreparatzen badiogu konturatuko gara errealki lan egin dituen zortzi orduetatik, lehenengo orduetan bere erreproduziorako beharrezkoa den balioa sortua duela; hor egin du beharrezko lana. Hortik aurrera egindako lan guztia gainlana litzateke, gainbalioa sortuko duena. Hau da, langileak ekoiztutako balio guztia, bere lan indarrak balio duena baino askoz handiagoa da, eta ezberdintasun hori da gainbalioaren iturria; kapitalaren iturria. Horrela, langileari ez zaio egin duenagatik ordainduko baizik eta hori egiteko duen gaitasunak balio duenagatik (lan indarra). Eta honek guztiak ondorio argi bat dauka: kapital oro lanari xurgatutako balioz osatuta dago erabat; ez dago beste kapital iturririk gainontzekoen lana ez bada. Gainontzeko horieri ordaindu ez zaien lana, hain zuzen ere. Hori da kapitalismoak bere baitan daukan kontraesana, lana eta kapitalaren arteko kontraesana. Burgesia kontraesan hori kudeatzen saiatu daiteke, ezkututzen, arreta desbideratzen; baina ezingo du inoiz saihestu. Egiturazko biolentzia bezala, moduren baten edo bestean, beti azaleratuko zaio: batzuek lan egin, langile klasea; besteek lan horren emaitza apropiatu, klase burgesa. Kolektiboki sortutako aberastasun soziala, jabetza pribatu burges bilakatu, etenik ez duen emari baten lege. Hori da kapitalismoaren zioa.

### **Patriarkatuaren gaurkotasuna dominazioaren logikan**

Honekin guztiarekin pentsa genezake dena nahiko argi dagoela eta iraultzarako bide orria zehaztera pasa gaitzekela. Guk ezetz uste dugu, badaudela oraindik argitzeke dauden elementuak. Ohikoa da entzutea, eta guk ere horrela azaldu dugu goian, langileak kapitalismoan “daukan” gauza bakarra bere lan indarra dela. Baina baieztapen horrek ez du kontuan hartzen langileak, berez, lan indarra ere ez “daukala”. Beste edozein merkantzia bezala, kapitalismoan lan indarra ez da pertsonok daukagun berezko ezaugarri bat, eta beraz, ekoiztu egin behar da, edo zehatzago esanda, erreproduzitu.

Lan egiteko gaitasun hori baldintza zehatz batzuen arabera birsortu beharko da eta ekoizpen prozesu hori kolektiboa izan ohi da; hau da, familia nuklear heterosexualaren baitan ematen da nagusiki. Berez, langile familia batek (eta hein batean jendarteak bere osotasunean) sortzen du lanpostuan zortzi orduz lan egiten egoteko gaitasuna eta aukera. Ez bakarrik fisikoki (elikatu, jantzi, lo egin...), baita emozionalki ere. Langileak, baina, norbanako bezala sinatzen du lan indar horren salmenta eta beraz, goizean etxetik irteterakoan ekoizpen prozesu kolektibo bezala ematen dena, gauero etxera jabetza titulua indibidual bezala heltzen da. Egia da jabetza hori salarioaren gainekoa baino ez dela (ez da jabetza kapitalista), eta hortaz, goian azaldu bezala, ez duela maila sozialean boteretik metatzen. Hala ere, familia barneko erreproduktio zikloarekiko botere maila handia eskuratzen duela ukaezina da.

Eta hemen, patriarkatuarekin topo egiten dugu. Sistematikoki goizero etxean lanean emakumea geratzen denean eta gauero lan indar kolektibo horren salmentaren titularitatea gizonak dakarrenean, zalantzarik gabe esan dezakegu kapitalismoaren baitan patriarkatuak funtzionatzen jarraitzen duela. Burgesak langileak egindako gainlanaren emaitza bereganatzen duela esaten dugunean (apropiazio kapitalista), kontuan hartu beharko genuke gizon langileak familia osoaren lan indarra baino ez duela ordezkatzeko; testuinguru horretan, gizonak emakumeak etxean egindako lan erreproduktiboa sistematikoki bereganatzen du (apropiazio patriarkala). Alargun pentsionisten kasuan ezin argiago geratzen da hori: senar eta semeek lanpostuetan urteetan zehar egindako milaka lan orduetako bakoitza, berez, familiak kolektiboki egindako lan erreproduktiboaren emaitza izan da. Onartu beharra dago hemen, gizonak ere, ziklo erreproduktibo horren zati bat ere egin duela; kolektiboki ekoiztutako lan indar hori saltzerakoan ziklo erreproduktiboa ixten duela gogoratu behar dugu. Hau da, ziklo hori ixterakoan bakarrik ordaindu ahalko baita etxeko janaria, arropak, alokairua... Horregatik komeni da langile familia unitate bezala aztertzea, eta gizonak lanpostuan egindako lana ere ziklo erreproduktiboaren barruan kokatzea; gizonak lanpostuan egiten duen gainlana ere emakumeari dagokion era berean. Unitate osoaren parte hartzeaz bakarrik da posible lan erreproduktiboa zein gainlana. Arazoa hemen, familia osoari zegokion ordainsaria gizonak norbanako bezala jaso izan duela da; eta horren ondorioz, orain alargunak bere pentsioa osatuko duen kotizaziorik ez duela. Berari zegokion kotizazioa gizonak jaso du. Argiki ikusten da hemen nola emakume horien gain, bi apropiazio forma ezberdin gauzatu diren; alde batetik, kapitalismoaren kategorien bitartez (salerosketa, merkantzia, soldata, dirua...), burgesak bere lan indarra ere bazen horretatik gainbalioa xurgatu dio. Beste aldetik, kategorio aurrekapitalisten bitartez (ahaidetasun harreman patriarkalak), bere senarrak biena zen lan indarra saldu eta ordainsaria norbanako bezala bereganatu du.

Egia da, gaur egun, apropiazio patriarkal hori kapitalismoaren mugen barruan ematen dela eta kapitalaren mesedetara, baina batak eta besteak erabiltzen dituzten bitarteko dominatzaileak ezberdinak dira eta hori kontuan hartu beharko genuke. Bestalde, badago esango duenik familia eredu patriarkal tradizionala desagertuz doala eta gurea bezalako jendarte baten apropiazio forma horrek gero eta garrantzi txikiagoa duela. Ukatzerik ez dago, familia eredu tradizional horrek azken hamarkadetan garrantzia galdu duela erdigune inperialistako populazioaren zenbait geruzatan. Hala ere, agortzetik urrun dagoela uste dugu. Esate baterako, Mendebaldean erlijio monoteista patriarkalen arabera antolaturiko familiak (katolikoak, ortodoxoak, ebangelistak, musulmanak...) oraindik ugariak dira eta ikertu beharko genuke joera goranzkoa edo beheranzkoa den. Oro har, emakumeek etxetik kanpo diru truke lan egiten duten

kasuetan ere, ikertu beharko litzateke familiak jasotzen duen salario osoaren kontrol erreala nork daraman. Eta honetaz guztiaz gain, azpimarratu behar da, familia eredu patriarkal hain argia ez duten familietan ere, emakumeok etxe barruko lanen gehiengoaz arduratzen garela. Zenbat familietan gara emakumeok, umeak izan ondoren, etxetik kanpoko lanari uko egin eta zaintza lanei lehentasuna ematen diogunak?

Argi dago beraz, kapitalismoak patriarkatua barneratu duela bere baitan ematen den ziklo erreproduktiboaren kudeaketa marko bezala. Erdigune inperialistatik haratago, mundu osoa jartzen badugu ikusmiran, are ageriagokoa da hori. Bestalde, familiaren baitan ematen den lan erreproduktiboaren apropiazioaz gain, patriarkatuak baditu beste adierazpen forma batzuk egungo jendartearen. Familiaren mugetatik kanpo, emakumeok gure lan indarra saldu behar dugunean, feminizatuak dauden lanpostuetara mugatuak gaude eta salmenta hori, gainera, gizonekin konparatuz modu debalutuan gauzatzera behartuta gaude. Hau da, lanpostuan ere, kategoria kapitalisten bitartez apropiatua zaigun gainbalioaren proportzioa handiagoa da.

Honetaz guztiaz gain, patriarkatuaren oinarrian dagoen emakumeon gorputzen gaineko dominazioa daukagu; emakume bezala sozializatu izateagatik pairatzen ditugun umiliazio, gutxiespen, jazarpen psikologiko, bortxaketa, erailketa eta abarrak. Bortxaketa, eta oro har, biolentzia sexualaren kasuan, apropiazioa ez da hainbeste lanaren gainean ematen, gorputzaren gainean baino. Ondorioz, emakume gorputz sexualizatu bezala sozializatuak izan diren gorputz guztiek jasaten dute potentzialki biolentzia forma hau; lanaren arabera ezarritako posizio sozialarekiko modu independentean. Honekin lotua, harreman eredu hetero-patriarkalarekin bat ez datozen erlazio formak egiturazko biolentzia jasatera kondenatuak daude baita ere. Patriarkatuak ezartzen duen sexu-genero dikotomiarekin bat ez datozen gorputzak ere, antzerako egoeran daude.

Honek guztiak erakusten digu patriarkatuak aspaldi utzi ziola familia egitura soil bat izateari. Familiaren mugetatik haratago gauzatzen diren hamaika adierazpen forma ditu, eta are esanguratsuagoa dena; muga horietatik at, denetariko bitartekoak erabiltzen ditu bere birsortzea bermatzeko: komunikabideak, kirola, internet, eskola, zinema edo musika, gizon eta emakumeen sozializazio espazioak... Familiaz haratago, jendartea bere osotasunean zeharkatzen duen errealtatea da patriarkatua. Eta honekin, patriarkatuak hartzen duen beste adierazpen bat geratzen da agerian, askotan aipatua izaten ez dena. Alegia, Dominazioaren Sistemak hartutako forma ororen bihotzean egon den ezinbesteko baldintzaren sortzaile izatea: mentalitate dominatzailea. Jabetza pribatuaren sorburutik, harreman sozial patriarkalek dominazioa sostengatzeko baldintza ideologikoen bizkarrezurra ekoiztu dute; ondokoa zapaldu, umiliatu, bortxatu edota mespretxatzeko aukera, gutariko bakoitzean errotua dagoen mentalitate dominatzaileari esker bakarrik izan da posible. Eta mentalitate dominatzaile horrek, gaur egun ere, patriarkala izaten jarraitzen du. Egungo testuinguruan pentsamendu liberal-burgesa eta koloniala ere mentalitate horren zutabe zentral bezala identifikatzen ditugu.

### **Dominazioaren Sistemaren adierazpena egungo Euskal Herrian**

Orain artekoarekin, Dominazioaren Sistemak gaur egun dituen ezaugarri orokorrak aztertu ditugu. Erabat errotua dagoen dominazio sistema izanik, jendartearen geruza guztiak zeharkatzen dituena, argi dugu “ekonomia” bezala ezagutzen dugun horretaz

baino askoz haratago doala: ideologia jakin bat behar du orokortua izan, mundua ulertzeko ikuskera bat, baita bere erara moldatua izan den aparatu judizial, polizial eta legegilea; edota hezkuntza sistema bat. Gobernu sistema bat, oro har, dominazioaren logika erreproduzituko duena, denboran luzatu eta espazioan zabaltzeko gai izango dena.

Jakina da horrek guztiak jendarte jakin batean hartzen duen forma zehatza aztertzea ezinbestekoa dela. Gure ustez, Euskal Herriari dagokionez, egiteke dago azterketa horren zati handi bat. Historiarekin gertatu bezala, hurrengo hile-urteetan zehar egin beharreko ikerketa sistematiko, argi eta gaurkotua izan beharko da hori. Ikerketa horren baitan, lana eta kapitalaren arteko kontraesanak egun Euskal Herrian hartzen duen forma zehatza ikertu beharko dugu; lana eta kapitala egungo jendartean nola banatzen den aztertu eta horren araberrako analisi kategoriak garatu. Klase konposizioaren azterketa horretarako, gainera, lan-ekoizpen prozesuaren kate osoa kontuan hartu beharko genuke (lan erreproduktiboa-gainlana-gainekoizpena-gainbalioa), genero eta arraza aldagaiak kate horren analisisian txertatuz. Horrez gain, jendartearen konposizio ideologikoa ere azterketagai bezala hartu beharko dugu; mentalitate dominatzaileak jendartean duen islada aztertu; pentsamendu burges-liberalak, patriarkalak eta kolonialak euskal jendartean duten errotze eta hedatze maila ikertu. Alegia, klase konposizio politikoa aztertu, kontzientzia iraultzailea pizteko baldintzak ulertu ahal izateko. Oro har, jendarte kapitalista eta patriarkalaren oinarri materialek eraikitzen duten islada emozional eta subjektiboa konprenitu. Lana eta pentsamenduaren azterketarekin batera, gorputzaren gain ematen diren apropiaziozko eta biolentziazko adierazpen zehatzak ere aztertu beharko genituzte. Azkenik, gure herriaren gain ezarriak diren gobernurako egitura politiko-estatalen analisisia ere barnebildu beharko du.

Horrekin guztiarekin, Dominazioaren Sistemak Euskal Herrian egun hartzen duen forma zehatza ulertzeko oinarri sendoak eraikiko ditugu. Giza existentziaren gain (gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena) euskal lurretan ematen den zapalkuntza eta apropiazioaren nolakotasun gaurkotua argitu. Euskal langile klasearen baitan agertzen diren potentzialitate eta kontraesanak identifikatu eta horrekin, iraultzarako oinarri sendoak ezarri.

Zentzu horretan, egungo aldagaien ikerketaz gain, analisi historikora ere jotzea garrantzitsua deritzogu. Bertan, Dominazioaren Sistemak, eta berau gainditzeko erresistentziak, Euskal Herrian hartzen duten forma espezifikoak antzemateko gako ugari topatuko ditugu. Horrela, historiari eskaini genion hausnarketan argi geratu zen bezala, dominazioaren logika ez da herri honi berez suertatu zaion zoria. Munduko gainontzeko herrietan bezala, prozesu historiko luze eta mingarri baten emaitza da; komunitateek Estatuaren aurka egindako gerra, emakumeek patriarkatuaren aurka, langileek burgesiaren aurka, herriek Inperioaren aurka. Prozesu horretan komunitateak disolbatu egin izan dira, hizkuntzak desagertu, emakumeak emazte bilakatu, lana merkantzia bihurtu, jabetza komunala jabetza pribatu bihurtu, herriek autonomia ekonomiko eta politikoa galdu eta pentsamendua alienatu. Dominazioaren Sistemak bizitza sozial osoaren gain erabateko subordinazioa inposatzea lortzen dueneko prozesua da. Kolonizazio prozesua. Prozesu horren kulminazio mundiala modernitate kapitalistak burutu du; gure lurretan espainiar eta frantziar estatuen eskutik. Hemen azpimarratu behar dugu kolonizazioa ez dugula fenomeno ekonomiko soil bezala ikusten, truke desorekatuak ahalbidetzen duen sakeoan oinarritzen dena. Euskal Herrian egun ez da horrelakorik gertatzen. Pentsamenduaren eta gorputzen kolonizazioaz ere ari gara;

baita hizkuntzen kolonizazioaz ere, musikarena, dantza eta janzkerena, edota herri batek berezkoak dituen bestelako adierazpen sinboliko eta politikoen kolonizazioaz.

Horregatik, gure ustez, kolonizazio fenomenoak, bere osotasunean ulertuta, erdigune inperialistari dagokion fenomenoak ere bada. Izan ere, mundu mailan espantsio kolonial eta inperialista abiatu baino lehen (batzuetan aldi berean), potentzia inperialistek barne mailako kolonizazio eta homogeneizazio prozesuak burutu behar izan zituzten.

Europako estatu moderno guztien genesian, beraien mugen barruko komunitate eta herriak zapalduak, suntsituak eta asimilatuak izan ziren mendeetan zehar.

Ondo dakigun bezala, kolonizazio integral hori ez da modu baketsuan eman. Klase borrokaren historiak erakusten digun bezala, altxamenduz, matxinadaz, erresistentziaz eta gerraz josia dago. Bada, erresistentzia hori da aberria. Gurean euskara, euskal lurraldeak eta askatasuna maitatu eta defendatzeko prest daudenak; lurralde horietan lan eta bizi direnak zapalkuntza ororen aurrean defendatzeko prest daudenak; horiek dira euskal aberria, hori da borroka abertzalea. Hartara, modernitate kapitalistarekin topo egiterakoan, aberri orok nekazal komunitate naturaletan du abiapuntua, horien baitan biziraun duen komunismo primitiboaren aztertzea, erreinu eta inperioen aurka izandako borroka historikoan. Euskal Herrian ere horrela gertatu izan zen, nahiz eta aberria ez den zertan komunitate horien desagerpenarekin agortu. Izan ere, garai berri bakoitzak erresistentzia pizteko baldintza berriak dakartza, klase kontraesanezko baldintza berriak; gurean, baserriar jendarte tradizionalaren agorpenak proletalگو industrialaren gorakadarekin bat egin zuen, azken mendean ezagutu dugun indar iraultzaile biziena piztuz. Guk argi daukagu gaur eta hemen eraikiko dugun jendarte berria ez dela izango baserriar bizimoduaren erreproduktzio bat. Ezingo litzateke izan eta gainera, ez dugu horrelakorik nahi. Baina ezin dugu ukatu euskal memoria kolektiboan leku esanguratsua hartzen duten nekazal komunitate horiek bizitza askearen ezaugarri ugari zituztela, askapen borrokan inspirazio iturri izan beharko genituzkeenak: komunitatea bera, ekonomia naturala, auzolana, elkarrekin harremantzeko logika kolektiboak, herri-lurrak edota oinarritzko egitura demokratiko-komunalak (kontzejoak, batzarrea).

Aberriaz ari garela, askotan aberria nazio-estatuarekin edo estatu bilakatu daitekeen nazioarekin nahasten dela uste dugu, eta guretzako hori ez da guztiz zuzena. Aberria askatasunerako bektorea izan behar da, ezin da inoiz Dominazioaren Sistema inposatuko duen bektore izan. Nazio zapalkuntzari lotua doa aberria; klase borrokaren historiaren ondorioz herri batek metatzen duen kapital politikoaz osatua. Bere existentziaren kontzientzia mailaz, eta auto-antolakuntzarako eta auto-defentsarako erakusten duen gaitasunaz osatuta dago aberria. Horregatik, gauza bat aberria da eta beste bat inperioa. Esate baterako, estatu espainola, eta oro har, España beraren ideia ezin da aberri izan. España Inperioa da. Bere sorreratik modernitate kapitalista inposatzeko egitura politikoa izan da, Dominazioaren Sistema hedatu duena bere egitura guztietan zehar. Frantziari buruz ere antzerakoa esan dezakegu. Horrek ez du esan nahi egun estatu espainolak edo frantsesak kontrolatzen dituzten lurren baitan aberririk ez dagoenik. Gaztelako nekazal komunitateak aberri izan ziren espainiar koroaren aurka borrokatu zirenean. Kanarietako eta Andaluziako lurretan ere modu beretsuan gertatu zen. Kasu horietan guztietan, aberri horien arrastoak oraindik nabarmenak dira, baina eraldaketa sozialerako duten gaitasuna oso mugatua da, Estatuaren zapalkuntzaren azpian iraungita geratu baitziren. Beste kasu batzuetan, ordea, borrokatu ziren aberri horiek osasuntsu bizirautea lortu zuten XX. mendera arte. Euskal Herria edo Herrialde Katalanak dira horien adibide esanguratsuenak. Euskal Herriak berak aberria izaten



jarraizen du, bere baitan askatasunerako pultsioa mantentzen duelako, iraultzarako eta erresistentziarako kapital politikoa gordetzen duelako oraindik ere.

Baina aberri izateari utz diezaioke. Esan bezala, aberria ez da herri batek esentzialki duen ezaugarria, klase borroka historikoaren emaitza dialektiboa baizik. Eta beraz, desagertu daiteke: bai iraungi dezaketeelako, bai Inperio bilakatu daitekeelako. Lehenengorako aukera espainiar eta frantziar estatuen aurkako borrokan ebatziko da. Bigarreneko aukera, aldiz, barne mailan argituko da mendeetan zehar metatzen doan tentsioaren ondorioz. Izan ere, Euskal Herriak gaurdanik badu izaera inperialista, gure ustez izaera abertzaleari oraindik nagusitu ez zaion arren. Euskal oligarkia Erdi Aroaren amaieratik proiektu inperialistarekin lerrotatua dago eta Ameriketako kolonizazioan parte hartze zuzena izan zuen. Euskaldun batzuek eraman zuten Dominazioaren Sistemaren forma aurreratuenak lur haietara. Tradizio horri jarraiki, eta erdigune inperialistan kokatutako lurraldea izanik, gure ehun produktibo kapitalista posizio inperialista horretatik abiatzen da mundu mailako merkatu kompetentziara. Honekin guztiarekin, europarrok kolonizatu eta pobretutako herrietatik gero eta migrante gehiago datozkigu. Zer esanik ez dago euskal herritar arrazializatu horiek ez dutela, inondik inora, euskal langile klaseko zuriak duten posizioa egungo jendartean. Patriarkatuarekin gertatzen den modu beretsuan, arrazismoak eta pentsamendu kolonialak euskal jendartea goitik behera zeharkatzen dute, arrazializatutako herri-kideak euskaldun zuriak baino egoera nabarmen okerragoan utziz; bai lana-kapitalaren baitako logikan, bai ekonomikoki irrazionalak izan daitezkeen bestelako biolentzia formak jasaterako orduan. Bada, arrazializatutako euskaldun horiek borroka abertzalera batzea da Euskal Herriak bere baitan duen deriba inperialistari aurre egiteko aukera. Horretan datza euskal aberriaren biziraupenerako gakoetako bat.

### **Krisi ekologikoak duen garrantziaz**

Azkenik, orain arte aipatu gabe joan den elementu bat daukagu. Kapitalismoak berezkoa duen etengabeko hazkundeak, berak bultzatutako bitarteko produktiboen garapen itsuarekin batera, energia eta materiaren zikloak globalki desorekatu ditu. Horren ondorioz, ekosistema eta espezie ugari desagertu dira dagoeneko, eta oraindik gehiagoren biziraupena kolokan egongo da hurrengo hamarkadetan zehar. Berotegi efektua duten gasek eragindako klima aldaketa; ozeano, lurrazal eta atmosferaren kutsadura globala; habitat osoen suntsiketa materiala; baliabideen gehiegizko ustiapena; espezie inbaditzaileen zabalpena... Mundu mailako krisi ekologikoa.

Era berean, gizakiok eragindako krisi ekologiko global horrek gizakion zenbait existentzia forma ere kolokan jarri ditu. Azken finean, giza existentzia bera materia eta energia ziklo horiekiko dependientea da, ekosistemekiko eta bestelako espezie bizidunekiko estuki lotua dagoen bezala. Lanaz eta ekoizpenaz ari garenean, harreman sozialez eta horien baitan ematen diren apropiazio, zapalkuntza eta biolentziatzko gertaerez ari gara. Baina ezin dugu ahaztu lan prozesu osoa (eta horrekin, errealitate soziala) orokorragoa den prozesu bati lotua dagoela; bizitza prozesuari, hain zuzen ere. Bizitza prozesua bera materia eta energiaren lege eta zikloekiko dependientea den bezala. Horregatik, materia, bizitza eta lanaren arteko harremana ulertzea ezinbesteko pausoa da, ez bakarrik harreman sozialen esparruan ematen diren gatazkei erantzun bat emateko, baizik eta gizakion existentzia bera bermatzeko. Gaurkoan ez dugu horretan sakontzeko aukerarik izango, baina duen garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa deritzogu.

## **Iraultzara bidean, dominazioa hautsi**

Dominazioaren analisiarekin amaitzeko, zenbait ondorio azpimarratu nahiko genituzte. Laburbilduz, dominazioaren hari historikoa jabetza pribatua, patriarkatua eta Estatuaren bitartez eraikitzen joan den osotasun material eta ideologiko bezala ulertzen dugu, bere azken adierazpena modernitate kapitalistaren eskutik eman delarik. Dominazioaren logika horren pean sistematikoki apropiatua eta subordinatua izan da giza existentzia osatzen duen katea (gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena), etengabe birsortzen den egiturazko biolentzia eraginez eta gutxi batzuen botere metaketa ahalbidetuz. Gaur egun, ekoizpen modu kapitalista nagusi den garai historiko honetan, lana eta kapitalaren arteko kontraesana Dominazioaren Sistema egituratzen duen kontraesana da. Lan-ekoizpen katearen azken espresioa kapitalaren bitartez adierazten den honetan, kapitalaren gaineko kontrola dutenek, burgesek, errealitate sozialaren kontrola dute. Dominazioa ulertzeko eta berau gainditzeko gako nagusietako bat hemen topatuko dugu.

Aldi berean, Dominazioaren Sistemaren baitan badago biolentzia eta apropiazio forma ugari, jatorri aurrekapitalista izateagatik kapitalaren kategoria soilen bitartez ulertu ezingo ditugunak. Barne logika ezberdin bat darabiltelako gertatzen da hori, patriarkatuaren kasuan argi ikusten dugun moduan. Gorputzen eta lan erreproduktiboan apropiazio patriarkala ematen den kasuetan, esate baterako, sexu-genero banaketaren arabera ematen dira, dirua, merkantzia edota salerosketa bezalako parte hartze zuzenik gabe. Kapitalaren metaketak ezarritako korrante sozial orokorraren barruan gertatzen dira, bai, baina biolentzia pizteko mekanismoek bestelako barne logika baten arabera funtzionatzen dute. Horrek ez du esan nahi biolentzia forma horiek modu banatu edo isolatuan funtzionatzen dutenik egungo jendartean. Dominazioaren Sistemaz ari garenean, garapen historiko konplexua izan duen sistema bati buruz ari gara, geruza ezberdinez osatuta dagoena. Horrela, dominazioa bera ez da kapitalismoarekin inauguratzen; jabetza pribatuak milaka urtetako ibilbidea du, patriarkatua, kolonialismoa, Estatu eta oro har, ekoizpen modu ezberdinen bitartez adierazpen ezberdinak hartu izan dituenak. Kapitalismoaren agerpen eta nagusitzearekin batera, aurretik datozen determinazio horiek guztiak kapitalaren logikan azpiratuak geratzen dira; kapitalaren metaketak ezartzen du gertakari sozialek hartuko duten norabide orokorra. Baina aldi berean, kapitalismoak berak aurretik datozen horien ezaugarriak barnebiltzen ditu, horien emaitza baita; patriarkatuak edo arrazismoak kapitalismoaren erroan bizirauten jarraitzen dute, berau elikatuz eta bizitza sozial guztia zeharkatuz.

Beraz, Dominazioaren Sistema osatzen duten geruza guztiak dialektikoki konbinatuak agertzen zaizkigu, errealitate sozial bakar bat osatuz. Ezin ditugu geruzak banatu eta partzialki aztertu (ezta gainditu ere), gaur egun hartzen duten forma zehatza gainontzekoekin duten hartueman dialektikoaren emaitza delako. Patriarkatua ez da orain dela 1000 urte zen gauza bera, baina kapitalismoak ere ez luke gaur egun dauen forma izango ez balitz patriarkatuak inprimatu dizkion izaera eta ezaugarriengatik. Horregatik, kapitalismoaren garaian dominazioak hartzen duen forma ulertu ahal izateko geruza horien guztien nolakotasuna eta batez ere beraien arteko hartuemana ulertzea ezinbestekoa da. Ariketa konplexua da, baina ez ezinezkoa; behinik behin, geruza guztiek konpartitzen duten eta dominazio orenen oinarrian dagoen gertakari soziala daukagunean; jabetza pribatua.

Gure ustez, jabetza pribatua da zapalkuntza eta esplotazio ororen iturria. Emakumeon gorputz eta lanaren gaineko jabetzatik hasita eta lan sozial guztiaren adierazle den kapitalaren gaineko jabetzara. Horrela, ez da zilegia burgesak kapitalaren gainean lortzen duen jabetza pribatua (hau ageri-agerikoa da), baina ezta ere norbanako langile batek salarioaren gainean lortzen duena. Lana prozesu kolektibo bezala gauzatzen delako gertatzen da hori, familiarik harago ere, metabolismo sozial osoaren emaitza delako. Modu horretan, gutako bakoitzak egiten dugun lana, kolektiboki sortu den gaitasun baten emaitza baino ez da. Lan indarraren erreprodukzioaren kasuan argi geratu zaigu: langile batek lanpostuan ematen duen ordu bakoitzaren jabetza nori dagokio? Ordu horietako bakoitzean, zer proportziotan neurtu dezakegu aurreko gauean bikotearengandik jasotako laztana? Edo igandean langunartean emandako arratsalde pasa? Edo bere amak, jantzita daramatzan frakak konpontzeko eman zuen goiza? Edo bere zapatak Bangladeshen 14 orduz josi duenaren lepoko min jasangaitza?

Lanak, prozesu banaezin bezala ulertzen badugu (lan erreproduktibo eta gainlana barnebiltzen dituen), ezin du inoiz izaera indibidual hutsa izan. Are gehiago, gaur gaurkoz sozialki eskala planetarioan banatuta agertzen den fenomeno delatuta. Hau da, lanaren dimentsio indibiduala errealtate inkonmensurablea da, neurtu ezin daitekeen errealtatea. Eta hortaz, ezinezkoa da justiziaz neurtzea sozialki bakarrik gauzatu daitekeen gertakari horretatik norbanako bakoitzari dagokion zenbatekoa. Horregatik, lan prozesuaren gainean ezartzen den jabetza pribatu orok, merkantziaren forma hartzen duen lan prozesu orok, apropiazioa eta injustiziaren logika darama bere baitan. Lanarekin bezala, jabetza pribatuak badu bere islada pentsamenduaren esparruan, dominazioaren kate guztia elikatzen duen mentalitate dominatzailean, eta horri lotua doan alienazioan. Pentsamendu burges, liberal, patriarkal eta kolonialak barnebiltzen dituen mentalitate dominatzaileak duen garrantzia ulertu gabe, zaila egingo zaigu Dominazioaren Sistema gainditzea.

Azkenik, honako guzti honek, garapen eta erresistentzia historikoaren ondorioz, Euskal Herrian adierazpen espezifikoak du, espainiar eta frantziar estatuen pean zapalduta agertzen den herria. Euskal Herriko nazio zapalkuntza Euskal Herrian Dominazioaren Sistemak hartzen duen forma politikoa da, eta beraz, berau gainditu gabe, ezinezkoa izango da nazio zapalkuntza gainditzea eta alderantziz.

Beraz, honi guztiari aterabide bat ematea dagokigu. Eta horretarako, Dominazioaren Sistemak bere bihotzean daraman taupada eten egin beharko dugu. Jabetza pribatua. Dela kapitalista edo beste edozein formatakoa. Dela lana eta ekoizpenaren gainekoa edo gorputzen gainekoa. Jabetza pribatua gainditu, bere islada psikologikoa den mentalitate dominatzailearekin batera. Horiek guztiak gainditu, eta hori ez denez egun batetik bestera gertatuko, norabide horretan zuzenduko gaituen iparrorratza oratu. Komunismoa, Euskal Herrian behintzat, komunismo abertzalea. Inolako dominaziorik gabe antolatu eta garatu ahalko den bizitzaren adierazpen askea; berdintasunean eta askatasunean oinarritutako giza existentziaren espresioa. Ez da, ez, bide erreza izango eta gure ustetan prozesu historiko luze eta konplexu bezala bakarrik gauzatu ahalko da; prozesu iraultzaile bezala, alegia. Hori bai, bide horretan aurrera egiteko tresna bakarra daukagu eskura; antolakuntza iraultzailea, eta bere baitan bakarrik garatu daitezkeen taktika eta estrategia iraultzaileak. Aurrerago helduko diogu honi, baina zalantzarik ez daukagu Independentzia Sozialistarako prozesuan sintetizatuko diren taktika eta estrategia horiek euskal langile klasea izan beharko duela erdigunean, kontzientzia nazionala motore eta emakumeon askapena abiapuntu.

## **Patriarkatua dominazio sisteman**

2021-05-25

Gaurko Hauspoa generoari, patriarkatuari eta feminismoari buruzko irakurketari eskainiko diogu. Aurreko testu batean [dominazio sistemaren ulerkera orokorra azaldu genuen](#), eta bertan txertatua zegoen patriarkatuaren posizio eta funtzioa nola ulertzen dugun. Hala ere, uste dugu gaiak berariazko testu bat merezi duela, egun pil-pilean dagoen eztabaida delako, eta bide iraultzailean berebiziko garrantzia duen askapen prozesua delako.

Hautsak harrotzen dituen eztabaida da egun, hainbat arrazoi direla medio. Alde batetik, urteetan mugimendu iraultzaileetan ezkutuan egon den gaia izan da, garrantzirik izan ez duena eta gehienez ere, “benetako iraultzaren” ondorengo etxerako lan gisa atzeratu dena. Azken garaietan, mugimendu iraultzaileetako emakumeek zapalkuntza honen garrantzia azpimarratu izan dute, agendaren lehen lerrora ekarriz. Beraz, nahiko eztabaidagai berria dugu, ideia asko azaleratu dituen eta oraindik ere eraikitze prozesuan dagoena.

### **Patriarkatuaren sorrera eta bilakaera**

Hasteko, patriarkatuaren jatorriaren auziari helduko diogu. Argitu behar da gaur egun gure eskura dauden teoriak ikuspuntu jakin batetik idatziak direla, eta ez dietela munduko beste toki batzuetako errealitate eta ikerketei erantzuten.

Hemen aipatuko ditugun teorietan, patriarkatuaren jatorri posibleen oinarrian, hasteko, ontzat ematen da nolabaiteko emakume eta gizon kategoriak bazeudela; hain zuzen ere, erditzen zutenak eta erditzen ez zutenak bereizten ziren. Banaketa horrek eragiten zuen bien arteko desberdintasun bat bizitza prozesuetan; izan ere, erditzeak hilabete luzez dakartza kondizioa eta honen ondorengoak (haurdunaldian, erditzea, erditu ondorengoak...), eta horren ondorioz, haurraren zaintza bere gain hartu beharra eta beraz denbora gutxiago bestelako lan kolektiboetan.

Lehen teoriari dagokionez, eta aurreko hori horrela izan zela onartuta, orokortuagoa zen “gizonak” ehizan aritzea (nahiz eta badauden arrastoak erakusten dutenak ehiza ariketa kolektiboa zela, eta “emakumeek” ere parte hartzen zutela). Ehiza prozesu horretan pentsamendu estrategikoa eta izaera oldarkorrek garatzeko giro egokia sortzen zen, eta bereizte horrek eragin zuen emakume eta gizon genero-kategorietan sakontzea, eta gizonen izaera menperatzailea garatzea, emakumeon kaltetan. Hortaz, lehen teoria honek haurrak izateak dakarren lan banaketa mailakatuta azpimarratzen du, eta hortik ondorioztatzen da, izaeren garapen ezberdinari lotuta, dominazioa/menperakuntza/zapalkuntza. Teoria honek ez digu argitzen zer gertatzen zen erditzen ez zuten emakumeekin, edota horiek ere emakume kategorian sozialean sartzen ziren.

Bigarren teoria batek dio giza lanaren garapenean pentsamendua gailenduz joan zela eskua/lan fisikoaren aldean. Hipotesi honek ontzat ematen du emakume eta gizonen arteko banaketan oinarri fisiko bat badagoela, gizonak indartsuago eta emakumeok ahulago egiten gaituena. Horregatik, indar fisikoaren garrantzia gutxitu ahala, emakumeon garrantzia handitu zen; hau da, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak (sozialki garrantzitsuak zirenak) gutxitu ziren, eta horrek gizonen erreakzio bat eragin zuen, euren boterea mantentzeko borroka piztuz. Teoria honek, hortaz, aditzera ematen digu patriarkatua lehenagotik ere bazegoela; izan ere, gizonen erreakzio hori eragiteko, gizonek lehenago ere botere sozial orokortua izango zuten.

Aztertuko dugun azken teoriak Neolitiko garaiko sedentarizazio prozesura jotzen du. Horren arabera, bizimodu nomada utzi eta nekazaritzaren existentzia puztu ahala, ekoizpen bitartekoak garatu eta ekoizpena eraginkorragoa egin zen, soberakinak egotea ahalbidetu zuelarik. Soberakin horiek lehia-elementu bilakatu ziren, abantaila baitzeukan horiek produzitzen zituen komunitateak. Horregatik, gainprodukzioa babesteko bitartekoak sortu eta jabetza gisa ulertzeko pentsamendua errotzen hasi zen. Jabeak hil ahala, jabetza hori mantenduko zuen ondorengoa bermatua izan nahiko zuten; eta horra hor gakoa: ondorengotza hori haurren bitartez ematen da, eta haurrak, erditzen dutenen bitartez. Hala, bada, erditzen zutenak kontrolatu eta norberetzeko prozesua abian jarri zen, ondorengotza eta jabetza norberetu eta kontrolatzeko bitarteko gisa. Horrela, gorputz horien gaineko kontrol esplizituaz gain, gorputz horien egiteko soziala inposatu zen; horretarako guztirako, genero rola bereizi eta transmititzea beharrezko zen, diziplinamendua orokortu eta emakumeon askatasunak murriztea. Horrela, bada, emakumeon apropiazioa bilakatu zen jabetza pribatu orokorturako bitarteko eta oinarri. Hortik aurrera, jabetza pribatuaren araberrako lehia eta klasifikazioa dator, hau da, klase banaketa. Klase horiek elkar dominatzen dute, eta dominazio horretarako beharrezkoa da, bien artean, emakumeen dominazioa bermatzea. Menperatzaileak bere lurra landuko dituen langileak behar dituelako etengabe, eta bere jabetza nori pasatu izan behar duelako; menperatuak ere, ondorengotza nori pasatu behar duelako, eta gainera, sozialki boterea izateko aukera topatzen duelako emakumeen azpiratzearekin, eta hori nahi du, dominazioaren logika txertatua baitu. Hala ere, ulertu behar dugu klase banaketa baino lehenagokoa den dominazio honek gaur egun egin dezakegun irakurketa arrazionaletik haragoko inplikazioak dituela, eta ezin dugu interes kontzienteetan soilik bilatu zapalkuntzaren sostengua. Mendeetan zehar garatutako mentalitateak mekanismo asko behar izan ditu garatu ahal izateko, eta horien jatorria ikuspuntu ekonomikotik “irrazionala” ere bada. Horretan datza dominazioaren logika: norbanakoen sakonenean txertatua izatea, gaineko interesak ia ikusezin bilakatu.

Esan bezala, ez dugu bere horretan teoria hauetako bat ere defendatuko, baina esan dezakegu, sekuentzia logikoa jarraituz, patriarkatua dela dominazio sistema eta klase jendartearen inauguratzen duena. Patriarkatua bere horretan existitu daiteke: ez du behar bestelako klase banaketarik existitzeko, eta bera da lehen klase banaketarako bitarteko; bestalde, klase jendarteak, bere erreprodukzioa bermatzeko, beharrezko du erreprodukzio horretaz zuzenki arduratzen den elementua (erditzen dutenen gorputzak eta bizitzak) kontrolpean izatea.

Elementu horri emakume deituko zaio bere rol soziala garatu ahala: bere bizitza haurrak izatera bideratua dago; horretarako, beharrezkoa da, esan bezala, diziplinamendu orokortu bat, eta horretarako, emakume kategoria beraren sorrera. Rol nagusi horrek historian zehar iraun du.

Emakumeak haurrak izan eta zaintzera bideratu izan bagara ere, ez gara, oro har, bestelako lanetatik salbuetsiak izan. Hau da, lanaldi bikoitzera kondenatuak izan gara beti eta orokorrean esanda: bakarrik aritu behar zaintza lanetan, eta zaintza lanetatik kanpo ere jardun behar. Baina etxetik kanpoko lan horietan baldintza txarretara kondenatuak izan gara beti, dela gure balio soziala ez delako aitortua, dela lan-kargak ez digulako denborarik eta indar nahikorik uzten bestelako lanetan aritzeko. Hori dela-eta, pobreziaren subjektu nagusi izateko baldintzak izan ditugu Erdi Arotik (behinik behin). Erdi Aroaren bukaeran eta Kapitalismoaren hastepenekin, XVI. mendean lurren itxituren prozesua abiatu ahala, egoera hori gordindu zen, gizonezkoen kontrolatzaile papera bultzatu eta jendartearen baitan klase-eraketan sakondu baitzen. Prozesu horretan emakumeon pobretzea izan da ondorioetako bat, eta pobrezia/gose horrek eragin izan ditu askotan altxamendu ugari, emakumeek gidatuak edota piztuak. Federicck dioskun bezala, horrek eragin zuen, halaber, gosea eta pobrearen aurkako ideologia zabaltzea (gosea deabruarekin lotzea), bazekitelako goseak altxamendu soziala eragin zezakeela, eta gosea bera ekidin beharrean, altxamenduak ekiditeko modua aurkitu zuten klase sozial altuek, aberatsen kontrako eraso ugariak ekidite aldera. Hortaz, emakumea izan da historikoki iraultzarako subjektu aktibo; eta potentzial horri erantzuten dio emakumeon diziplinamenduan sakontzeak.

Garai bertsuan finkatzen da familia instituzio bezala, Europak bizi zituen izurriteen aurrean populazioa mantentzeko tresna, eta zorroztu egiten dira emakumeon sexualitatearen gaineko kontrol neurriak, haur-fabrika funtzioa gogor txertatzeko. Beharrezkoa da gure denbora horri eskainiko diogula bermatzeko ideologia-aparatua: etxeko andre figura, familiarekiko atxikimendua, heterosexualitatea eta bizitza publikoari ateak ixtea (bai materialki, bai mentalki); beste modu batera esateko, heteronormatibitatea, familia eredu patriarkala eta lan banaketa sexuala. Ideologia hori hainbeste barneratu zen, ezen gizon langileek ere askotan egin baitute emakumeak etxean ixteko eskaera, lantegietara hurbiltzeko aukera berriro zabaltzen hasi zenetik.

Puntu honetara iritsita, lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko banaketa eta ulerkerari hel diezaiokegu. Orokorrean eta azkar hitz egiten denean, esan ohi da lan produktiboa langileak soldatapeko lanean egiten duena dela, eta lan erreproduktiboa, langileak biziraun eta berriro lanera joateko egin behar duena. Aldiz, bestelako ulerkerarekin bat egiten dugu guk: lan erreproduktiboa da langileak bere burua birproduzitzeko egiten duen oro, tartean, soldatapeko lanera joatea. Hori gabe, ezingo bailuke janaririk erosi, sukaldatu ezta haurrik zaindu. Era berean, lan produktibo izendatu ditzakegu orain aipaturikoak, langilea produzitzea baita sukaldatzea edota haurrak zaintzea. Baina, termino horiek soldatapeko lanaren araberrako kategoriak dira soilik. Horiek gainditu nahi baditugu, ezin dugu horien arabera pentsatu. Emakumeok orokorrean bideratuta gauden lan-mota erreproduktibo gisa izendatutakoa izan da. Aldiz, aurrera begira pentsatzean, ez du balio esatea emakumeok lan produktiboaren parte izan nahi dugula. Alde batetik, bagarelako, eta bestetik, aldarri hori ez delako eraldatzailea bere baitan. Izan ere, esfera batean edo bestean, genero rolek biziraun dezakete (eta bizirauten dute); era berean, soldatapeko lanaren kategorien baitan gabiltzan bitartean, lan askerik ez. Argi dago emakumeon askapena soldatapeko lanaren bukaerarekin eta jendarte feminista batekin soilik erdietsiko dela, non generoak ez duen egin beharreko lana eta bete beharreko rol soziala markatuko.

## **Patriarkatuaren tentakuluak**

Orain artekoan aipatu ditugu jada patriarkatuak historian zehar garatu dituen zapalkuntza forma ezberdinak, bizitzako arlo anitzetan. Gaur arte biziraun eta oraindik ere garatzen diharduten zapalkuntza erak dira horiek, eta horrela laburbil genitzake: soldataren apropiazio maskulinoa, emakumeon lan salmentaren devaluazioa, gure gorputzen gaineko apropiazioa, heteroarautik kanpoko gorputzen gaineko bazterkeria eta mentalitate dominatzaile patriarkal orohartzailea, gainontzekoak birproduzitzeko beharrezkoa. Hauek aipatu genituen jada dominazio sistemari eskainitako testuan, beraz, hemen errepasatu eta pixka bat sakonduko ditugu.

Soldataren apropiazio maskulinoari dagokionez, gizonak etxetik kanpo lan egiten dutenean, bere lan-indarra birproduzitzeko emakume batek edo gehiagok egindako lana apropiatu duela esan nahi dugu. Hau da, etxean egiten diren lan gehienak emakumeon esku daudela jakinda, gizonak lanera joateko behar duten prozesu guzti hori ezkutuan geratzen da, nomina euren izenean jasotzen dutenean: prozesu kolektibo baten ordaina norbanako gisa jasotzen dutenean. Baliteke askok pentsatzea etxeko lan banaketan aurrerapausoak eman direla eta hortaz prozesu kolektibo hori zinez dela kolektiboa. Gizonezkoek lan horietako batzuk egiten dituzten kasu gehienetan, ordea, horien ardura bere gain dutenak emakumeak izan ohi dira. Beraz, esan liteke soldatapeko lanetik kanpoko lana emakumeon esku dagoela egun.

Emakumeon lan salmentaren devaluazioari dagokionez ere, badago esaten duenik gauditutako auzia dela. Hori pentsatzea mendebaldar jendarteko langile klaseko geruzarik altuenei begiratzea da. Izan ere, beheargoko kapetan gaudenok egunerokoan sufritzen dugu lanean generoaren araberako bereizketa. Zenbat neska gazte ezagutzen ditugu gure inguruan, haurrak zaintzearen truk miseria kobratzen dutenak, oso nagusi izan arte? Gama altuagoko lanpostuetan ere, badira oraindik soldata ezberdintasunak. Zenbat emakume nagusik, ikasketak izan ala ez, lan egiten dute beste etxe batzuetako edadedunak zaintzen, baldintza kaskarretan? Zenbat emakume ezagutzen ditugu gure inguruan etxe-barneko erregimenean, euren bizitza osoa soldatapeko lan gaizki-ordinadu bati eskaintzen? Kasu honetan, ekidinezina da arrazaren eta migrazio-fluxuen faktorea aipatzea. Noski, kolonializazio eta arrazakeriak oinarrizko papera betetzen du prekarizazioan. Milaka emakumek euren herrialdeetan familia uzten dute beste emakume batzuen esku, eta euren bizitza-denbora osoa salduz, irabazitako apurrak bidaltzen dituzte jatorrizko herrialdera, bertan familiak baldintza hobekak izan ditzan. Kasu horietan, erreprodukzio ziklo osoa familiako emakumeen esku geratu ohi da, eta patriarkatuak paper bikoitza jokatzen du: jatorrizko herrian familiako gizonak desagertuak daude, haurren zaintza osoa emakumeen eskuetan utziz, eta lan hori bete ahal izateko emakume migratuei esleitutako lan prekarizatueta murgildu behar dute, bikoizki devaluatuak daudenak, emakume eta migratuek betetzen dituztelako. Azken analisi hau oso orokortua eta azalekoa izan daiteke, eta aurreiritziz osatua dirudi, baina ez da behintzat salbuespenezko egoera, deskribatu berri duguna.

Jaio bezain laister gure gorputzen araberako banaketa binarioa egiten da. Horrela, gizonak eta emakumeak definitzen dira gainontzeko identitateentzako inolako zirrikiturik utzi gabe. Sexuak eta generoak bat egiten dutela jakintzat emanez sexu bakoitzari genero zehatz bat esleitzen zaio, gizonari maskulinoa eta emakumeari femeninoa, eta genero bakoitzari rol multzo ezberdinak dagozkie.

Bestalde, gure gorputzen gaineko apropiazioaren beste zutabe garrantzitsu bat sexualizazioa da. Bai neskato zein mutikoei rol sexual jakina esleitzen digute txiki- txikitatik. Gizonen kasuan harrapari, akosatzaile, erabakidun, eta emakumeon kasuan sensual, seduktore, hautagai. Gizonen jabetza izateko aukera horrek gure bizitza osoa zeharkatzen du, gure eguneroko jarrera txikiena moldatzen du eta gure autoestimaren txokorik txikiena iluntzen du. Bizitzan ditugun aspirazioak apaltzen ditu, izan beharreko harremanak zedarrizten ditu eta gure desioa deusezten du. Nola ez, beldurrez bizitzera garamatza, bakarrik ibiltzeari beldur izatera eta gizonekiko harremanak desitxuratzen. Edozein momentutan erasotuak izan gaitzkeela gure garunen eta gorputzen sakonenean txertatua daramagun ideia da, eta horrek mugatzen gaitu askotan erabakiak hartzeko edota gure izaera garatzeko. Gure inguruko gizonen (balizko) jabetza pribatu da gure gorputza, eta gure bizitza.

Heteroarautik kanpoko gorputz eta praktiken gaineko jazarpenak gure rol sexuala ez betetzearen gaineko zigorrari erantzuten dio. Emakume jaio, emakume izan, emakume bizi. Horrek esan nahi du aurreikusitako estereotipo eta eginbeharrak betetzea: izaera eta itxura femeninoa gordetzea, familia heterosexuala sortu eta haurrak izan eta horiez arduratzea. Horietako bat bera ez badugu betetzen, emakumetasuna zalantzan jartzen ariko ginatke, guk bete beharrekoa den ama eta zaintzaile papera beste norabide batean bideratzen edo beste norbaiti pasatzen, beharrezkoa den ondorengotza ez produzitzen, gizonezkoentzako objektu ez izaten... Zalantzan jartzen du jendartea goitik behera egituratzen duen genero dikotomia, eta horrekin batera, jendartearen egituraketaren zutabeetako bat.

Funtsean, aipatu zapalkuntza-ideologia guztia sostengatzen duena orohartzailea den mentalitate dominatzailea da, patriarkatuan oinarritua. Mentalitate honek ahalbidetzen du emakumeon posizioa devaluatua izatea, familian zein familiatik kanpo, lan merkatuan zein lan merkatutik kanpo. Harreman pertsonaletan zein kategorizazio orokorretan, emakumeon gaitasunak mespretxatzea, ahulago eta babesgabe gisa ulertzea, egiten dugun lana baliogabetzea eta gure gorputzekin nahi dutena egiteko zilegitasuna izatea.

## **Emakumeon borroka esperientziak**

Mentalitate dominatzaile patriarkala aski ezaguna da emakume ororentzako, egunerokoan bizi baitugu. Eta gure rola azpiratua izateagatik, dominazio mota hau ez da zilegitzat eta baliozkotzat hartu izan, ez da aztertu eta ez zaio aurre egin, ezta mugimendu iraultzaile deiturikoetan ere. Hala ere, historian zehar emakume borrokalari ugari izan dira, eta modu askotara egin nahi izan diote aurre sufritzen zuten zapalketari (ez soilik patriarkalari). Horietako adibide batzuk ekarriko ditugu hona, garrantzitsua baita emakume gisa borroka desberdinetan izandako parte hartzea, rol garrantzitsua eta inizatiba berreskuratzea, gure memoria kolektiboa eraiki eta presente izatea, egun ditugun erronkei aurre egiten lagunduko digutelakoan.

Historiako momentu urrunetatik hasita topa ditzakegu adibideak. Lehenago aipatu bezala, lurren pribatizazioari begira itxiturak eraikitzen hasi zirenean, lurra lantzen zuten komunitateetako kideek horien kontra egin zuten. Euren artean emakume asko joaten ziren hesiak erauztera, eurek izaten ziren sarri deialdiak egin eta lehen lerroan



zihoazenak. Baina patriarkatua ezarria zegoen jada jendartean: emakumeak ez ziren subjektu juridikotzat hartuak, eta beraz, delitua egin arren, ezin delitugiletzat hartu. Beraz, gizon asko emakumez mozorratzen ziren ekintza horiek egiteko, salatuak ezin izateko. Baina legegileek tranpa ikusita, gizonen gaineko mehatxuak jaurtitzen hasi ziren, euren emakumeak kontrolpean izan zituzaten. Emakumeek, hortik aurrera, gizonengandik ezkutuan joan behar izaten zuten hesien kontra egitera; zigor bikoitza eta borroka bikoitza, beraz.

Garai bertsuan finkatu zen sorgin-ehiza diziplinamendu tresna orokortu gisa. Hasiera batean estatuen ordenaren kontra zihoan edozein zen sorgintzat hartua, gizon zein emakume. Denborarekin, emakumetu egin zen sorginaren figura, eta jendartearen ordena mantentzeko beharrezko zen rol horri eusteko mekanismo bilakatu sorgin-ehiza. Horrek erakusten digu emakumeak zirela nagusiki jabetza pribatuaren, klase zapaltzaileen eta gizonen ordenari aurre egiten zietenak. Gainera, izandako epai kolektiboari erreparatuta, ikus dezakegu emakumeek batuta jarduten zutela sistemaren kontrako ekintzetan. Eta hainbat tortura pairatuta ere, ez zituztela euren ahizpak salatzen sarritan. Tortura horien erresistentzian emakume horien indar fisiko eta ideologikoa islatzen da nabari; euren komunitatearekiko eta bizitza askearekiko maitasuna, eta euren borroka gaitasuna.

Ondorengo mendeetan ere, emakumeen erresistentzia eta politiziaziorako saiakera nabaria izan da, baina era berean, zapalkuntza eta diziplinamenduak gora egin izan du; ez soilik emakumeen gaineko diziplinamenduak, baizik jendartearen burokratizazio eta alienazio integralak. Horrek zaildu egin du emakumeon izaera propioa eta kolektiboa garatzea, baita gure paper aktiboa islatzea ere. Hala ere, historian zehar emakume asko egon dira autodefentsa zein ekintza aktiborako antolatu direnak, modu lokal eta zabalago batean, modu klandestino edo publikoago batean. Horien artean, aipatu beharra dugu alderdi eta talde sozialista/komunistetan beti egon direla emakumeak, eta askotan egin dituztela ekarpenak emakume izateari lotuta, dominazioaren esfera hori agerian uzteko. Eta alderdi iraultzaile horietan ere, sarritan isilarazi dituztela. Eta dominazio horren gainetik ere, emakumeek euren ahotsa altxatzeko saiakera konstanteak egin dituzte.

Beharbada historiografia burgesari dagokio sufragisten borroka lehen borroka feminista gisa ezagutzea. Izan ere, lehen borroka sufragistak baino lehen (1840ko hamarkada) asko izan ziren, aipatu bezala, emakumeen antolakuntza markoak eta aldarriak. Edonola ere, sufragismoari zor diogu emakumeok subjektu politiko gisa errekonozituak izateko ideia ozen entzun izana. Nahiz eta helburua motz geratu eta erreformismo gisa hartu ulertzen dugun, emakumeen egoera juridikoa aldatzeko beharrezko borroka izan zen. Hortik haratagoko helburuak zituzten emakume iraultzaileak ere inplikatu ziren borroka horretan, beste helburu batzuk lortzeko baliagarri baitzen mugimendua hartzen ari zen indarra eta oihartzuna. Hortaz, mugimendu sufragista kondenatu baino, gure interesen bidean jartzeari interesgarri deritzogu, ez baita berdina erreforma eta erreformismoa: ez da berdina helburu gisa estatuaren legearen araberako lorpen txikiak izatea, edo horiek helburu handiagoen baitako tresna taktiko gisa ulertzea. Langile borroketan borroka nagusi izan da lan-ordu kopuruaren murrizketaren aldekoa, 8 orduko lanaldiaren aldekoa adibidez, hori bere horretan erreforma baino ez dela jakin arren. Eta hala ere, iraultzaren bidean beharrezko pauso gisa ulertzen da. Bada, horrelaxe ulertzen dugu sufragismoa ere; interes desberdinek modu desberdinean erabiliko duten gertaera historikoa.

Historian zehar, hainbat ikuspuntutik heldu zaio genero auziari. Jarraian zertzelada batzuk aipatuko dira.

Feminismo marxista edo sozialistak klasean eta lan erreproduktiboan jarri zuen arreta. Ez dago adostasunik lan erreproduktiboak erabilera balioaz gain truke balioa ere erreproduzitzen duenaren inguruan, baina baietz defendatzen dutenek, lan erreproduktiboarentzako salarioa aldarrikatzen dute. Feminismo beltzak interseksionalitatearen eta zapalkuntza hirukoitzaren teoria ekarri zituen. 70eko hamarkadako feminismo beltzaren kanpainen ardatz nagusiak izan ziren: eskubide erreproduktiboak, espetxeen deuseztatzea, bortxaketak, lesbianen eskubideak, derrigortutako esterilizazioa... Anarkofeminismoak jo puntuan jarri zituen jabetza pribatua, aberria eta familia ereduak. Emantzipazioaren defentsan, askatasunean, sexuen berdintasunean eta maitasun askean. Ez zuten dena zentratzen tailer eta fabriketako esplotazio ekonomikoan, zapalkuntzaz hitz egiten zuten modu zabalagoan, Estatua, Eliza edota Ejerzitoa bezalako instituzioak barnebilduz, baina baita familia patriarkala ere. Feminismo liberalak 1789ko Frantziako iraultzak ekarritako berdintasun juridikoa eta askatasun zein eskubide politikoak emakumeentzako ere izan zitezkeen aldarrikatu zuten. Transfeminismoa feminismoaren subjektua irekitzera datorren teoria da, zisgeneroa den emakumetik harago doan subjektuari bide emanez. Emakumearen askapenetik harago doa transfeminismoaren xedea. Segregazio sozialaren desagertzea bilatzen du. Feminismo erradikalak feminismo liberala kritikatu zuten, berdintasun formalak soilik bilatzen zutela leporatuz, botere harremanetan sakondu gabe. Feminista erradikalen aburuz, boterea non, analisi politikoak behar du han egon, eta ez soilik eremu publikoan, baita pribatuan ere; hortik “pertsonala politikoa da” leloa, publiko-pribatu ezberdinketarekin apurtzera zetorrena.

### **Euskal emakumeon borroka**

Ezker Abertzaleko antolakunde mistoetan kontzientzia feministaren garapena 1960ko hamarkadan hasi zen ehuntzen. ETAn, esaterako, nabaria da idatzietan ageri den bilakaera. Hasiara batean emakumeak etxekoandre eta ama paperera mugatzen ziren diskurtsoan; aldarri hori egiten zen, emakumeon plazer-objektu izaerari kontrajarrita. Gerora, emakume-gizon rola ondo bereizita bazen ere, emakumeoi espazio publikoan parte hartzea onartu zitzaigun: kultura eta jendarteari lotutako lanetan ardura genuela azpimarratzen zen. Denborarekin betebeharrak politikoen espektroa zabaltzeko eta nazio askapenerako borrokan subjektu gisa interpelatzen zen. Hala ere, diskurtsiboki emakume-etxekoandre-ama figurak bizirik iraun du egiten ziren aldarrikapenetan; adibidez, etxeko andreentzako soldata exijitzea, jendartean betetzen zuten papera errekonozitzea, “etorkizuneko hiritar euskaldunen hezkuntzaren arduradun” gisa. Baina esan beharra dago 1970eko hamarkadarako eztabaidari gogor eutsia ziotela, eta aurretik aipatu bezalako adierazpenak gutxiagotzen joan zirela. Aurrerapen diskurtsibo hori aintzat hartuta ere, kontuan izan behar dugu zein izan den militanteen praktika, diskurtsoarekin bat zetozen euren ekintzak edo ez, eta emakumeek beharra izan zutela egitura propioak sortzeko. Hortaz, diskurtsoari erreparatuz baina praktika begi bistatik galdu gabe aztertu behar dugu historia, hortik ikasi behar baitugu.

Euskal Herrian emakumeen askapenaren beharra 1970eko hamarkadan hasi zen antolatzen. Ipar Euskal Herrian izan zuen hastapena, Europatik zetorkion eragina eta

Hegoaldean bizi zen errepresioa medio. Abortu libre eta doakoaren aldeko borroka izan zen nagusi hastapenetan, frantziar estatuan 1975ean legalizatu zen arte. Ezker Abertzaleko emakumeek talde autonomoa sortu zuten Iparraldean eta Euskal Emazteak Bere Askatasunaren Alde -EEBAA- taldeari zor diogu ENAMen barneko lanketa feministaren lehen pausoa eta zapalkuntza hirukoitzaren teorizazioa.

Euren hausnarketetan honako galderak zeuden: zelan ulertu emakumeok pairatzen dugun zapalkuntza? Zelan egin aurre era praktikoan zein teorikoan? Zelan ulertu egoera soziala marxismotik zetorren eskema klasikoetatik? Berehala konturatu ziren korpus ideologikoa osatzeko beharraz eta munduko beste leku batzuetan garatzen ari ziren prozesuetara eta teorizazioetara begira jarri ziren. AEBn garatzen ari zen zapalkuntza hirukoitzaren teoriak (arraza, klase, sexu zapalkuntza) eragin handia izan zuen gure herrian gorpuzten ari zen euskal feminismoan. Gainerako herrialdeetako teoriak gurera erakarri eta gure egoera sozioekonomikoari begira moldatu zituen euskal feminismoak.

Euskal emakume iraultzaile horiek marxismora hurbildu ziren eta materialismo historikoak eskaintzen zuen marko teorikoak hemengo arazo sozialei erantzuna ematen ziela ikusi zuten. Materialismo historikoak sexuen arteko botere harremanak egiturazkoak zirela ulertzen lagundu zien eta zapalkuntza hori ideologikoa eta politikoa eta beraz ekonomikoa zela ikasi zuten.

Jendartea aztertzean, Marxek ikerketen objektutzat zein iraultzaren subjektutzat gizona jarri zuen, gizon burgesa eta gizon langilea, hain zuzen ere. Egoera oso antzekoa zen euskal komunisten edo sozialisten artean. Edozelan ere, teorian eta praxian aldagai berria gehitu zuten: emakumeak. Teoria marxistan sakondu zuten, azterketaren objektua zein iraultzaren subjektua euskal emakume langileak zirela azaltzeko eta onartarazteko. Horrela, euskal emakume haiek, ukatutako nazio bateko langileak, euren zapalkuntzaren kontzientzia hartu zuten eta hiru zapalkuntzen gaineko teorizazioa garatu zuten.

Hortik aurrera etorri ziren KAS Emakumeak, KASen helburu estrategikoei -Euskadi independentea, sozialista, batua eta euskalduna- "ez patriarkala" gehitu ziotenak. Horrela definitzen zuten borroka anti-patriarkala: sexuaren arabera lan-banaketa indargabetzea, nork bere gorputza kontrolatzea, afektu eta sexu-harremanen garapen librea, berdintasunezko partehartzea jendartearen kudeaketa ekonomiko eta politikoa.

Ildo beretik eta borroka berarekin jarraitzeko sortu ziren Aizan! (KAS alternatibatik kanpo baina horri eragiten eta antzeko helburuekin), eta ondoren Egizan (KAS alternatibaren barruan). Antolakunde horiek ezker abertzalearen kanpotik eta barrutik jardun zuten, beti ere mugimendu feministari lotuta, eta hainbat topaketa garrantzitsu antolatu zituzten horiekin batera.

Azkenik, Euskal Herriko Bilgune feminista sortu zen, egun ere bizirik dagoena, eta talde feministen sartzeko funtzioa egin nahi duena.

2010eko hamarkadatik, ostera, gauzak asko aldatu dira eta espresio antolatu ugari agertu dira, batzuk maila lokalekoak, beste batzuk nazionalekoak.

## **Feminismoaren ulerkeraz eta beharraz**

Gure memoria feminista osatuta, feminismoaren ulerkera argitzera pasa gaitezke. Feminismoak konnotazio asko izan ditu eta ditu egun, horietako asko negatiboak. Ez dugu uste kasualitatea denik jo-puntuaren egotea, hasieran aipatu bezala, emakumeon askapena bultzatzen duen mugimendua kontrolpetik ihes egiteko saiakera den heinean, kontrolpean nahi gaituen orok susmo txarrez hartuko baitu. Baina ez dugu horrekin gotorlekua eraiki eta bertan ezkutatu nahi. Argi dago feminismoak aurpegi asko dituela, eta horietako batzuk baino ez zaizkigu baliogarri iraultza integral batean sinisten dugunoi. Horregatik, hasteko, uste dugu feminismoa antikapitalista eta antiarrazista dela berez. Klasetan banatutako jendartea patriarkatuak sortu eta sostengatzen du hein batean, beraz, patriarkatuarekin amaitzen dugunean, klase jendartea bera, jabetza pribatuaren logika, errotik erauzteko bidea zabalduko dugu. Eta noski, sostengua patriarkatua izango ez balitz ere, ezinezkoa da emakumeok aske izango garela pentsatzea, patriarkatuarekin bukatu duen kapitalismo batean (hori posible balitz). Gure ulerkeraren arabera, feminismoak errotik aldatu behar du jendartea, harreman forma oro kuestionatzen du eta jendarte antolakuntza goitik behera astindu behar du. Horregatik, ez luke inolako esplotaziorik, konkistarik, egiturazko botere-harremanik onartuko.

Feminismoa prozesu, helburu eta borroka da. Prozesua da, mugimendu iraulzaileek, jendarreak bezalaxe, generoaren gaineko irakurketa eta lanketa zorrotza egin behar duelako. Berehalako egitekoa da emakume langileon bizitzako eta borrokako esparru guztietan jasaten dugun gutxiespena gainditzea. Borrokaz eskuratuko dugu emakumeok gure askapena, jendarte osoaren askapenarekin batera, eta horretarako, ingurua gure borroka onar dezan prestatu behar dugu. Horri deritzogu despatriarkalizazioa: patriarkatuaren arrastoak pixkanaka-pixkanaka gure izaera eta harremanetatik ezabatzen joatea; gaurdanik hasi beharreko lana.

Gainera, askapen prozesuaren bermea izango da. Askapen prozesu orokorrak generoaren auzia lehen lerroan, beti begi bistan izango duela ziurtatuko duena. Eta are gehiago, borrokaren ibilbidea zapalduaren begiradatik aztertuko dela ziurtatuko duena, bi, hiru aldiz zapaldua denak, hobeto ulertuko baitu dominazio sistema bere osotasunean. Horregatik, emakume iraultzaileok izan behar dugu borrokaren gidari, gure baitan daramagu askapen arnasa.

Eta noski, feminismoa helburua da; deskribatu bezala, feminismoak klase eta zapalkuntzarik gabeko jendartea bilatzen du, komunismoak bezalaxe; baina gainera, esplizitatu egiten du emakumeon askapena ezinbestekoa dela jendarte aske bat sortzeko, orain arteko askapen prozesuetan zenbaitetan ahaztu egin baikaituzte.

Lan hori guztia egiteko emakumeon subjektibazio eta ikuspegia azpimarratzen dugu: lehenago aipatu bezala, alde batetik zapalduaren begirada txertatua daramagu, emakume jaio izanagatik beragatik bizi osoa hartzen digun diziplinamendura jazarriak gaudelako; bestetik, zapalduaren kulturaren, sarritan jotzen dugulako gure artean saretzera, sufrimendua eta lana elkarbanatzera, egoa eta protagonismo beharra gutxiago garatzera, indibidualtasunean eta lehiakortasunean murgilduago egon den gizonen kultura baino. Jabetza pribatua gu geu garenez, beste batzuk jabetza gisa ulertzeko joera txikiagoa daramagu barneratua. Elementu horiek kultura kolektibo eta umil baterako oinarriak izan daitezke, finean, kultura komunistarako oinarri egoki.

Beraz, munduko emakume langileok, batu gaitezke, egin diezaiogun gure ekarpena gaurdanik abian den iraultzari. Euskal emakume iraultzaileok, har dezagun Euskal

Herriaren askapenean lanean aritu diren emakumeen lekukoa, eta ekin diezaiogun borrokari!

## Etika iraultzailea

2021-05-31

Gaurko analisia etikan zentratuko dugu, etika iraultzailean, hain zuzen ere. Edozein planteamendu iraultzailek bere baitan barnebildu beharko lukeen afera da etikarena, eta gaurkoan gaiari buruzko zenbait hausnarketa plazaratu nahi ditugu.

### **Etika eta egia iraultzailea**

Edozein giza taldek berau osatzen duten kideen jarduna gidatuko duten irizpideak behar ditu; zer den egokia eta zer ez adierazten duten balio zehatz batzuk. Horien arabera moldatuko da kideetako bakoitzaren pertsonalitatea, norbanako bakoitzaren izaera. Grezia klasikoan, *ethos* hitzarekin, estantzia definitzen zen, bizitzeko lekua edo espazioa. Denborarekin, *ethos* hori bakoitzaren izateko modua adieraztera pasatu zen; portaera eta jokamoldeek sortzen zuten gure barruko espazio hori. Gure barruko bizileku hori, *ethosa* edo izaera, norabidetzen eta moldatzen saia gintezke, egokiak iruditzen zaizkigun balioen arabera. Hor kokatu dezakegu etikaren jatorria. Baita moralarena ere, *moral* hitza, *ethos* grekoaren itzulpen latinoan baita. Finean, moralak ere, etikak bezala, bizitzan egokia zer den eta zer ez antzemateko irizpideak eskaintzen dizkigu.

Abiapuntu horretatik hasita, etika edo moralari buruzko irakurketak norabide ugari har ditzake, beraien artean kontrajarriak izan daitezkeenak. Esate baterako, etika iraultzaileari buruz hitz egiten amaitu dezakegu, baina baita moral erlijiosoari buruz. Horregatik, ezer baino lehen, zenbait elementu argitzea ezinbesteko ikusten dugu. Lehenengo eta behin, gure ustez, etikak politikoki eraikia izan behar du beti; prozesu konziente, kritiko eta hausnartu bezala gauzatu behar da. Moral erlijioarekin gertatzen ez den bezala, alegia, zeinetan sozializazioa erregulatzen duten balioak alde aurretik ezarrita dauden eta horiekiko obedientzia soila exigitua den. Zentzu horretan, prozesu politiko baten eraikitako kodigo etikoarekiko kontrola galdu, guk geuk sortu dugula ahaztu eta autonomia propioa hartzen badu, alienazioan harrapatuta geratuko gara. Moral erlijiosoaren alienazioan, alegia. Horregatik kontuz ibili behar gara etika eta moralari buruz dihardugunean. Pertsonok pentsatutakoa ezin da inoiz jainkoaren hitza bilakatu.

Hori argi izanda, laster ohartuko gara abiapuntu horrekin ere ez dela nahikoa. Kode etikoa edukiontzia baino ez da; barnebiltzen dituen edukien arabera, norabide batean edo bestean gidatuko gaituena. Hau da, etikaren adierazpen abstraktuak ez du berebiziko esangura politikorik, eta hortaz, ez du zertan adierazpen iraultzailea izan. Alegia, burgesiak ere badu bere etika propioa, liberalismo, indibidualismo eta kompetentzian oinarritutakoa. Jendarte kapitalistan funtzionalak diren balio etikoak. Horregatik, gu ez gara edozein etikaz ari. Helburu jakin baten bidean kokatuko gaituen etikaz ari gara; jabetza pribaturik gabeko sintesi sozialerantz zuzenduko gaituen etikaz ari gara, inongo dominaziorik gabeko bizitza askerantz gidatuko gaituena. Eduki horiek gorpuzten joango den etika beraz. Etika komunista iraultzailea. Baina nola ekin etika komunistaren eraikuntzari? Abiapuntu bezala, argi izan behar dugu prozesu etikoak norbanakoaren gain eragiten badu ere, prozesua beraren sujetua kolektiboa izan behar dela; prozesu etikoaren abiapuntu zein helmugak izaera kolektiboa eduki behar duela. Horrela, balio etiko iraultzaileen eraikuntza hausnarketa kolektibotik abiatu behar da,

norbanakoen pertsonalitatearen transformazioa eragingo duena bai, baina norbanako horiek logika kolektiboan oraindik indar handiagoarekin txertatzeko helburuarekin. Hau argi eduki ezean, etikaren lanketa ariketa autokonplaziente eta liberal bat bilakatzeko arriskua dago.

Bestalde, komunismoa iparrorratz, ematen du etika iraultzaileak baduela norabide argi bat, euskarri sendo bat. Baina zein da zehazki norabide hori? Zelan antzeman euskarri hori dominazioaren logika nagusi den egungoa bezalako jendarte eredu baten? Galdera horri erantzuteko etikarekin zerikusia daukan beste kontzeptu batera jo behar dugu: egia. Testuinguru ideologiko postmodernoa egiaz ez dagoela aldarrikatu da ozen, dena erlatiboa dela. Ez gara hemen eztabaida horren sakontasunean murgilduko, baina badaude errealitatean ematen diren zenbait gertakari, ukaezinak direnak. Esaterako, egungo munduan dominazioa eta zapalkuntza existitzen direla ukaezina da. Errealitatean gertatzen den zeozer da, egiazkoa. Patriarkatuaren eta kapitalismoaren egia da hori. Hori horrela izanik, badago bide bat errealitate hori gainditu dezakeena; hots, egia iraultzailea. Dominazioa antzematea erreza da, egunero sentitzen baitugu gure bizitzetan, gure gorputzetan. Dominazioa suntsituko duen bidez jabetzea, aldiz, askoz ere zailagoa da. Nork daki zein den Dominazioaren Sistema gainditu dezakeen bide iraultzailea? Hamarkada luzeetan zehar saiakera ugari egon dira mundu guztitik zehar, baina batek ere ez du lortu helburu iraultzailea, komunismoa, gauzatzea. Zentzu horretan, kontuz ibili behar gara: dominazioaren egia antzematearekin, egia iraultzaileaz jabetu garela pentsatzeak akats larrietara eramanez gaitzake. Dominazioak zelan funtzionatzen duen zehaztasunez ezagutzeak, ez dakar hori gainditzeko gakoak ezagutzea. Askoz ere ariketa konplexuagoa da azken hau.

Eta hala eta guztiz ere, egia iraultzailearen aukerak bere horretan dirau. Gaur egun ditugun gaitasun politiko eta organizatiboekin antzemaezina irudituko zaigu, ia ezinezkoa, baina egon badago. Uneoro somatzen dugu egia horren silueta; ikusi eta pairatzen ditugun zapalkuntzen aurrean gure bihotzeko taupada bakoitzean sentitzen dugu. Bada, silueta horren atzetik joatea besterik ez dugu, gure gaitasunak garatu eta egia iraultzailearen forma pixkana-pixkana definitzen joatea. Ez da hilabete baten erdietsi daitekeen helburua, ezta urte bete edo hamarkada baten ere. Bizitza iraultzari eskeiniz bakarrik hurbildu gaitzake egia iraultzailea begiztatzera. Eta horrekin ere, seguraski ez litzateke nahikoa izango; antolakuntza iraultzailearen baitan, kolektiboki, eta belaunaldi ezberdinen irakaspenak metatuz bakarrik lor daiteke bizitza askerako bidea ezagutu eta maila sozialean orokortzea. Borroka prozesuaren emaitza bezala bakarrik gauzatu daiteke egia iraultzailearen antzematea.

Beraz, arakatu eta zizelkatu, deskantsurik gabe, hori da egia iraultzailearen kondizioa. Eta horrek, egia iraultzailearen etengabeko bilaketak, gidatu behar du etika iraultzailearen eraikuntza.

### **Orain eta hemen, iraultzaren izaera etikoaz**

Etika iraultzailearen edukiak zehaztera pasa baino lehenago, ezinbestekoa da ulertzea zergatik etikak, gaurdanik, jardun iraultzailearen zentralitatea hartu behar duen. Zergatik ezin den izan aurrerago landuko dugun lan esparru sekundarioa. Berez, historikoki prozesu iraultzaile askotan etikaren aferak garrantzi nabarmena izan du. Errusiako eta Kubako iraultzetan, esaterako, bizimodu komunistaren nolakotasunari buruzko eztabaida ugari eman ziren, baita miliantearen izaerari buruzkoak. Kurdistanen

(PKK), Brasilen (MST) edota Mexikon (EZLN) ere etika eta militantzia iraultzaileari lotutako garapen sakonak eman izan dira. ENAMen ere hausnarketa asko egon izan dira militanteak izan behar dituen jarrereri buruz, konpromiso mailak, betebeharrak... Oro har, etika komunista herri zapalduen eta klase borrokaren historian zehar (era ez linealean) transmititua izan den balioen sistema da. Bere aztarnak topa ditzakegu komunismo primitiboa nagusia den estatutik gabeko jendarte aurremodernoetan; Erdi Aroko bizitza forma komunitarioetan; herejia erlijiosoetan (judaismo aurremoderno, anabatistak, antinomiano eta kuakeroak...); eta nola ez, XIX eta XX mendeko langile mugimendu internazionalaren baitan.

Gure ustetan, iraultza bera ulertzeko moduarekin lotua dago etikari ematen zaion garrantzia. Iraultza pentsatzerako orduan, normalean taktika eta estrategiaz aritzen gara eta askotan, taktika eta estrategia bi momentu banatu bezala aurkezten zaizkigu. Horrela, helburu estrategikoa bide luze baten amaieran egongo litzatekeen helmuga izango litzateke; helburu taktikoak, aldiz, helmuga horretara hurbilduko gintuzketen pausuak. Ikuspegi etapista horren arabera, iraultza momentu zehatz bezala gorpuztuko litzateke eta zenbait aldaketa eta aurrerapausok balizko “momentu iraultzaile” horri itxaron beharko liekete. Gure ustez, mugimendu iraultzaile askok egin izan duten akatsa da hori. Utopismoan erori gabe, gure ustetan, taktika eta estrategia egungo borroka prozesuaren errealitate banaezina izan behar dira; pausu taktikoak ematearekin batera, eduki estrategiko iraultzailea izango duten pausuak ere eman beharko ditugu, aldi berean, dialektikoki elkar elikatzen. Bide iraultzaileak bere baitan barnebidu beharko du helburua, etorkizuneko momentu hori, eta hortaz, egunero ematen ditugun pausu txikietan mundu berriaren islada ere jaso behar da.

Islada hori gauzatzeko ardua, inori baino lehen, militante iraultzaileari dagokio; suntsitu nahi dugun oraina eta eraiki nahi dugun etorkizunaren tentsio dialektikoa barnebidu behar du militanteak. Dominazio sistemak gutariko bakoitzaren baitan txertatu dituen balioak hautsi, mentalitate dominatzailearekin hautsi, eta horren ordez pertsonalitate iraultzailea eraiki. Eta horretan etikak berebiziko garrantzia hartzen du, bide horretan gidatuko baikaitu. Izan ere, egia iraultzailearen siluetak gaurdanik identifikatzeko gai garela esan badugu, silueta horiek argitzen diguten etika iraultzailea gaurdanik ere materializatzea lortu behar dugu. Pertsonalitatearen eraldaketa bat suposatzen du horrek, etorkizuneko balizko momentu iraultzaileari itxaron ezin diona, gainera. Gehiegitan egin izan den utzikeria da hori; hitz handien pean norberaren baitan eman beharreko eraldaketak iraultzailearen motxilan gorde izan dira, beste “egiteke” askorekin batera, aurrerago (ez dakigu oso ondo noiz) ebatziko ditugunak.

Zentzu horretan, argi daukagu etorkizuneko jendarte askean biziko den “persona berria” ezingo dugula gaurdanik osatu, prozesu sozial orokor baten emaitza bakarrik izan daitekeelako hori. Eta baldintza sozial orokor horiek ez dira gaur egun betetzen. Aurretik esan dugun bezala, ezin dugu etika iraultzailea gertakari indibidual bat bezala ulertu, iraultza bera, soilik eskala sozialean, eta mundu mailan, gauzatu daitekeen prozesu historikoa delako. Baina era berean, jardun iraultzailea etorkizuneko bizitzaren prefigurazioa bezala gauzatzea lortu behar dugu. Azken finean, dominazio eta klase sozialik gabeko jendarte aldarrikatzen dugunean, ez baditugu sozializazio forma berri horren arrastoak argitzen, ezer gutxi aldarrikatzen gabilta. Ez dugu sortuko “persona berri” hori, baina bai sortu beharko dugu “pertsonalitate iraultzailea”. Eta horretan datza militante iraultzailearen betebeharrak nagusietako bat; eredugarri izan, oraindik itzalpetan dagoena arakatu eta sozializazio forma berria zizelkatu. Hori da abangoardiaren adiera



iraultzailea: aurrerago joan, beste inork ikusten ez duena antzematen saiatu, bere baitan gorpuztu eta orainera ekarri. Arriskua, ukazioa eta sakrifizioa onartzen ditu aurrerapausu horrekin, abangoardia hartzearekin, baina existentzia berri baterako ateak ere irekitzen ditu.

### **Etika iraultzailearen edukiaz: zer gara, zer izan nahi dugu**

Etika iraultzaileak izango dituen edukiak definitu beharko genituzke orain, egia iraultzailea iparroratz hartuta. Hori baino lehen, baina, azken pausu bat eman beharko dugu; gu geu, bizi garen dominazio sistemaren emaitza gara eta sistema horren balioak errotuak ditugu gure pertsonalitatearen sakonenean. Horrek esan nahi du, gure pertsonalitatea ez dela edukiontzi huts bat, besterik gabe nahi dugun edukiaz bete dezakeguna. Horregatik, ezer berria eraikitzen hasi baino lehen, aurretik datozen eta ezabatuak izan behar diren balioak identifikatu behar ditugu. Izan nahi dugunari buruz hitz egiten hasi baino lehen, orain garenaz mintzatu beharko gara. Mentalitate dominatzailearen nolakotasuna argitu, alegia.

Egungo jendarte patriarkala, arrazista eta liberala dela diogu. Oro har, haren gidarritza jabetza pribatuak eta egoismoak du, horien baitan egituratzen direlarik denetario zapalkuntzak. Zapalkuntza horiek gure bizitzako arlo guztiak estaltzen dituzte: gure pentsamendua, harremanak, egutegia, desioak, sentimenduak... Momentu oro, logika beraren arabera funtzionatzen dugu, guk nahi izan gabe ere. Pentsamolde horren jatorria arakatu dezakegu historian, sistema ekonomikoen sorrera eta garapenean, zapalkuntza patriarkalaren lehenengo hazian eta espresio guztietan, kolonialismoaren praktika basati zein sotiletan... Patriarkatuaren jatorria zein den arakatu, eta sexu-genero sistemaren, zein sistema ekonomikoaren legeak topatuko ditugu, momentuz momentu gehiago degradatu dutenak generoen arteko harremanak, momentuz momentu gure garunean sakonki txertatu direlarik pentsamendu patriarkal orohartzaileak. Kolonialismoaren arrazoiak aztertu ditzakegu, ideologikoak eta geopolitikoak kontuan hartuz, baina ikusiko dugu norbanakoen harremanetan eta gure pentsamenduetan dutela azken geltokia. Kapitalaren logika ekonomikoa aztertu eta harreman ekonomikoen nolakotasuna ikusiko dugu, esplotazio harremanen garapena marraztuz, pentsamendu burgesa gure baitan daramagula ikustera heltzeraino.

Kontua da jendarte egituratzeko eta historia garatzeko modu zehatzak haren baitan eratu duela mundua; eta gu, munduaren parte gara. Aurretik aipatutako elementuak txertatuak daramatzagu; horrela gaude eraikita. Etekin pertsonala bilatzen dugu edozein ekintzatan (izan diruzkoa, posizio sozialari dagokiona, efikazia edo produktibitatea...), askatasun indibidualaren aldeko joerak topatzen ditugu geugan, ekibalentziaren legearen arabera trukutzen dugu edozer, harremanak eta objektuak merkantilizatuz... Harreman liberal, patriarkal eta kolonialistek norbanako bakoitzarengan dauka eragina; ez da langile klasearengandik aparte dagoen ezer, ezpada eratzen gaituen zerbait. Hori egiteko hainbat mekanismo erabiltzen dira, bai estatuarengandik, bai kapitalistengandik, usadioen transmisioetik zein bizipenetatik eratorritako subjektibaziotik datozenak: hezkuntza (bai etxekoa, bai instituzioengandik jasotzen duguna, bai inkontzientea, jendarteko ideia orokorrak barneratzean jasotzen duguna), osasuna (nori, nola eta zein baldintzatan eskaintzen zaion osasunaren kudeaketa, zein ulerkeraren arabera egiten den hori...), komunikabideak, soldatapeko lana (bere diziplina zein askatasun liberalaren ideiekin)... Kontakizun ofizialak hezten gaitu. Eraikitzen gaituzte, pentsatzen gaituzte, gidatzen gaituzte, hitz egiten gaituzte, idazten gaituzte, asmatzen gaituzte. Horrek

guztiak barneratua dugun iruditegi kolektiboa sortzen du, norbanakoen arteko harremanak norabidetuz, zapalkuntza eta esplotazioak iraunaraziz, jarrera pasibo eta konformistak errotuz... Egoera batzuk normalizatzetik, pentsamendu kolektiboa inkontzienteki barneratu eta birproduzitzera jotzen dugu.

Birproduzio horrek, jendartearen bezala, militanteengan ere badu eragina. Birproduzitzeak esan nahi du gu geu ere bilakatzen garela zapalkuntzen eragile. Bizi dugun momentu historiko-politikoak ikusarazten digunez, genero zapalkuntza da gure artean dugun arrakala handienetako bat. Milaka izan dira genero zapalkuntzaren teorizazioak eta konponbide proposamenak; milaka dira, baita ere, jarrera patriarkalak daudenean, militanteen justifikazioak. Borroken lehentasuna dela, izaera desberdinen kontua dela, egoera konkretuen zehaztasun berezia dela... gure artean gertatzen diren zapalkuntza patriarkalaren zantzuak ezkutatzeko joera argia dago. Justifikazio horiek ez diote inolako onik egiten iraultzarako bideari; beharrezko prozesu bat (despatriarkalizazioa) atzeratu baino ez dute egiten, injustizia iraunaraziz.

Hortaz, garrantzitsua da ulertzea eta onartzea gutako bat ere ez dagoela mentalitate dominatzailetik salbu; izaera liberal, patriarkal eta kolonialistatik salbu. Denok jaso dugu kultura politiko menperatzailearen herentzia; indibidualismoa, egoa, liberalismoa, matxismoa, arrazismoa, konpetizioa... Horregatik, lehen bala beti geure buruari bota behar diogu. Horretaz kontziente izatea, aldatu nahi izatea, eta prozesu horrek eskatzen duen ukaziorako prest egotea ezinbestekoa da.

Horrekin batera, baina, ez dugu esan nahi ukazio hutsean murgidu behar garenik. Gure baitan badaude gaurdanik indartu eta oinarri bezala hartuko ditugun ezaugarriak ere; dagoeneko gure artean elkar-zaintzera bultzatzen gaituztenak, kolektiboki elkartasunezko harremanak eraikitzea ahalbidetzen digutenak, albokoa sufritzen ikusi eta laguntzera bultzatzen gaituztenak. Jendarte kapitalista eta patriarkalean azaleratzen diren kontraesanetan aurkituko ditugu, dominazioaren funtsa alde batetik, baina baita berau gainditzeko abiapuntua ere. Poliziak laguna jipoitzen duenean, emakume bat erasotua denean, familia bat etxerik gabe geratzen denean, enpresariak lankide bat kanporatu edo lan baldintzak okertzen dituenen... Gure kontzientzia pizten da eta elkartasunez aritzeko bultzada indartzen du gure artean. Dagoeneko gure baitan bor-borka ditugu horiek. Bestela ez ginateke borrokan arituko. Bestela historiaren hari gorria aspaldi legoke hautsia. Kontua da borrokatzen hasteak, edota gure burua militantetzat hartzeak, ez dituela dominazio sistemak gure baitan txertatu dituen ezaugarriak besterik gabe ezabatzen. Prozesu askoz ere konplexuagoa da hori, zentzu askotan traumatikoa, militantearen determinazioa eta konpromiso irmoa exigituko duena. Alde batetik, haustura bat beharrezkoa du, gure herentziaren deseraikitzea bermatu beharko duena: dominazioaren arrastoak suntsituz. Bestetik, berreraikitzea behar du: subjektibazio kolektibo berria, identitate kolektibo berriaren eraikuntza; etika iraultzailearen inplementazioa.

Horregatik guztiagatik, jendartea irauli nahi dugun bezala, gure pertsonalitatearen transformazio iraultzailea gauzatzea ardura atzerazina da. Hori egin ezean dominazioaren islada gurekin eramango dugu eta modu baten edo bestean birsortu egingo da.

**Kode etiko iraultzaile baterantz**

Honekin, etika iraultzaileak izango dituen balioak definitzera pasa gaitzke. Zentzu horretan, kode etiko iraultzaile bat ez da ordenagailuko edo telefonoko pantaila aurrean irakurriz ezarri ezta barneratu daitekeen zeozer. Sakonki eztabaidatu eta asimilatu beharreko elementuak dira, prozesu kolektibo antolatu baten baitan egin beharreko bidea da; behin ezarri ditugularik, gure jardun militantea balio etiko horien arabera egituratuko delako. Helmuga iraultzailea duen edozein mugimenduk eduki beharko lukeen erreferentzia da; bere baitan diharduten militanteen jarduna zuzendu eta aberastuko duena. Eta militanteen bitartez, jendarte guztian zehar barreiatu, kutsatu eta sustraituko direnak.

Horregatik guztiagatik, ondoren zerrendatzen ditugun balioak, proposamen bezala plazaratzen ditugu, hausnarketa eta eztabaida pizteko helburuarekin; Euskal Herriko herri mugimendu eta espresio iraultzaile ezberdinentzat erabilgarri izango direlakoan. Balioak banan banan deskribatzen baditugu ere, ez dira modu isolatuan ulertu behar, elkarri lotuak daude, eta azken finean, osotasun bat eratzen dute.

Hortaz, honakoak dira, gure ustez, kode etiko iraultzailean garrantzi zentrala izan beharko luketen balioak:

- ♦ **Kidetasuna eta zaintza.** Jabetza pribatua eta egoismoaren logika gainditu nahi baugu, kidetasunak zentralitatea hartu behar du. Hau da, zaintzan eta elkartasunean oinarritutako harreman formak, berekoikeria gainditzeko gai izango direnak. Kideen arteko maitasunari buruz ari gara hemen, baina ez ohikoa zaigun maitasun erromantikoaz. Elkarlaguntzan oinarritutako harremantzeko modua da kidetasuna; ahizpatasun-anaitasun iraultzailea, baten arazoak guztion arazo bilakatzen dituena. Egun nagusi den hipersexualizazioan eta merkantilizazioan oinarrituta egongo ez den kideen arteko maitasun iraultzailea; errespetuzko eta parekidetasunezko harreman kritikoak garatzeko oinarrian egongo dena.
- ♦ **Umiltasuna.** Borrokak ezin du interes pertsonala oinarrian izan: kideen arteko fama ona, kapital soziala... Prozesu kolektibo baten parte gara eta horrekin bat egin behar dugu, umiltasunez. Galdetzea eta zalantzak izatea etengabekoa izango da; eta akatsak egitea, ulertzekoa. Besteengandik ikastea, errespetuz jokatzeko, entzutea, isilik egotea, bigarren planoan geratzea... egoera batzuetan aukeratu behar ditugun posizioak dira, horrek gudan ondoezik eragin gabe.
- ♦ **Diziplina.** Edozein antolakuntza forma funtzionatzeko beharrezkoa da. Antolakuntza horren baitan ezartzen zaizkigun betebeharrakiko borondatez konprometitzen gara; eta hartutako konpromisook diziplinaz bete behar ditugu. Hala ere, diziplina ez da soilik puntualtasuna, diskrezioa, ez hutsik egitea, lanak betetzea... Iraultzarekiko diziplina, antolakunde zehatz batetik diziplinaren gainetik egon behar da. Horrek esan nahi du zintzoak izatea balio eta ideia iraultzaileekiko, uneoro. Mugimendua norabide eta balio iraultzaileetatik desbideratzen bada, hori identifikatu eta zuzentzeko diziplina. Diziplina kontzientea edo kritikoa deritzogu horri. Antolakunde baten esanetara dagoen obedientzia soilak, sektarioa izatera iritsi daiteke, korporatibismora eraman gaitzakeen diziplina itsua.
- ♦ **(Auto)kritikotasuna.** Iraultzailearen begiradak kritikoa behar du izan; bai kanpora, bai barrura begira. Besteei errua bota baino lehen, norbere ardura

zorroztasunez aztertu beharko dugu. Baina ez da soilik momentu puntualetan erabili beharreko metodoa, baizik eta errealitatea ikusi eta gure burua ulertzeko etengabeko jarrera. Edozein mugimendu antolaturen baitan, kritikek lekua izan behar dute, eta kritika horiei konponbidea emateko tresnak izan beharko ditugu, prozesu kolektiboa eta eraikitzailea izan dadin. Kritikak ez du balio, arazoak konpontzeko bidean ez badaude; autokritikak ez du balio, egoa elikatuko duen konfesio gisa egiten bada. Kritiken ondorioak ulertu, onartu eta erantzuna emateko mekanismoak izatea da gakoa. Gainera, kritiken oinarrian kolektiboki erabakitako balioak eta funtzionamendua egon behar da, egoen arteko borroka bilaka ez dadin.

- ♦ **Ukazioa.** Militantzia ez da soilik desiotik datorren zerbait; askotan ukaziora garamatza. Ukapen horiek onartzeko prest dago iraultzailea; bere bizitzaren gainetik iraultza jarri eta horretarako behar dena egiteko prest; bizitza iraultzailearen hautua egin eta ondorioak onartzeko prest.
- ♦ **Iraultzapoza.** Iraultzak eskatuko dizkigun sakrifizio eta ukazioek ezin gaituzte izaki gris bilakatu. Bizitza maite dugulako, prest gaude bizitza hori eskaintzeko eta hori maitasunetik baino ezin da gauzatu. Herriarekiko maitasuna eta bizitza askearekiko maitasunak gidatu behar du jardun iraultzailea.
- ♦ **Gorroto-Maitasuna.** Maitasuna balio etikoen erroan badago ere, ezin gara gorrotoaz ahaztu, eta horregatik gure jarduna gorrotoa-maitasuna dialektikan oinarritu beharko da: gaurko mundua gorroto dugu, gure bizi baldintzak, dominazio sistemak jendartean inposatzen dituen zapalkuntzak eta antolamendua... Eta horri aurre egiteko borroka maite dugu, gure bizitzak hobetzeko saiakera, jendartea aldatzeko hautua, gure kideak maite ditugu. Maitasun etikoan oinarritu behar da gure borroka, suntsitu nahi dugunaren gorrotoak itsutu ez gaitzan, eta eraikitzen dugun mundu berriak maitasuna izan dezan erroan. Maitasunik gabeko gorrotoak faxismora eramane gaitzake; gorrotorik gabeko maitasunak aburgesamendura.
- ♦ **Sormena.** Dogmatismotik urrundu, kritikoak izan, ideiei bueltak eman, proposamen berritzaileak garatu... kolektiboki eta indibidualki landu beharrekoa, militante iraultzaile izan gaitzean, eta ez burokrata.
- ♦ **Pazientzia.** Bizimodu kapitalistan ezinegona eta abiadura dira nagusi. Existentzia azeleratu horrek noraeza eragin ohi du, estimulo hutsalez asebetetzen saiatzen garena. Horren aurrean, pazientziaz jarduteko gai izan behar gara: erritmoa pausatu eta zerumuga begiztatu; ikuspegi estrategikoa garatu eta arin batean zeharkatzen gaituen koiunturatik haratago, ibilbide luzeko pausuak ematen ikasi.
- ♦ **Polibalentzia/ formakuntza integrala.** Militanteak testuinguru desberdinetara egokitu eta horietan iraultzailetasuna transmititzeko gaitasuna izan behar du; erregistro desberdinak maneiatu behar ditu. Edozein egoera da egokia jakintza eta balioak transmititzeko edota ikasteko. Horrekin lotua, ezinbestekotasuna sahiestu behar du militanteak. Dependentsiarik ez sortu, jakintzak konpartitzea, delegatzeko konfiantza izatea... “Militanteak ezinbesteko balitz bezala jokatu behar du, nahiz eta badakien hala ez dela”.

## **Kritika-autokritika eta militantzia eredua**

Amaitzen joateko, azpimarratu nahiko genuke balio etiko jakin batzuk zehaztearekin ez dela nahikoa izango. Konplazentzia hutsa litzateke hori, intelektualismo antzua. Etika iraultzailearen ezagutza berak ez baitu ezertarako balio ez bagara gai gutako bakoitzaren baitan etika hori gorpuzteko. Etikak jardun bat suposatu behar du. Eta horretarako, kritika eta autokritika metodologia kolektiboak inplementatzea ezinbestekoa da. Funtsean, konfiantzan eta zintzotasunez aritzeko marko kolektiboak sortzean datza; egunerokotasunean militanteek izandako jarrerak irekitasunez kritikatu eta autokritikatu ahal izango diren markoak. Pazientziaz eta jarraikortasunez egin beharreko lana da eta pertsonalitate iraultzailearen eraikuntza hauspotzeaz gain, borroka prozesuan sor daitezkeen barne tentsioak kudeatu eta askatzeko ere erabilgarria da. Berez, sakontasun maila eta testuinguru ezberdinetan garatu daitezke ariketa hauek, baina gure ustez etika iraultzailearen adierazpen erradikalena bermatzeko, tresna bakarra daukagu eskuragarri: antolakuntza iraultzailea. Bere baitan bakarrik izango da posible hau bezalako prozesu batek exigitzen duen konpromiso eta diziplina maila lortzea. Gainera, antolakunde iraultzaile baten baitan bakarrik bermatu ahalko da militante iraultzaileen formakuntza integrala; teoria politiko iraultzailea barneratzeaz haratago, pertsonalitate iraultzaileak eraikitzeke gai izango dena.

Horrekin guztiarekin, militantearen figurari egozten dizkiogun ezaugarriak datozkigu mahai gainera. Militantzia eredua, alegia. Azken urteotan militantzia gero eta modu lausoagoan ulertzeko tendentzia nagusitu da Euskal Herrian, eta oro har, Europako ezker mugimendu askotan. Militantzia likidoa aldarrikatzen dute batzuek, ardura eta konpromiso gogorrik gabekoa, “garapen pertsonalari” lekua utzi behar diona. Denbora librean burututako militantzia, askotan aisialdiari lotua. Kapitalismoaren mugen barruan gauzatzen den aisialdia gainera. Militantzia baino, aktibismoa. Eta guzti hori, aurreko belaunaldietako militantzia eredu zahar eta neketsuak ukatuz. Oro har, borroka politikoa modu partzialean interpretatzen dutenei, eta partzialtasun horren isla den “aktibista” modu zentral eta eskusiboan aldarrikatzen dutenei, posmodernitate eta liberalismo kiratsa darie.

Gure ustez, prozesu iraultzailea konpromiso maila ezberdinak uztartzeko gai izan behar da; asko egongo dira, mugimenduari babesa adieraztearekin nahikoa izango dutenak, aportazio ekonomikoa eginez edota manifestazio edo aldarrikapen zehatzetara hurbilduz... Oinarri sozial zabal hori ezinbestekoa da edozein mugimendu politikotan; funtsezko sostengua da. Aldi berean, baina, bizitza prozesu iraultzaileari eskainiko diotenak ere egon beharko dira. Ekuazio iraultzailean beti egon izan den aldagaia da hori eta ez dugu uste iraultza soziala hori bezalako figurarik gabe gauzagarria denik. Deitu diezaiokegu kuadro politiko, militante iraultzaile... Figura horren bitartez bakarrik izango da posible hautu hori hartzen duten militanteak formakuntza prozesu integral eta erabatekoan murgiltzea, pertsonalitate iraultzaile berria eraikiko dutena beraien baitan. Etika iraultzailea modu erradikalenean materializatuko da pertsona horien baitan eta balio horiekiko erabateko erantzukizuna hartuko dute.

Horrek ez du esan nahi etika iraultzaileari lotutako balioak bakarrik militante iraultzaileek bete beharko dituztenik. Etika iraultzaileak mugimendu osoa zeharkatu beharko du, bakoitzak hartzen dituen konpromiso eta betebeharren arabera. Prozesu iraultzailea konpromiso maila ezberdinak uztartzeko gai izan behar dela diogunean, konpromiso maila horien arteko lotura, komunikazioa eta hartuemanak bermatzeaz ari

gara. Geruzetako bakoitzak funtzio zehatzak betetzen ditu, denak behar-beharrezkoak; denen arteko konbinazioak eta orekak bakarrik lor dezake prozesu iraultzailearen arrakasta. Beraz, mailaketa hori modu dialektikoan ulertu behar dugu, ez modu banatu eta eszindituan. Horrez gain, gure ustetan, gaur egun ez dago militante iraultzailearen figura posible egiten duen baldintzarik. Baldintza horiek eraiki egin behar ditu mugimendu iraultzaileak, bai ideologikoki, organizatiboki, materialki, ekonomikoki... Esate baterako, historikoki emakumeoi egokitu izan zaizkigu “militantziatik kanpo” bezala ulertu izan diren zaintza lanak. Zer esanik ez testuinguru militanteetan birproduzitzen diren jarrera patriarkalei buruz. Tamalez, horrela izaten jarraitzen du. Ondorioz, emakumeoi askoz ere zailagoa egin zaigu aurrerapauso hori ematea eta gehienetan ikusezinak izan diren iraultzaren geruza horietan egon gara. Hil ala biziko funtzioak bete izan ditugu posizio horietatik, baina salbuespenak salbuespen, iraultzak gizon aurpegia izan du beti. Hartara, mugimendu iraultzaileak lehentasun bezala hartu beharko du horri erantzun bat ematea eta emakumeok jasan izan dugun karga horretatik askatzea. Emakumeok militantzia iraultzailearen erdigunea eta gidaritza hartzeko baldintzak sortu arte (eta gaur egun ez daude), ezer gutxi aurreratuko dugu norabide horretan.

Honenbestez, etika eta militantzia iraultzailearen inplementazioak (edo berreraikuntzak) baditu bere zailtasun eta arriskuak. Prozesu konplexu eta gora beheratsu bezala ulertu beharra daukagu. Genero problematikatik haratago, etika iraultzailearekiko atxikimendua eta erantzukizuna modu desegokian ulertzeak prozesu iraultzailea kolokan jar dezake. Hartara, muturreko koherentziak hiperideologizaziora eraman gaitzake, eta horrek, etika iraultzailearekiko atxikimendu itsuak, militantearen isolamendua ekarri dezake, ghetizazioa eta elitismoa. Erradikalismoaren eskutik, militantzia identitate joko huts bat bilakatzeko arrisku larria dago, posmodernitatearen tendentzia nagusietako bat, alegia. Horregatik, herriarekiko lotura eta maitasuna inoiz ahaztu ezingo dugun oinarritzko elementua da. Militante iraultzailearen azken helburua jendartea eraldatzea da, eta hori herriaren alde borrokatuz, herria maitatuz eta berarekin bat eginez bakarrik lortu daiteke; lanpostuetan, kaleetan, gune sozialetan, etxeetan... jendartean txertatua egon behar da militantea. Etika iraultzailearen arabera jardungo badu ere, kontraesanarekin topo egin beharko du eta horiekin bat egin. Dominazio sistemaren lokatzetan bizirauten duelako herri zapalduaren askatasun arnasak, eta hor, ez beste inon, aurkituko ditugu egia iraultzailea zizelkatuko duten osagaiak.

Horrekin guztiarekin, asko dugu Euskal Herrian etika eta militantzia iraultzailearen inguruan ikasi eta praktikan jartzeko. Gaur plazaratu ditugun elementu asko garatzeke daude eta barnean daramaten potentzialitate guztia ezin da gaur egungo baldintzetan askatu. Beste asko Euskal Herriko borroka prozesuaren parte izan dira azken hamarkadetan, eta horiek kritikoki irakurri eta berreskuratzea dagokigu. Hurrengo urteetan berreraikitzen joan beharko den mugimendu iraultzailearen baitan etikarenak afera zentrala izan behar duela deritzogu. Hona hemen horri egiten diogun ekarpena.

Eta honekin, Hauspoa zikloari dagokion azken txanpari bide eman diezaiokegu; egungo errealitateetik abiatuta, jarduera politiko iraultzailea gorpuztu dezakeen proposamena plazaratuko duena: Independentzia Sozialista. Datozen asteotan izango duzue horren berri.

## **Independentzia sozialista, bide iraultzaileari ekiteko gakoak**

2021-06-07

Azken hilebeteetan eztabaidagai ugari mahaigaineratu ditugu Hauspoaren bitartez: Euskal Herriko historia eta bere baitan emandako klase borrokaren azterketa; ENAMen gaineko irakurketa kritikoa; dominazioaren erroak identifikatzeko analisia; genero auziaren gaineko irakurketa; eta etika iraultzaileari buruzko hausnarketa. Horietako bakoitzean elementu ugari garatu ditugu eta beste asko garatzeke geratu dira, ondorengo urteetan osatu beharreko lana izango dena. Guztiekin batera, garrantzi estrategikoa duten eztabaidagaiak plazaratu ditugu, eta horrekin, [egia iraultzailea](#) begiztatzeko bidean aurrerapausu garrantzitsua eman dugu. Argi dugu eraikuntzan jarraitu beharreko prozesua dela, iruten jarraitu beharreko haria. Gainera, ez da guri bakarrik dagokigun betebeharra; Euskal Herrian dagoeneko koordinada iraultzaileetan daudenekin batera, zein langile eta herri mugimenduko kideekin elikatu eta aberastu beharko den prozesua dela deritsogu.

Horregatik, gaurkoan aurkezten dugun proposamen politikoa, saiakera irekia da, burutu gabea. Egungo baldintzetatik abiatuta, praxi iraultzailea gorpuztu dezakeen sintesi politikoa.

### **Helburu estrategiko iraultzailea**

Aurreko testuetan adierazi bezala, dominazioaren hari historikoa jabetza pribatua, patriarkatua, kolonialismoa eta Estatuaren bitartez eraikitzen joan den osotasun material eta ideologiko bezala ulertzen dugu, bere azken adierazpena [modernitate kapitalistaren eskutik eman delarik](#). Dominazioaren logika horren pean sistematikoki apropiatua eta subordinatua izan da giza existentzia osatzen duen katea (gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena), etengabe birsortzen den egiturazko biolentzia eraginez eta gutxi batzuen botere metaketa ahalbidetuz. Biolentzia kapitalista, beraz, lana eta kapitalaren arteko kontraesanetik eratorria; biolentzia patriarkal eta kolonialarekin konbinazio makurra osatzen duena. Eta Euskal Herrian nazio auziarekin bat egiten duena. Izan ere, gurean modernitate kapitalista Estatu Frantses eta Espainiarraren eskutik inposatua izan da, bertako oligarkiekin aliantzan eta herri eta komunitateen aurka. Estatu egitura inperialista horien bitartez, oro har, euskal nortasuna zapaldua izan da, baina bereziki euskal herri langilea.

Horrez guztiaz gain, kapitalismoak berezkoa duen etengabeko hazkundeak, berak bultzatutako bitarteko produktiboen neurrigabeko garapen itsuarekin batera, energia eta materiaren zikloak globalki kolpatu ditu. Horren ondorioz, ekosistema eta espezie ugari desagertu dira dagoeneko, eta oraindik gehiagoren biziraupena kolokan egongo da hurrengo hamarkadetan zehar. Era berdinean, gizakiok eragindako krisi ekologiko global horrek gizakion zenbait existentzia forma ere kolokan jarri ditu. Azken finean, giza existentzia bera materia eta energia ziklo horiekiko dependientea da, ekosistemekiko eta bestelako espezie bizidunekiko eztuki lotua dagoen bezala.

Tamainazko panoramaren aurrean, helburu estrategiko argi bat identifikatzea beharrezkotzat jotzen dugu. Alegia, berehalakoan eman ditzakegun hamaika erantzunetatik harago, pausu horiek zuzenduko duten norabide zoli bat ezarri. Hori gabe noraeza eta nahasmena nagusituko dira kapitalismoak etengabe eragiten duen kaos material eta ideologikoaren aurrean. Bide iraultzaileari ekiteko, beraz, zerumuga

estrategikoa izatea aurrebaldintza bat da. Gurean dominazio ororekin amaitzea da, esplotaziorik gabeko jendarte askea eraikitzea; klase, genero edo arrazazko banaketarik gabea. Eta horretarako, dominazioaren erroa jo behar dugu: jabetza pribatua eta haren isla psikologikoa den dominazioaren mentalitatea, gurean pentsamendu liberal-burges, patriarkal eta arrazistaz osatuta dagoena. Horien guztien abolizioarekin bakarrik eraiki ahalko dugu inolako dominaziorik gabe antolatu eta garatu ahalko den bizitzaren adierazpen askea; berdintasunean eta askatasunean oinarritutako giza existentziaren espresioa. Komunismoa, hain zuzen ere.

Modu askotan ulertu daiteke komunismoa. Guk gaitasun sozial gisa ulertzen dugu; jabetza pribatua tarteko izan gabe, jendarte batek bizi prozesu osoa antolatzeko duen gaitasuna. Sintesi sozial bat, zeinetan bertako kideen arteko kohesioa, kontaktua eta harremana mantentzeko, ez den beharrezkoa izango merkantzien trukea, ezta beste inolako apropiazio formarik ere. Harreman horiek zaintza eta elkarlaguntzaren baitan eraikiko dira; eta bizitza eta existentzia komunala, komunitatea edo komunaren baitan. Barne mailako izaera aske horretaz gain, bestelako bizi formekin harreman eraikitzailea eta errespetuzkoa garatzeko gai izan beharko luke sozializazio berri horrek, materia eta energia zikloak orekatu eta aberasteko gai. Giza hedapenak krisi ekologikoak eragiteko duen joera historikoa eten, eta gizakiok ekoizten dugun errealitate geruza hori edertasun eta aniztasun iturri izatea lortu, ez heriotz eta suntsipen iturri.

Beraz, badaukagu abiapuntua, Dominazioaren Sistema, eta baita helmuga ere, Komunismoa edo bizitza askea. Batetik bestera egin beharreko bidea Sozialismoa litzateke. Eta hor dago komunismoaren arazoetako bat: ideia bezala argia da, arras sinplea. Nork ez du nahi askatasunean bizi, inolako zapalkuntza eta esplotaziorik gabe? Mendeetako erresistentzia eta askapen borroken ondoren, baina, oraindik inork ez daki zein den komunismora heltzeko bidea. [Etikari eskaini genion testuan](#) argi geratu zitzaigun hori: gauza bat da dominazioaren egia ezagutzea; baita askatasunaren egia borobila irudikatzea ere. Baina bien arteko lotura erakutsiko digun egia (egia iraultzailea), eta egia horren inplementazioa (bide iraultzailea), hori beste kontu bat da. Hamarkada luzez saiakera ugari egon dira mundu osoan zehar, baina batek ere ez du helburu estrategikoa, komunismoa, erdietsi. Alderantziz, gaur egun Dominazioaren Sistema, bere adierazpen kapitalistaren bitartez, inoiz baino izaera global eta hegemonikoagoa du.

Gauzak horrela, iraultzarako aukerak agortuta egotetik urrun, bere horretan jarraitzen dutela uste dugu. Izan ere, historiak aurrera darrai eta horrela, dominazio dagoen bezala, erresistentzia ere badago. Dominazioak berak, berezko dituen zapalkuntza, biolentzia eta desorekarako bultzadak hamaika kontraesan azaleratzen dituelako gertatzen da hori; barne mailan, bere baitan bizi diren pertsonen aurka denetariko zapalkuntzak gauzatu. Kapitalisten beraien artean ere, konpetentzia gero eta latsagoa sortuz eta zailago bihurtuz gainbalioaren ekoizpena eta metaketa. Kanpora begira, aldiz, sistema sostengatzen duten baldintza material eta energetikoen gain desorekak eraginez. Horrekin guztiarekin, Dominazioaren Sistema gaur egun pairatzen ari den krisia azken hamarkadetan eman den handiena izateko aukerak gero eta nabarmenagoak dira. Ez bakarrik Euskal Herrian, Estatu espainolean, frantsiarrean edo Europa mailan. Mundu mailako krisi sozial, politiko, ekonomiko eta ekologiko larri baten aurrean gaudela ezin du jadanik inork ukatu. Kontraesan horietan guztietan, eta horietatik eratortzen diren erresistentzia borroketan, aurkituko dugu iraultzarako bidea argituko digun sugarra.



## **Bide iraultzailea eta Kontrabotere Sozialista**

Beraz, zailtasunak zailtasun, orain arte ikusitakoarekin egia eta bide iraultzailearen nolakotasuna antzematen has gaitzkeela uste dugu. Hona hemen prozesu iraultzaileari ekiteko zenbait gako:

Lehenengo eta behin, komunismoa ezin da isolatutako esperientzia bat izan, jendarte kapitalistaren bazterrean bizi den esperientzia “alternatiboa” edo komuna hippia; lehenago edo beranduago kapitalismoak zuzenean zanpatuko luke, edota merkatuko sareek irentsi. Gainera, horrelako esperientzia mikropolitikoez izan ditzaketen bertuteez harago, gure proposamenak osotasun soziala barnebildu behar du: hau da, jendarte osoari erantzun bat emateko gai izan behar da, eskala sozialean aplikagarria den proiektua. Era berean, herrialde bakar batek, bere osotasunean bada ere, ezingo du inoiz bere kabuz komunismorako bidea egin. Mundu mailako kapitalismoaren aurrean, komuna hippia antzeratsu zanpatua izango litzateke, edo are txarrago; autodefentsara bideratutako zurrumbilo militarista eta autoritario hutsean agortuko litzateke. Beraz, komunismoaren ezarpen erreal eta osoa, mundu mailako prozesu iraultzaile baten bidez soilik gauzatu daiteke. Hau da, komunismoak, ezinbestean, izaera internazionalista eduki behar du.

Marko orokorra hori izanik, borroka iraultzaileak abiapuntu bat izan behar du. Eta gure ustetan, erresistentzia abertzalea bizirik dirauen herriontzako behintzat, komunismoak abertzalea ere izan behar du. Hau da, guretzako klase borrokaren garapenerako eta komunismoaren eraikuntzarako markoa Euskal Herria izan behar da. Hartara, euskal lurretan ezingo da inolako askapen prozesurik gauzatu gure aberria osatzen duten zazpi lurraldeek espainiar eta frantziar Estatuen kontrolpean jarraitzen duten bitartean.

Bestalde, bide iraultzaileak aurkituko duen beste zailtasunetako bat dominazioa sostengatzen duten oinarrizko egituretan dago: egiturok egon badaude eta egitura horien mugen barruan ere mugitzeko gaitasuna erakutsi behar du prozesu iraultzaileak. Patriarkatuarekin argi ikusi dezakegu hori. Esate baterako, abortua legeztatzerako orduan, legearen baitan gauzatzen den lorpen bat da. Horren bitartez emakume gisa gure posizioa ez bairik gabe hobetzen da, baina hobekuntza hori patriarkatuaren mugen barruan gertatzen da, bere kategoriak ez baitira gainditzen. Abortua legeztatua ere, sexu-genero dikotomiak bere horretan jarraituko du, emakumeon gorputzen gaineko sexualizazioa edota familia nuklear heterosexualak jarraituko duen bezala. Bortxatuak eta erailak izaten jarraituko dugu, baina orain, abortatu ahal izango dugu. Emakumeok gizonetikiko dugun distantzia soziala murriztuko da, baina patriarkatuak ezartzen dituen mugen barruan gertatzen da hori. Gure jarduera politikoak horrelako hobekuntza erlatiboak jaso behar ditu, noski, baina horrek ez dio gure jarduerari izaera antipatriarkal iraultzailea esleitzen.

Salarioarekin, eta oro har merkatu harremanekin antzerako zeozer gertatzen da. Lan asalaritua botere burgesaren sorburua da, gainbalio eta kapital berriaren iturria, enajenazio kapitalistarako bektorea. Jendarte komunista batean ezingo litzateke lan asalarituarik egon. Hala ere, gaur egun, langile klasearentzat salarioak biziraupenerako baldintza suposatzen du; janaria, etxebizitza, sozializazioa posible egiten duten produktu eta zerbitzuak... bakarrik salarioaren bitartez daude eskuragarri langile klasearentzat. Suntsitu beharreko harreman soziala da salarioa, bai, baina gaur salariora lotuak bizi gara. Gauzak horrela, patriarkatuarekin bezala, bere burua iraultzailatzat

duen mugimendu batek kapitalaren eta salarioaren mugen baitan, langile klasearen bizi baldintzen hobekuntza ziurtatu behar du. Esan bezala, salarioaren baitako borroka ez du gauza handirik konpontzen; soldata igotzeko edota alokairua merketzeko borrokatzen garenean, burgesarekiko langile moduan dugun posizioa hobetzen dugu; gure lan indarraren ordaina igo eta gure erreproduktzioarako gastuak gutxitzen dira. Baina hobekuntza horiek kapitalaren mugen barruan gertatzen dira, bere kategorien arabera; merkantzia, dirua, soldatapeko lana, kapitala... eta beraz, esplotazioak bere horretan jarraitzen du.

Mugimendu kooperatibistarekin, edo azken aldian bogan dagoen “ekonomia sozial eta eraldatzailearekin”, inon baino argiago ikusten da hori. Merkantziaren baitan justizia sozialerako eta sistema ekonomikoaren eraldaketarako espazioa dagoenaren ustetan, esperientzia kooperatibista ugari jarri dira martxan azken hamarkadan Euskal Herrian. Azpimarratu nahiko genuke hemen, merkantzien ekoizpen eta salerosketak, bereziki erabat globalizatua eta elkarlotua dagoen kapitalismoaren baitan, kapitalaren legeei bakarrik erantzuten diola. Horrela, merkantzien ekoizpena lotuak mantentzen diren bitartean, *balio* formak inposatzen dizkien mugetan harrapatuta egongo dira esperientzok. Are txarrago, kapitalismotik kanpo dabilzatenaren ilusioarekin, sozializazio forma kapitalistaren barruan (jabetza pribatua, merkantzia, salarioa, dirua) gero eta sakonago hondoratzen ikusiko ditugu. Merkatutik irten ezinik, kompetentziaren logikan kateatuta egongo dira beti: jarduera ekonomikoa errentagarri bilakatzea behartuta egongo dira, kualitatiboki zein kuantitatiboki etengabe haztera behartuz. Modu horretan, arinago edo beranduago, hurbilago edo urrunago, merkantzia katearen lekuren baten esplotazioa eta zapalkuntza eragitera kondenatuak daude. Aitzitik, errentagarritasun hori ezin badute ziurtatu, enpresaren bideragarritasun faltaren aurrean porrot ekonomikoa letorke. Kasurik txarrean, errentagarritasun falta horren aurrean norbere burua autoesplotazio tasa ikaragarri altuak asumitzera bultzatuta egongo dira, enpreddore, ekoizle txiki edota kooperatibista bezalako figuren pean klase nortasuna erabat desitxuratua.

Honek guztiak ez du esan nahi kooperatibarik eraiki behar ez dugunik, edo merkatuaren baitako baliabideak erabiltzeari uko egin behar diogunik ere. Ezta salarioaren baitako borroka suspertzera indarririk bideratu behar ez dugunik ere. Baina kooperatiba batek, edo lan baldintzen hobekuntzaren aldeko borroka, bere horretan, ez dio kapitalismoari alternatiba bat aurkezten, kapitalismoaren adierazpen alternatibo bat baizik. Erreforma hutsak dira mugimenduok; Dominazio Sistemaren baitan, eta bere kategorien bitartez gauzatu ditzakegun hobekuntza kuantitatiboak: 1000€ irabaztetik, 1500€ irabaztera; alokairuaren prezioa 800€tik 500€ pasatzea... Aitzitik, bere horretan ez digute kualitatiboki ezer ezberdina eraikitzeko aukerarik irekitzen. Ez dute dirua, merkantzia eta jabetza pribaturik gabeko errealitate sozialik eraikitzen. Are gehiago, modu isolatuan ulertzen baditugu, horren kontrako norabidea har dezakete; dominazioaren logikaren barruan leku erosoago, bizigarriago edota *alternatiboa* badagoela sinestera hel gaitetzke.

Garrantzi handiko ezarpenak dira honakoak, erreformak eta iraultzak izan behar duten harremanaz ari baikara hemen; erreforma eta erreformismoaren arteko ezberdintasunez, hain zuzen ere. Hau da, iraultzaren zerbitzura dagoen erreforma, alde batetik; eta iraultza ordezkatzeko duen erreformismoa, bestetik. Edozein iraultzailek argitasun kristalinoarekin ulertu beharreko ezberdintasuna. Eta zelan jarri erreforma iraultzaren zerbitzura? Bada, erreformaren baitan gauzatu den mugimendu oro, indar eta baliabide metaketa bezala gertatu behar da, botere forma burges, patriarkal eta

kolonialetik at eraikitzen joango diren adierazpen politiko, produktibo eta sozialak elikatzen bideratuko direnak. Jabetza pribatua, *balio* forma eta soldatapeko lanetik at, kolektibizazioan eta zaintzan oinarritutako sozializazio eta ekoizpen espazioak elikatzen. Azken finean, botere forma komunista zuzenean eta inmediateki elikatu eta eraikitzen bideratuta egongo direnak. Bakarrik horrela lortu daiteke erreforma aurrerapen estrategikoak sostengatu eta elikatzeko norabidean jartzea; bakarrik horrela lortu daiteke sozialismoa mugimendu errealki iraultzaile bezala jardutea. Alegia, gaur ematen dugun pausu bakoitzak etorkizuneko bizitza askearen prefigurazioa izan behar du; egiten dugun bideak berak helburua erakutsi behar digu. Hori lortu ezean, iraultza adierazpen teoriko soil bezala aurkezten bada, erreferentzia alegoriko huts bezala, ezer gutxi ezberdinduko luke sozialismo iraultzailea eta erreformismoa.

Horregatik guztiagatik, prozesu iraultzailea izaera kualitatibo ezberdina duten bi mugimendu forma uztartzeko gai izan behar da: alde batetik, Dominazioaren Sistemaren mugen barruan zapalduen egoera erlatiboki hobetuko duten mugimenduak; eta beste alde batetik, sozializazio forma berriaren edukiak gaurdanik eraikiko dutenak. Horretan datza Kontrabotere Sozialistaren eraikuntza; ibilbide luzeko aurrerapausu estrategikoekin batera, berehalako hobekuntza eskainiko diguten pausu labor-taktikoen konbinazioa dialektikoa.

### **Estatua, Sozialismoa eta Nazio Askapena**

Kontrabotere Sozialistaren forma horrek, gure ustetan, Nazio Askapenerako Mugimenduetan garrantzi handia izan duen etapismoa inpugnatzen du. Horren arabera, nazio askapenerako prozesuak, gutxienez, bi fase edo etapa izango lituzke. Lehenengo, independentzia nazionala ziurtatuko duen fasean kontzentratu indarrak, burgesia nazionalarekin aliantza exijitzen duena, eta hortaz, izaera burgesa duen Nazio-Estatu propio bat eraikitzea ahalbidetuko lukeena. Independentzia formala erdietsiko litzateke horrela, kategoria juridiko burgesen arabera, nazio arteko legeari begira sujetu independente bezala gauzatuko litzatekeena. Ondoren, Estatu berri horrek eskainiko lizkioken tresnekin sozialismoaren eraikuntzari ekingo lioke askapen mugimenduak. Horregatik Independentzia *eta* Sozialismoaren aldarria; lehenengo bata, eta gero bestea. Aurrerapausu taktiko eta estrategikoak modu konbinatu eta dialektikoan eman behar direla aldarritzen dugunean, nazio askapenaren, eta oro har, iraultzaren izaera etapista kolokan jartzen dugu. Eta horrekin, Estatuaren gaineko kontrolak prozesu iraultzailean zehar jokatu beharreko papera kolokan jartzen dugu.

Estatua, bere jaiotzetik, botere metaketa eta dominazioa eskala sozialean inposatzeko egitura da. Modernitatearekin batera izandako moldaeren ondoren, botere burgesaren adierazpen goren bilakatu zen. Merkatuak emititzen duen islada politikoa masa jendarte industrialak kudeatzeko: eskola, kartzela, ejerzito erregularra, polizia, burokrazia... Bat eta banaezina izan beharko lukeen bizitza prozesua zatikatu eta berau modu partzializatuan administratzeko egitura da Estatu modernoak. Beraz, botere burgesaren adierazpena da Estatuak; errealtate soziala dominazioaren logikapean jarraituko duenaren bermea, hain zuzen ere. Horregatik, komunismoan ezin da Estaturik egon, eta sozialismoaren betebeharra, komunismora gidatuko gaituen prozesu bezala, Estatu hori desagitea da. Baina zelan egiten da hori? Salariora edo diruarekin gertatzen den bezala, ezin dugu Estatuak, besterik gabe, existituko ez balitz bezala egin. Nola edo hala Estatuarekin kontaktuan jarri beharko gara.

Zentzu horretan, askok aldarrikatu izan dute Estatua sozialismoa eraikitzeko tresna dela. Gure ustez, komunismora heltzeko bidea sozialismoa dela esan badugu eta bere betebeharra Estatua suntsitzea bada, kontraesan larri baten aurrean gaude; darabilgun tresna (Estatua) eta tresna horrekin suntsitu behar duguna (Estatua) ezin dira gauza bera izan. Audre Lordek zioen bezala, “jabearen erremintek ez dute inoiz jabearen etxea suntsituko”. Horren aurrean, iraultzarako tresna sozialismoa izan beharko litzateke beti, ez Estatua. Hau da, sozialismoa ezingo da inoiz Estatuaren bitartez eraiki; sozialismoa Estatuaren aurka eraiki behar da beti. Besteak beste, Estatua ez delako kontinente hutsa; badituelako berariazko edukiak, bere izaera eta autonomia propioa, beti dominazioaren norabidean lerrokatuko dutenak. Horrek ondorengo ondorioztatzea garamatza: Estatuarekin ezertan hasi baino lehen sozialismoa martxan egon behar den prozesua izan behar da; hau da, indar sozial auto-eratu bezala ageri behar da, bere burua birsortzeko gai, jendartean zehar hedatu eta hazteko gai. Ondoren bai, antolakuntza iraultzaileak modu ezberdinetan jaurti dezake sozialismoa Estatuaren kontra. Gerra zuzena deklaratu diezaioke edo parasitatzen saiatu daiteke, bere baitan gordetzen duen boterearen forma suntsitzeko.

Beraz, gure ustetan, Estatua ezin da inoiz sozialista izan. Indar sozialista batek klase borroka dominazioaren erraietara eramateko gai ikusi dezake bere burua eta Estatuaren zenbait egituretan txertatu, berauek suntsitzeko asmoz. Baina horrek ez du Estatua sujeto sozialista bilakatzen, eta hortaz, iraultzaileok ez genuke Estatu Sozialistaren aldarria luzatu beharko. Estatu egiturak ezin dira sozialista bilakatu; dirua edo merkatua sozialistak izan ezin daitezkeen bezala. Horregatik, sozialismoa Estatuaren bitartez eraikitzeko proposamenak asimilazio eta erreformismoan itoztera kondetatuak daude.

Ondorioz, indar iraultzaileak Estatutik kanpo, eta Estatuaren kontra, izan beharko du beti bere erdigune, bihotz eta erabakigune estrategikoa. Sozialismoa Estatutik kanpo antolatutako sujeto autonomoa izan behar da beti. Hartara, Estatuaren erraietan sartzea erabakitzen badu, behin dominazioaren lokatsetan lepora arte murgiltzeko prest dagoenean, hori izango du bidean galduko ez denaren berme bakarra; norabide eta egia iraultzailea iparrorratz izaten jarraituko duenaren bermea. Horregatik guztiagatik, aurrerapen estrategiko iraultzailearen funtsa Estatutik kanpoko eremu hori elikatzean datza, eta horretarako, Estatuarekin ezertan hasi baino lehen, eremu iraultzaile hori egotea ezinbesteko baldintza da. Hori da Kontrabotere Sozialistaren abiapuntua: botereak Estatuaren bitartez hartzen duen forma suntsitzen hasi, Estatutik kanpo eraikitzen doan botere forma berria elikatuz doan bitartean.

Aurreko guztia nazio askapenerako borrokara ekarrita, ez dugu esan nahi Euskal Herriaren independentzia formalaren alde bultzatu behar ez dugunik. Lehenengo eta behin, balizko euskal Estatu horrek zenbait hobekuntza objektibo lor zitzakeen, batez ere euskalduntzeari begira eta oro har euskal kulturaren indartzeari begira. Horrez gain, euskal Estatua lortu zein ez, independentzia formalerako prozesuak berak ezegonkortasun garai bat zabalduko luke. Mugimendu iraultzaileak horren baitan agertu zitezkeen botere hutsuneak probestu ahalko litzuzke prozesu iraultzaileari bultzada emateko. Hala ere, independentzia formalaren aldeko prozesuak ez luke askoz ere gehiagorako emango. Ulertu beharra daukagu kapitalismo finantziario globalizatuan Estatua gero eta tresna zaharkituagoa dela. Are gehiago Euskal Herria bezalako herri txiki batentzat, Europako erdigunean kokatuta dagoena. Formalki idependientea litzatekeen Estatu horrek benetan gaitasun gutxi izango litzuzke. Merkatu finantziario globalari lotua, programa sozialista iraultzailean inongo aurrerapenik egiteko aukerarik

ez litzateke egongo Estatu egitura horien bitartez. Eta horretarako determinazioa erakutsiz gero, erraztasun handiarekin hondoratuko lukete indar kapitalistek. Egun, Euskal Herriarentzako sujetu ekonomikoa, ehun produktiboaren gaineko kontrola duena, gero eta gehiago Europa mailako eskalan ebazten da. Hortaz, bakarrik kapitalismoaren muga hertsien barruan, norabide liberal edo sozialdemokratan jardun ahalko luke balizko euskal Estatu independente batek. Eta hor ere, kapitalismoaren egungo egoera ikusita, programa sozialdemokrata praktikara eramateko zailtasunak ikusten ditugu.

### **Komunen sistema eta Independentzia Sozialista**

Horrekin guztiarekin, sujetu sozialista iraultzailea eratu eta indartu gabe euskal Estatu gainera badatorkigu, kinka larrian legoke prozesu iraultzailea; sozialdemokraziak alde batetik eta euskal burgesiak bestetik, zirrikitu oro beteko lukete. Kasu horretan, iraultzarako aukera bat baino, kale itsu bat aurkituko genuke independentzia formalerako prozesuan. Horrexegatik, iraultzaileon betebeharrak nagusia, gaur egun, sozialismo iraultzaile eta abertzalea berreraikitzea da. Eta horren bitartez, Kontrabotere Sozialista gorpuzten joan, Komunaren eraikuntza aurrerapausu estrategikoen erdigunean jarritz.

Komuna prozesu iraultzailearen oinarritzako unitate bezala ulertzen dugu, langile klasea modu gero eta kualifikatuagoan antolatzea ahalbidetuko duena. Hasiara batean, etorkizuneko Komuna iraultzailearen ernamuina izango direnak herri edo auzo asanblada bezala martxan jarri daitezke; baita elkarlaguntza edo langile autodefentsa sare bezala. Auzo eta herri mailan errotuta egongo diren hasierako subjektu kolektibo hauetan kapitalismoaren baitako hobekuntza erlatiboak lortzeko lanlerroak bultzatuko lirateke (etxebizitza, elikadura, emakumeon eskubideak, lan baldintzak...). Herri langilearen bizi baldintza inmediatekoak hobetuko genituzke horrela. Aitzitik, aldi berean, dominazioaren logikatik kanpo, balio forma eta lan asalariatutik haragoko produkzio eta erreproduktzorako formulak garatu beharko lituzkete Komunok. Kolektibizazioan eta zaintzan oinarritutako sozializazio eta produkzio espazio askeak, hain zuzen ere. Zentzu horretan, despatriarkalizazioa lan lerro estrategiko bezala ezarri beharko lukete: lan erreproduktiboen kolektibizazioa eman, gizonezkoen jarrera matxista eta patriarkalak deseraiki, botere harremanak orekatu... Azken finean, sozializazio berri baten argitzea ez da bitarteko produktiboen kolektibizaziotik automatikoki ematen; aldagai sinboliko eta kulturalen eraldaketa konziente eta politiko baten beharra du. Kapitalismoan nagusi den miseria emozionalari ere erantzun bat eman beharko litzaioke. Mentalitate dominatzailearen gainditzea, beraz, eta bere ordean, eredu etiko eta kultural iraultzailearen eraikuntza. Hartara, balio etiko komunisten inplementazioarekin batera, euskalduntzea eta euskal kultura izan beharko dute ardatz. Gure herriko ohiturak, azken hamarkadetan pairatu duten folklorizazio eta merkantilizaziotik berreskuratu, eguneratu eta jendarte eredu berriaren zutabe bilakatu. Zentzu horretan, euskal memoria kolektiboan leku esanguratsua duen baserriar jendarteak, bizitza askearen ezaugarri ugari zituenak, askapen borrokan inspirazio iturri bilakatu behar ditugu: komunitatea, ekonomia naturala, auzolana, elkarrekin harremanetzeko logika kolektiboak, herri-lur komunalak edota oinarritzako egitura demokratiko-komunalak (kontzejoak, batzarrea).

Gure ustetan, lanketa guzti hau martxan jartzeko ez diogu inolako etapa edo faseri itxaron behar. Lan ildoak argiak dira eta gaurdanik has gaitzke horretara. Abiapuntua xumea izango da, baina pazientzia eta konstantzia da iraultzaileon izaera ezaugarritu

behar duen balioetako bat. Gainera, txikitasunetik hasteak akatsen identifikazioa eta zuzenketa erraztuko du. Era berean, Komunen garapenak aurrera egin ahala, ematen diren aurrerapausuak defendatzeko gai den autodefentsarako jardun eta egiturak eraiki beharko dira. Zentzu horretan, lurraldean errotutako esperientziak izango diren heinean, lurraldea beraren defentsarako jarduna barnebilduko du autodefentsak. Bestalde, autodefentsaz harago, komunek elkarren artean sartzeko bultzada izan behar dute hasiera hasieratik; elkarren arteko aliantzek, konfluentziek eta konfederazioak komuna sistema gorpuztuz joango dira, beraien gaitasunak biderkatuz. Hemen prozesu guztiaren gakoetako bat egongo da; batasunerako prozesu honek koordinazio eta zentralizatorako tendentzia izan beharko du ezinbestean, funtzioen banaketa eta maila bateko espezializazioa. Bada, zentralizatorako tendentzia hori, benetan demokratikoak izango diren kontrol mekanismoez zeharkatuta egon beharko da; hau da, behetik gorako norabidean eta kritika-autokritikan oinarrituak. Ohikoak ditugun forma burokratizatu, burges eta parlamentarioetatik at, alegia.

Horrekin guztiarekin, ez dugu ahaztu behar Euskal Herri osoari erantzungo dion helburu estrategikoa darabilgula esku artean. Horregatik komunen sistema ekimen politiko nazional bezala proiektatu behar da bere hastapenetatik, eta norabide horretan aurrerapausuak eman etengabe. Era berean, gero eta oinarri sozial zabalagoa sortzeko gai izan behar dira komunok, jendartea eraldatzeko prozesu bati buruz ari baikara, ez jendartetik kanpo alternatiba isolatu bat eraikitzeari buruz. Horretarako, komuna sistemak konpromiso eta inplikazio maila ezberdinak uztartzeko gai izan behar da, oraindik bere baitan ez dauden herri geruzekin bat egiten jakin beharko duen bezala. Euskal Herritik kanpo ere, oinarri antzerakoak dituzten mugimenduekin aliantzak egitea lehentasuna izango da, Euskal Herrian gertatzen diren aurrerapausuak prozesu internazionalista baten baitan eman daitezen bultzatuz.

Komuna sistemaren eraikuntza salto kualitatibo ezberdinak ematen joango da, barnean daramatzen potentzialitateak askatu ahala eta koiunturaren arabera topatzen dituen zirrikitu eta aukerak probestuz. Garapen horren baitan, lurralde, eraikin, lantegi, auzo, bitarteko produktibo edota espazio mota ezberdinak birjabetuz hazi egingo da. Modu horretan, gaur egun merkatua eta Estatuaren barruan bakarrik gauzagarriak diren funtzioak bereganatuz joango da, eta horrela, giza existentziaren (gorputza-pentsamendua-lana-ekoizpena) gero eta adierazpen gehiago bere gain hartuko ditu. Komunen sistemak lurraldea eta espazioaren gaineko kontrol efektiboa suposatuko du, modu sakabanatuan bada ere; dominazioaren logikatik at garatzeko gune liberatuak, sozializazio eta botere forma berri baten lehenengo adierazpena. Horrela, komunitatearen berreraikuntzarako espazio eta esperientzia hauek, langile klasearentzako eta oro har zapaldu guztiontzat erreferentzia gune bilakatu behar dira. Horrekin guztiarekin, modu honetan eraikiz joango den Kontrabotere Sozialista boterearen forma berri baten oinarriak argituko ditu, etorkizuneko jendarte komunistaren bizkarrezurra izango dena botere forma berria.

Urteetan luzatuko den fase hau, momentu baten heldutasun puntu batera helduko da, eta orduan, Euskal Herriko Asanblada deitzeko garaia izango da. Euskal Herriko lurralde oro eta jendarteko sektore guztiak (hezkuntza, hizkuntza, lana, osasungintza, gazteria...) ordezkatuak izango diren espazio politiko konfederatua izango da hori. Euskal Komuna Sozialisten Errepublikaren hazia. Euskal Herriko Asanbladak komunen sistema garatuz eta sakonduz jarraituko du, aliantza internazionalistekin elkarlana sendotzen duen bezala. Dena helburu argi batekin jomugan; espainiar eta frantziar Estatuetik

autodeterminazio eskubidea de facto aplikatzea euskal lurretan. Urteetan garatu izan den komuna sistemak eta bere inguruan eratuz joan den oinarri eta zilegitasun sozialek, horretarako gaitasun politiko, produktibo eta soziala eskainiko diote.

Autodeterminazio deklarazioaren eskutik Euskal Biltzar Eratzailea sortuko da aurreko fasean parte hartu duten herri sektore guztiekin, eta horrekin, Euskal Komuna Sozialisten Errepublika eratuko duen Prozesu Eratzailea abiaraziko da. Fase honetan, prozesu iraultzailea Euskal Herriaren osotasunaren gaineko prozesu bezala gauzatuko da. Dagoeneko sendotua dagoen komunen sistemak, eta bere baitan haziz joan den Kontrabotere Sozialistak, beharrezko euskarria eskainiko dio prozesu iraultzaileari Estatu egiturak interbenitzeko eta botere burgesaren egiturak desmantelatzeko. Ehun produktiboaren gaineko kontrola ezarriko da eta komuna bizitza antolatzeko oinarritzko egitura bezala zabalduko da Euskal Herriko txoko guztietan zehar. Ordura arteko komuna sisteman ebazten ziren funtzioak momentu horretatik aurrera eskala sozialean egikaritu ahalko dira, eta horrela, prozesu iraultzaileak, prozesu sozial orokor bilakatuta, barnean daramatzen potentzialitate guztiak askatu ahalko ditu. Zer esanik ez du azkeneko fase guzti hau ezin duela Euskal Herriak bere kabuz burutu; aldezturik ehunduz joan diren aliantza internazionalistekin koordinazioan abiatu beharko da, elkar elikatuz eta lagunduz. Behin Euskal Komuna Sozialisten Errepublika finkatuta, komunismorako bidean sankontzea letorke, inguruko herri eta lurraldeetan indar eta prozesu iraultzaileak hauspotzearekin batera.

Modu horretan egikaritutako litzatekeen independentziari, guk, Independentzia Sozialista deritzogu. Txikitik handira eta behetik gora eraikiz joango den prozesu iraultzailea. Lehenengo, Kontrabotere Sozialistaren oinarriak ezarri. Ondoren, komuna sistema ardatz hartuta, oinarri horiek kuantitatiboki eta kualitatiboki gero eta eskala handiagora zabaldu. Euskal Herriaren independentzia formalarekiko modu paraleloan garatuko den prozesu independentista da aldarrikatzen duguna, inongo Estaturi itxaron behar ez diona. Bidean, bi independentzia prozesuak elkar elikatzeko aukerak zabal daitezke eta euskal Estatuaren independentzia formala gerta daiteke ala ez. Hori ematekotan, espainiar eta frantziar Estatuaren deskonexio formala egina legoke, baina funtsean, prozesu iraultzailearen zeregin nagusiek bere horretan jarraituko lukete: Estatu egiturak deuseztatu, burges boterea, kolonialismoa eta patriarkatua suntsitu, jabetza pribatua gainditu, mentalitate eta kultura dominatzailea deseraiki... Eta guzti horien ordez sozializazio eta botere forma berria hedatu. Finean, bizitza askearen inplementazioa euskal lurretan.

## **Bide iraultzailea jorratzeari ekin**

2021-06-14 10:55

Aurreko testuan esan bezala, Independentzia Sozialistak bakarrik ziurtatu dezake herri honek momenturen baten askatasun erreal eta osoa erdietsiko duela. Epe luzerako apustua da, apustu estrategiko iraultzailea; ez da bihar emango eta ez da bide erreza izango. Komunien sistema bera abiaraztea ere ez da lan makala izango; ez da modu espontaneoan agertuko den prozesu bat izango. Horregatik, badaude orain eta hemen prozesua piztu dezaketen epe motzeko zenbait helburu:

- Antolakuntza iraultzailea. Antolakuntza iraultzaileak bakarrik ziurtatu dezake prozesu iraultzaile batek beharrezkoa duen konpromiso, diziplina, sakontasun eta jarraikortasun maila mahai joko politikoan jarriko dela. Era berean, jakitun gara gaur egun, Euskal Herrian, mugimendu iraultzailea ulertzeko modu ezberdinak daudela, eta hauen arteko elkarlana ahalbideratu behar da antolakuntza iraultzaileak duen potentziala askatzeko. Gainera, horien baitan bakarrik posible izango da ikuspegi ideologiko-estrategikoaren zorroztea, egia iraultzailearen sakontzea edota militanteon formakuntza integrala (etika iraultzailearen inplementazioa barnebiltzen duena, alegia). Aldi berean, ematen dugun aurrerapausu orok dimentsio politikoak izango duenaren bermea da antolakuntza iraultzailea; adierazpen ekonomiko edo produktibo soilean geratuko ez direnaren bermea eta haustura politiko bezala barnean daraman potentzialitate guztia askatuko dela ziurtatuko duena.

- Despatriarkalizazioa. Hauspoa zikloan zehar behin eta berriro ikusi dugu patriarkatuak Dominazioaren Sistemaren betetzen duen papera: gaur egun arte behintzat, dominazio forma ororen oinarrian egon den egiturazko baldintza izan da patriarkatua. Horregatik, ezin da askatasunerako biderik abiarazi ere egin, ez bada despatriarkalizazioa erdigunean eta lehentasun atzeraezin bezala jartzen. Horretarako, herri langilearen edozein espresio antolatutako (mugimendu iraultzaileari dagokionean batez ere) egitura autonomo ez mixtoak eduki beharko lituzke fase historiko honetan. Bakarrik horrela posible izango zaigu zapalkuntza patriarkalari lotutako kodeak irakurri, berauek gainditzeko tresnak sortu eta horrela, prozesu iraultzailea benetan feminista eta askatzailea izango dela ziurtatzea.

- Borrokaren jarraikortasuna. Ziklo politiko bat agortu egin dela eta berau berreskuratzeko aukera nostalgikorik ez dagoela argi dugu. Hala ere, horrek ez du esan nahi azken 60 urtetan gertatutakoa besterik gabe historiaren zakarrontzira bidali behar dugunik; ezin dugu umea ur zikinarekin batera bota. Izan ere, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak izandako bertuteak, bere baitan emandako akatsak baino ugariago eta esanguratsuagoak dira. Horregatik borrokaren jarraikortasuna berandu baino lehen martxan jarri beharreko lanketa da. Borroka komunitatea berreraiki, belaunaldi zaharrak gazteekin lotura izan dezatela bermatu eta, oro har, aurreko ziklo politikoan metatutako kapital eta ezagutza politikoak gaurkotu.

- Lana-erreproduktzioa-produktzioa. Dominazioari eskaini genion hausnarketan ikusi bezala, lana-ekoizpenaren kateak giza existentziaren osotasuna hartzen du bere baitan. Lan erreproduktibotik hasita, gainbalioaren ekoizpena arte, errealitate soziala fluxu bakar bat bezala gauzatzen da, prozesu sozial orokor bezala. Ume bat jaiotzen denetik, bere gorputza eta pentsamendua agortuz joan ahala zahartzaro duin bat bermatuko



dioten zaintzak ziurtatu arte. Jango duen janaria, jantziko duen arropa, ikasiko dituen ezagutzak eta mundua ulertzeko kategoriak, entzungo duen musika, lan sozial orokorraren katean txertatuko duen bere lan indar propioa, gaixotzean sendatuko duten eskuak eta osasungintza jakintzak. Hori guztia pertsonon lanari esker bakarrik da posible, eta lan hori, bakarrik eskura ditugun bitarteko produktibo eta erreproduktiboei esker. Bada, egungo Dominazioaren Sistemaren lana-ekoizpenaren kate horren konfigurazioa kapitalaren lege eta kategoriei erantzuten die. Patriarkatuaren kategoriei erantzuten dien bezala.

Beraz, berandu baino lehen bizitzaren ekoizpena eta birsortzea posible egiten duten bitartekoen gaineko kontrola berreskuratzeari ekin behar diogu. Hasieran eskala txikian bakarrik izango da posible, bizitza sozial eta politikoaren esparru batzutan. Horrela, etxebizitzaren problematika, lan baldintzena edota elikadurari lotutako elkarlaguntza sare, autodefentsa sare, auzo mailako babes sare, etabarreko adierazpen auto-antolatua sortu eta indartu behar ditugu. Txikitik handira eta behetik gora, elkarren arteko saretze, konfederazio eta autodefentsa mekanismoak sortzen joango direla bultzatuz. Kontrabotere Sozialistaren eraikuntzari gaurdanik ekin behar diogu, etorkizuneko Komuna Sistemaren hazia erein eta zabaldu.

Prozesu iraultzailea pizteko ezinbesteko baldintza bezala ikusten ditugu aldagai hauek guztiak. Hastapenetatik izaera kualitatibo ezberdina duten bi mugimendu forma uztartzeko gai izango den prozesua, alegia: alde batetik, Dominazio Sistemaren mugen barruan zapalduon egoera erlatiboki hobetuko duten mugimenduak, langile klasearen bizi baldintzak hobetuko dutenak. Eta beste alde batetik, sozializazio forma berriaren edukiak gaurdanik eraikiko dutenak. Ibilbide luzeko aurrerapausu estrategikoekin batera, berehalako hobekuntza eskainiko diguten pausu labur-taktikoen konbinazioa dialektikoa. Ez diogu ezeri itxaron behar bideari ekiteko.

\*\*\*

Kapitalismoak azken harmarkadetan jasan duen krisi sakon eta larrienean murgilduta gaude. Dominazioaren baitako kontraesanak gora doaz eta iraganean milaka euskaldun borrokara lotzera bultzatu zituzten arrazoiak inoiz baino presenteago ditugu gaur egun. Arazoa da ideiak eta arrazoiak, taktika eta estrategia iraultzailerik gabe, elementu askatzaile baino, frustazio iturri direla. Era berean, taktika eta estrategia horiek ez dira sostengatzen antolakuntzarik ez badago. Horregatik uste dugu soilik antolakuntza eta borrokaren eskutik ireki ahalko dugula ziklo iraultzaile berri bat Euskal Herrian. Iraganeko akatsetatik ikasi, orainera begiratu eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezkoa den ikuspegi berria eraiki.

Badakigu ez direla garai historiko errezak Euskal Herriarentzat. Ziklo baten amaieran eta berriaren nondik norakoak oraindik argitu ezinik gabiltza. Gorago, mugimendu iraultzailea berreraiki eta berrindartzen lagundu dezaketen berehalako zenbait pausu definitu ditugu; baina ageri agerikoa da, prozesu iraultzailea berehala pizteko baldintzak lortzetik urrun gaudela. Beraz, luzera joko duen berregituraketa fase baten gaudela deritzogu, tentuz eta pazientzia iraultzailez jokatu beharreko fasea, alegia. Testuinguru horretan kokatzen dugu Hauspoa zikloaren bitartez argitaratu ditugun testuen zentzua. Fase politiko berriaren nondik norakoak argitzeko aportazio bezala, mugimendu iraultzailearen berrantolaketan lagundu eta berau hauspotzeko.

Helburu hori betea, Hauspoa zikloa ixtea dagokigu, Hauspoa bezala ezagutu dugun espazioari amaiera emanez. Orain arte argitaratutako material guztia sarean egongo da eskuragarri; bertan egongo da eztabaida ideologikoak elikatu eta aberasten jarraitzeko helburuarekin. Era berean, testuok modu irekian eskaintzen dizkiogu Euskal Herriari; Hauspoaren ibilbidea hemen amaitzen den heinean, aurrerantzean oinarri eta printzipio iraultzaileak konpartitzen dituen orok jo dezake testu horien osotasunera edo interesgarri dituen ataletara. Hori da herri honi egiten diogun eskaintza; txoko honetatik piztutako txingarrek, beste batzuekin bat eginez, berandu baino lehen herri honek beharrezkoa duen su iraultzailea piztu dezaten.

Gure aldetik, hasieratik bultzatu gaituen iraultzarako konpromisoa berresten dugu eta herri honen askatasun osoaren alde borrokan jarraituko dugu. Bidean ikusiko dugu elkar.

Askatasuna helburu, iraultza hauspotu.